

MARXISMOA ETA LANGILE KLASEA



Federiko Engels
Fundazioa

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

MARXISMOA ETA LANGILE KLASEA

Egilea: Euskal Herria Sozialista

Lehenengo argitalpena: 2010ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-69-7

Lege-gordailua: M-50863-2010

Argitaratzaile eta banatzaileak:
Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.fundacionfedericoengels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Argitaratzaileen Hitzaurrea	7
Langile klasearen indarra gaur	11
Langile klasea, klase kontzientzia eta sozialismoaren aldeko borroka	14
Langile klasea, gizarte kapitalistaren produkturik genuinoena	18
Erdi mailako klasearen mitoa eta honen izaera gizarte kapitalistan	21
Industriaren papera ekonomia kapitalistan	24
Enpresa txikia eta ekoizpen handia	27
Langile klasea eta klase kontzientzia	31
Langile klase industrialia	36
Langile klasea bere osotasunean	40
Marxismoa eta erreformen aldeko borroka	44
Sozialismoa ala basakeria	48
Langile mugimendua eta teoriaren garrantzia	53
Langile klasea eta sozialismoa	58
Materialismo dialektikoa, filosofia iraultzaile bat	62
Estatua eta bere itxurazko independentzia	67
Marxismoa eta Langile Estatua	72
Krisi kapitalisten teoria I	79
Krisi kapitalisten teoria II	83
Krisi kapitalisten teoria III	89
Sindikalgintzaren mugak	93
Materialismo historikoa	98
Materialismo historikoa eta ekonomia politikoa I	103
Materialismo historikoa eta ekonomia politikoa II	108
Ekonomia marxistaren oinarriak I: Jatorrizko kapital metaketa	113
Ekonomia marxistaren oinarriak II: Manufakturatik industria handirako bidea	117
Ekonomia marxistaren oinarriak III: Makinaria eta industria handia, gainbalio erlatiboaren ekoizpena	121
Ekonomia marxistaren oinarriak IV: Balioaren teoria	126
Ekonomia marxistaren oinarriak V: Irabazi tasa	131

ARGITARATZAILEEN HITZAURREA

Esku artean dugun idazlan hau *Euskal Herria Sozialista* aldizkariko artikuluez osaturiko bilduma bat da. Aldizkari hori atera genuen lehen aletik, atal berezi bat eskaini diogu marxismoaren teoriaren lanketari. Gure helburua batez ere honakoa zen: teoria horren aberastasun izugarria gaur egun eta Euskal Herrian kokatzea, teoria marxista, egungo egoeraren ikuspegi orokor batetik abiatuz, euskal langile klaseak kapitalaren aurka daraman borrokaren ikuspegi konkretuan lantzea, eta ikuspegi praktikoan beraz.

Horrenbestez, teoria marxistaren ideia orokorrak azaltzearekin batera, jarritako helburuak eskatzen zizkigun honako auzi hauek lantzeari ekin genion: sistema kapitalistaren gainbehera prozesuaren zergatiak, egun langile klaseak duen indarraren funtsa, antolakuntza maila eta bere eginkizun historikoen kontzientziaren oinarriak, klase arteko borrokan langile erakunde ezberdinek jokatzen duten papera eta, besteak beste, nola ez, borroka honetan ezinbestekoa zaigun programa eta estrategia iraultzailea zehaztea eta hori gorpuzten duen antolatze iraultzailearen beharra argitzea.

Lau urte pasa dira jada aldizkariaren lehen alea atera genuela, eta datorren urteko maiatzaren lean bost beteko dira. Dialektikak azaltzen duen bezala, ezer ez dago geldirik, dena dago etengabeko mugimenduan. Eta nola ez, denbora tarte horretan garapen bat jasan du, bai gizarteko egoerak eta baita aldizkari honek ere. Baina garapena geldiezina denez eta hori ezkutatzen saiatzea erabat alferrikakoa, artikuluek argitaratuak izan ziren modu eta orden berean utzi ditugu, horiek gaien arabera sailkatzen edo moldatzen ibili beharrean. Dena den, esan beharra dugu, lehen aletik azkenera arte, bertan ideia berak eta ildo berbera defendatu direla, hain zuzen ere marxismo iraultzailearenak.

Baina egungo propaganda ofizialak marxismoa zaharkitua, gainditua eta hila dagoela esaten digu etengabe. Inoiz ez zuen

gorpu batek hainbeste alditan lurperatua izan beharrik. Oso susmagarria egiten da, ideia horiek sortu ziren momentutik bertatik behin eta berriz hilik dagoela errepikatzeko behar hori; aspaldi hil bazen, goian bego eta kito, ezta? Propaganda hori burgesiaren sektoreek sortu izan dute eta gustu handiz errepikatzen dute intelektual burges txikiak eta langile mugimenduko buruzagi erreformista ezberdinek. Marxismoak badauzka bere urteak hori ez dago ukatzerik, manifestu komunista 1848an argitaratu zen. Baina zaharra izatea eta zaharkiturik egotea oso gauza ezberdina da. Gurpila asmakuntza zaharra da baina oraindik ere funtzionatzen jarraitzen du, ez da zaharkiturik geratu.

Asko izan dira historian zehar marxismoa “zuzendu” edo gaintitu nahi izan dutenak. Baina kasualitate handiegia, horiek guztiak puntu batean erasotzea marxismoa, hain zuzen ere, iraultza sozialistaren puntuan, konkretuki burgesia desjabetu eta ekonomia planifikatu behar dela eta instituzio burgesak suntsitu eta langile demokrazia ezarri behar denaren puntuan. Intelektual askori materialismo historikoa gizartea ulertzeko tresna bikaina iruditu izan zaie, baina beren pribilegio sozialak direla eta iraultzarekin ez dute ezer jakin nahi. Aitortu beharra dugu, ezbairik gabe materialismo historikoa tresna filosofiko benetan sakona eta bikaina dela, baina hori ezin da iraultzatik eta langile klasearen borrokatik banandu, ezin da zati komenigarri hori hartu eta bestea utzi, zeren berak planteatzen duen iraultza ez da aurrez ezarririko dogma bat, garapen historikoak eskatzen duen behar bat baizik.

Azken batean, marxismoak ezin du zaharkitua geratu sistema kapitalista bizirik mantentzen den bitartean behintzat. Bere oinarria, klase arteko borrokaren esperientziatik abiatzen da, batez ere, langile klaseak gizarte honetan bizitzen duen esperientziatik. Hori dela eta, marxismoaren meritu nagusia borroka esperientzia horren ikuspegia zabaltzea, bertatik ikasgaiak ateratzea eta azkenik hori langile klasearen programa iraultzaile batean sintetizatzea da. Materialismo dialektikoa eta materialismo historikoa ere modu horretan garatu izan dira jaio ziren unetik bertatik, esperientzia horren barnean eratuz, eta aldi berean, filosofiak, zientziak eta historiaren azterketak eman duen hoberena barnebilduz.

Horrela beraz, teoria marxistak bere hastapenetatik mantendu izan du ikuspegi praktiko bat. Bere garaian, Marxek filosofiaren eginkizuna ez zuela mundua modu ezberdinetan interpretatzea izan behar, bera eraldatzea baizik, azpimarratu zuen. Baina noski, eraldatzeko hori bere funtzionamendu objektiboan ulertu beharra zegoen, ahalik eta sakontasun handiekin. Horri ekin zion. Bere aldetik, Leninek sarritan errepikatzen zuen “teoria praktikarik gabe antzua dela, baina praktika teoriarik gabe itsua”, langile klasearen alderdi iraultzailean teoria marxista nola gorpuzten den sakonki landu zuelarik. Eta marxismoak, belaualdietan zehar, horrela mantendu izan du gaur egun arte teoriaren eta praktikaren loturaren ikuspegi dialektikoa. *Teoriaren lanketa, azken finean, ekintzarako gida bihurtzen da eta alderantziz, ekintzaren esperientzia, aldi berean, ikasgai teoriko*. Modu horretan ulertzen dugu hemen ere, Euskal Herriko langileentzat eta gazteentzat teoria marxistaren lanketak duen ezinbesteko garrantzia. Eta hori dela eta ekin diogu *Euskal Herria Sozialistatik*, ideiak hauek duten indarra eta baliagarritasuna mugimendura helarazteko, besteak beste, teoria marxista egungo testuinguruan lantzeari.

Bi hilabetez behin, hutsik egin gabe, langile aldizkari bat argitaratzeak, beste hainbat eta hainbat gauzen artean, eginkizun hau aurrera eramatea baimendu digu. Konbentziturik gaude bide horretan jarraitzeko dagoen beharraz; eta konbentziturik gaude, halaber, Euskal Herriko langile eta gazteen mugimenduan eta mugimenduarekin, marxismoaren ideiak zabal-tzen, garatzen eta indartzen jarraitzeko dugun eginkizunaz.

2010eko azaroa

LANGILE KLASEAREN INDARRA GAUR

Giza historiaren edozein garaik dauka bere islada arlo ideologikoan. Nahitaezkoa da horregatik, erreakzio soziala ematen den garaietan pentsamendu politikoak atzerantz egitea, orain dela denbora asko gaindituta zeuden garaietara itzuliz. Leon Trotskyk honi buruz honako hau idatzi zuen: "Baldintza hauetan abangoardiaren eginkizuna, ezeren aurretik, beheraldi orokor horretatik salbu mantentzea da: beharrezkoa da korrontearen aurka aurrera pausoak ematea. Indar erlazioak aldekoak ez badira orain arteko posizio politikoak kontserbatzeko, gutxienez posizio ideologikoak kontserbatu behar dira, iraganeko esperientzia baliotsuak hor kontzentratu baitira. Posizio ideologiko hauen defentsak, garai historiko berrien goranzko boladak bultzatutako aurrerapauso erraldoia prestatzeko balio du".

Iraultzaile errusiar handi honen adierazpen inspiratzaile hauek marxistok gaurko egunean sistema kapitalistari aurre egiteko oinarritzko ideiak planteatzen dituzte, gizartearen eraldaketa sozialistaren borrokan jarraitzeko.

Estalinismoaren erorketaren ondoren burgesia eta bere akolitoen kanpaina indartsu bat hasi zen mundu guztian, marxismoaren eta sozialismoaren benetako ideien aurka. Hurrengo urteetan herrialde kapitalista garrantzitsuenetan nolabaiteko egonkortasun ekonomiko eta soziala eman ziren eta horretaz ere baliatu ziren eraldaketa sozialaren ideia ezabatzeko.

Marxistok ez dugu beldurrik eduki behar azkeneko bi hamarkadetan langile mugimenduak beheraldi ideologikoa izan duela aitortzeko. Masen erakunde tradizionaletako agintari politiko eta sindikalak eskuinerantz joan dira orokorrean herrialde guztietan eta horrek langile mugimendua desorientatuta eta perspektibarik gabe utzi du.

Paradoxikoa da FMI giza historian inoiz izan diren ezberdintasun ekonomiko eta sozial handienak errekonozitzen ari den bitartean langile mugimenduaren barruko joera gehienek,

moderatuenetatik hasi eta ezkertiarrenetaraino, gaur egungo egoera ontzat ematea, kapitalismoa “txarretan onena” den sistema balitz bezala santifikatzea eta burua lurraren azpian gordez garai hobeen esperoan egotea. Herrialde garatuetan langile klaseak lortutako konkista historikoak murrizten ari dira egunero, langile klaseko gazteenei etorkizun beltz bat eskeintzen zaie, gerrak hainbat lekutan, gaixotasunak, miloika pertsonengan eragina duten basakeria eta miseria amaigabeak mundu osora zabalduta gero eta gehiago; hau dena multinazionalen interes ekonomikoen ondorioz. Kapitalismoaren ekoizpen anarkikoa berealdiko krisi gogorrek prestatzen ari den bitartean hainbat agintari politiko eta sindikal ezkertiarrek ez dute burgesiak dominatzen duen gizartearen partez sozialismoa eraiki nahi, zapaltzaileen salbatzaile handienetan bihurtzen direlarik.

Makalaldi ideologiko hau zertan den erakusteko, azken urte hauetan, langile mugimenduaren barnean dauden analista burutsuak ekonomista burgesen bulegoetan prestatzen diren zabarkeriak errepikatzen ari dira behin eta berriz. Análisi marxista hondatuta dagoela ikusarazteko hainbat “froga eta gertaerekin” bonbardatzen gaituzte, batez ere ekonomia berriaren aitzakia erabiliz. Langile klasea “modu tradizionaleran” ez dela existitzen esaten dute ekoizpenean sartu diren teknologia berrien ondorioz. Gizartearen estruktura aldatu dela aipatzen dute erdi mailako klaseen sorrerarekin, honek ekonomian industriak orain arte zeukan indarra ahulduz eta beraz akolito hauen ustez langile industrialek sistema ekonomiko kapitalistan garrantzia galdu dute.

Análisi hauetatik harrigarriena ez da esaten dutena, berrietan ezer berririk ez dagoela baizik. Hitzez hitz, azken ehun urtetan marxismoaren oinarritzko ideien aurka eraibili diren argumentuak errepikatzen dira berririo. Aldizkari honen bitartez argumentu horiek erantzun nahi ditugu marxismoaren baliokotasuna defendatuz.

Guretzat, marxismoak eskeintzen dituen ideia eta analisien konjuntua langile klaseak orainaldia ulertzeko eta etorkizuna irabazteko herraminta onena da. Che Guevara gerrilarekin borrokan Sierra Maestran zegoenean ere ez zen ahazten marxismoaz eta baldintza gogorretan egonagatik norbait bida-

li zuen Marxen lan garrantzitsuenetakoa den El Capital obraren bila buruan etorkizuneko eginkizunak zituenez haiek prestatzen joateko.

Aldizkari honen atal honetan hiru aspektu landu nahi ditugu batez ere: langile klasea kontzeptuaren definizioa, honek ekonomia kapitalistan jokatzen duen papera eta klase kontzientziaren formakuntza prozesua gizartearen eraldaketa sozialista emateko derrigorrezko pauso bezala.

LANGILE KLASEA, KLASE KONTZIENTZIA ETA SOZIALISMOAREN ALDEKO BORROKA

*Langile klasea eta klase kapitalistak gaur egun jokutzen duten papera ulertzea ezinbestekoa da gizartea aldatzeko. Gizarte kapitalista bi klase sozialen existentzian oinarritzen da: klase kapitalista edo burgesa eta langile klasea edo soldatapekoa. Beste klase eta erdibideko mailak (nekazari txikiak, merkatariak, autonomoak etab.) e-
struktura ekonomiko zahar eta atzeratuen hondakinak diren bitartean eta klase kapitalistaren eta soldatapekoaren artean gorabeheraka dabil-
tzen bitartean langile klasea da sistema kapitalistaren benetako produktua. Ekonomia kapitalista garatuago dagoen heinean, handiagoa da soldatapekoen indarra kopuruan eta pisu sozialean. Herrialde kapitalista garatu guztietan, salbuespenik gabe, langile klaseak populazio aktiboaren % 75-
%90 inguru ordezkutzen du. Bestalde kolonia izandako eta azpigaratutako herrialdeen gehiengoan geroz eta handiagoa den indarra hartzen ari da, hauetako batzuetan jada beraien aintzinako metropoli zirenen kopuru eta pisu sozial berdina du gainera.*

Ekonomia kapitalistak bi oinarritzko baldintza behar ditu existitu ahal izateko:

a) Langile librearen existentzia. Hemen libre bezala ulertuz, langileak enpresa baten jabeari bere lan indarra soldata baten truke saltzea eragotziko dion lotura sozialen gabezia.

b) Soldatapeko langilearen apartatzea bere lanerako baliabideen jabetzatik. Hauen jabetza (erreminta, makina, lehen-gaiak, etab.) kapitalistak, enpresariak dauka.

Honela bada, soldatapeko langilea bi aldiz antagonikoa den egoera batean aurkitzen da jabetzarekin duen erlazioan: alde batetik ez da bere patrioiaren jabetza (esklabismoan eta puntu bat arte jopuen feudalismoan gertatzen zen bezala), baina ez da ezta ere bizimodua bere kontura ateratzeko bidea emango

dioten lanerako baliabideen jabe, zeren beste modu batera uga-
zaba txiki bat litzateke: nekazari, artisau, dendari, autonomo
etab.

Langile librearen existentzia, honela ulertuz, burgesarentzat
ezinbesteko baldintza da. Enpresa kapitalista batean bere be-
tebehar produktiboa garatzeko behar duen langileen masa era-
biltzeko moduan eta eskuragarri edukitzea ezinbestekoa du.

Klase sozial bat bere bizitza eta lanaren bitartekoen pro-
dukzio eta erreproduzioarekin dituen erlazioetatik eratorrita-
ko interesen arabera nortasuna duen giza talde bat da. Ga-
rai bakoitzean, aipaturiko klase sozialen agerpena eta izaera
zehazten duena lan sozialaren produktuak ekoizteko eta jabe-
tzeko modua da. Horrela, klase sozial ezberdinen interesen nor-
tasuna hauek lan sozialaren produktuez jabetzeko duten modua-
gatik zehaztua dago. Sistema kapitalistapean, lan sozialaren
produktuek merkantzien forma hartzen dute, hau da, giza la-
naren bidez ekoiztuta saltzera bideratuta dauden objektuen for-
ma hartzen dute eta kontsumo baliabideetan (bizi baliabide-
ak) eta ekoizpen baliabideetan (lan baliabideak) banatzen dira.

Kapitalistak dira ekoizteko baliabideen jabeak, eta beraz, bai-
ta hauek eta soldatapeko langileek ekoiztutako merkantzie-
nak ere. Modu honetara, kapitalisten multzoak klase kapita-
lista osatzen du. Kapitalista indibidual guztiak ez dira zuzen-
ki merkantzien ekoizpena dedikatzen. Klase kapitalistan ere
lanaren banaketa bat existitzen da. Adibidez badaude kapita-
lista batzuk soilik merkantzien komertzio eta banaketan (ka-
pital komertziala), kapitalaren eta diruaren maileguan edo
beste jarduera batzuetan ibiltzen direnak eta hauetako asko
fabrika komertzioarekin bat eginik daude. Jarduera hauek
guztiak nahitaezko osagarriak dira ekonomia kapitalistaren
engranaje konplikatua bere betebehar oinarritzakoena bete de-
zan: merkantzien ekoizpena eta salmenta.

Soldatapeko langileentzat beharrezko bizi baliabideak lortze-
ko aukera bakarra (hau da, beraien existentzia propioa pertso-
na bezala gizarte kapitalista modernoak inposatutako baldintze-
tan) kapitalistentzat soldata baten truke lan egitea da honekin
aipaturiko bizi baliabideak erosteko. Horregatik osatzen dute lan-
gile klasea (lan egiten duen klasea), soldatapeko lana banatzen
den ofizio eta okupazioen aniztasuna askotarikoa bada ere.

Klase kapitalistaren interesen nortasuna merkantzien ekoizpen baliabideengan duen jabetza pribatua ziurtatzeko grinen agertzen da. Merkantzia hauen salmentatik eskuratzen baititu bere bizi baliabideak eta gizarte honetan dituen pribilegio sozial guztiak. Hain zuzen bizi baliabide eta pribilegio sozial hauek langile klaseak merkantzietan utzitako lan soberakinaren jabetzetik eskuratzen ditu, lan hau ez baitzaio ordaintzen.

Langile klasearen interesen nortasuna berriz bere bizi baliabideak eskuratzeko klase kapitalistarenganako duen dependentzia absolutuan agertzen da, ofizio edo okupazioa edozein izanda ere. Aldi berean bere bizi baliabideak mantentzeko edo handitzeko klase kapitalista honekin mantentzen duen borroka konstantean ere agertzen da. Hauek eskuratzeko bidea noski lanaren truke jasotako soldata du; hau da, klase kapitalistaren aurkako borroka konstantean ordaindu gabeko lan soberakinarengatik.

Horrela, kapitalismoaren barruan klase borroka, esentzian, gizartearen lan soberakina jabetzearen aldeko borroka da.

Ekonomia kapitalistak soldatapeko lanaren sistema ekonomia-aren sektore guztietara zabaltzeko duen tendentzia ez da kapritxo hutsa. Sistema hau, klaseetan banaturiko gizarte batean, modu osatuenean giza lanaren produktibitatea garatzeko gai den sistema da. Irabazi kapitalistak lortzea da dudarik gabe bere nerbio eragilea.

Mehatzariak, fabrikako langileak, maisu eta irakasleak, administratiboak, landako jornalariak, funtzionarioak, bankariak, informatikariak, telefonistak, osasun-langileak (zaindარი, klinika laguntzaile, ATak, etab.), garraioko langileak (autobusak, trenak, metroa, etab.), saltzaileak, arte grafikotako langileak, eraikuntzako langileak (igeltsero, peoi, alikatatzaille, enkofratzaile, grualari, iturgin, elektrizista, etab.) merkataritzako, ostalaritzako, etab.-eko enplegatuak. Denak salbuespenik gabe langile klasearen barruan sartzen dira arrazoi simple eta bakar batengatik: jabetzarik ez edukitzean (ekoizpen baliabideen jabetza ulertuz) bere bizi baliabideak (kontsumo baliabideak) lortzeko modu bakarra soldata baten truke lan egitea da. Hau da lehen aipaturiko langile klasearen interesen nortasuna klase sozial bezala.

Klase sozialaren definizio hau da benetan zientifikoa den definizioa bakarra. Langile klasea historian ez dela inoiz gaur egun sozialki eta kopuruan den bezain indartsua izan azaltzen duen definizioa da.

LANGILE KLASEA, GIZARTE KAPITALISTAREN PRODUKTURIK GENUINOENA

ekoizpen kapitalistaren prozesuak birsortu eta betikotu egiten ditu langileak bizitzeko bere burua saltzera behartzen duten baldintzak, kapitalistari bera erosteko eta aberasteko bidea ematen dion bitartean.

Kapitalismoaren aurretik zeuden formazio ekonomikoetako ekoizleekin gertatzen zenaren aldean (feudalismoa, esklabismoa, komunismo primitiboa), kapitalistak ez du ekoizten bere behar pertsonalak asetzeko, merkantziak merkatuan saltzeko eta mozkinak lortzeko baizik. Mozkin kapitalista lortzea merkantzien salmentari loturik dagoenez gero (merkantzien baloreak gainbalioa darama, langileari ordaindu gabeko lan soberakinaren balorea) kapitalista partikular bakoitzak lehiakortasunagatik derrigortua eta estimulatua ikusten du bere burua; zenbat eta gehiago saldu hobe. Horregatik ekoizpen kapitalistak ezin du eragotzi masan ekoiztea, honela ahal diren merkantzia gehien salduz ahal den mozkin handienak lortzeko. Ekoizpen modu honek gainditu egiten ditu gizabanako baten lana eta esfortzua (postu hau artisauak feudalismoan bete zezakeen), horrela langileak soldata truke okupatzeko beharra sortzen da aipaturiko enpresako ekoizpena gauzatu dadin. Horatik dator langilea ekoizpen kapitalistaren produkturik genuinoena eta beharrezkoena dela ondorioztatzea.

Edozein enpresa txikik, arrakastarik badu behintzat, bere ekoizpenaren eskala handitu beharra du, tamainan, ekoizpen indarretan eta soldatapeko langileetan haziz, masako ekoizpen honi aurre egin ahal izateko. Honela izan da historikoki, dendatik hipermerkatua; tailer txikitik, fabrika; eta lukurari-tik bankari modernoa sortu den modua. Sistema kapitalistak, ekoizpen baliabideen jabetza pribatuan eta mozkin handiena bilatzean oinarriturik, soldatapeko lanaren beharra du existi-

tu ahal izateko. Are gehiago, gizartearentzat helburu praktiko eta erabilgarri bat eduki dezakeen produktu, asmakizun edo aparatu mekaniko berri guztia ekoizpen kapitalistak hartua da hutsik egin gabe, merkantziaren formarekin bere ekoizpen eta salmenta masiborako. Ez zen automobilik, etxetresna elektrikorik, ordenagailu edo mugikorrik existitzen orain dela ehun urte, kapitalismoa jada sistema guztiz garatua zenean. Hala eta guztiz ere, gaur atzo bezala, produktu berri hauek milaka langilek lan egiten duten lantegi handietan ekoiztu behar dira. Gure kritikoei iragartzen diegu, merkatuan helburu praktiko batekin sortzen den produktu guztiek, masan ekoizteko joera izango dutela beste irtenbiderik gabe eta bere fabrikaziorako lantegi industrial handiak beharko direla milaka langilerekin batera. “kapitala birsortzean, beti horrela egiten du bere instrumentuak ere, lan indarrak. Kapitalaren metatze terminoa proletalgoaren handitzearen baliokide da” (Marx, Kapitala, 1. Lib., 558. or. Ed. Kubatarra).

Sistema kapitalista ez da merkantzien ekoizpen sistema bat bakarrik, gainera, bere existentziarako baldintza materialak birsortu behar dituen sistema da: ekoizpen baliabideak eta lan indarra, langile klasea, existitzen jarrai dezan. “Ekoizpen kapitalistaren prozesuak bere kabuz langilearen eta lan baldintzen arteko banaketa bat birsortzen du. Birsortu eta betikotu egiten ditu langileak bizitzeko bere burua saltzera behartzen duten baldintzak, kapitalistari bera erosteko eta aberasteko bidea ematen dion bitartean. (...) Langilea, kapitalista indibidual bati salduta baino gehiago, bete-betean klase kapitalista guztiari dagokio. Bere morrontza ekonomikoa, mozorrotua dagoen aldi berean, saltze ekintza honen berriztapen periodikoagatik, kontratu librearen fikzioagatik, patroi indibidualen aldatetagatik eta merkatuko lanaren prezioaren gorabeherengatik baldintzatuta dago. Ekoizpen kapitalistaren prozesuak bere jarraitasunean kontsideraturik, edo birsortze bezala, ez du merkantzia eta gainbalioa bakarrik ekoizten; kapitalistaren eta soldatapekoaren arteko erlazio soziala ekoizten eta betikitzen du” (Marx, Kapitala, I. Lib., 523. orr., Ed. kubatarra).

Sistema ekonomiko kapitalistan ekoizpen indarren garapenak izaera mundial bat hartzen du, aurreko gizarteetan ezezaguna zena. “Bere produktuei geroz eta irteera handiagoa

emateko beharragatik zirikatuta, burgesia mundu guztian barrera dabil. Bazter guztietan habia egin beharra du, bazter guztietan kokatu, bazter guztietan loturak sortu.... Merkatu mundialaren esplotazioaren bidez, burgesiak izaera kosmopolita bat eman dio herrialde guztietako ekoizpen eta kontsumoari” (Marx eta Engels, Manifestu Komunista, 42. orr Federico Engels Fundazioa). Horrela, ekoizpen indarren garapen mundial honek derrigorrez lan zatiketa eta mundu mailan geroz eta handiagoa den langile klasearen hedapen, garapen, eta sendotzea dakar ondorio bezala.

ERDI MAILAKO KLASEAREN MITOA ETA HONEN IZAERA GIZARTE KAPITALISTAN

Klase hau bere bizi eta lan baldintzak direla eta, organikoki ez da gai gizartean paper independente bat jokatzeko, bere elkartasun eta sinpatiak etengabe burgesiaren eta langileen artean gorabeheraka dabilta.

Ikuspuntu zientifiko batetik, erdi mailako klasea eskuz edo intelektualki lan egiten duen biztanleriaren sektore bat da, baina langile klasea ez bezala, bere lan baliabideen jabe dena. Bere definizioaren arabera erdi mailako klaseak sektore oso heterogeneoa dira. “Erdi mailako” klasean sartzen dira bere lur zatiarekin apenas biziraun dezakeen nekazari txikia eta 15 edo 20 hektareatako lurjabe ertain bat adibidez; edo auzoko dendari txikia eta prestigiozko ‘bufete’ bat zuzentzen duen abokatua. Hemen aurkitzen ditugun geruza baxuenak langile askoren antzeko baldintzetan egiten dute bizia eta lana, bere geruza altuagoak burgesiarekin kontaktu puntu asko dituen bitartean.

Ez kopuru aldetik bakarrik, sozialki ere erdi mailako klaseak askoz ahulagoak dira langile klasea baino. Bere bizi eta lan baldintzak direla eta, organikoki ez dira gai gizartean paper independente bat jokatzeko, beren elkartasun eta sinpatiak etengabe burgesiaren eta langileen artean gorabeheraka dabilta.

Egia da ordea marxistok erdi mailako klasearen eta zertxobait handiagoa den biztanleriaren sektore baten artean bereizten dugula: erdiko mailak, erdi mailako klaseak, elementu erdiproletarioak eta langile klaseko goiko geruzak biltzen dituen talde soziala dira. Bere bizi baldintzen eta erlazio sozialengatik, eta egoeraren arabera, erdi mailako klaseen geruza ertainetatik gertuago egon daitezke, bere psikologian langile klasearen masa zabaletan arrotzak diren aspektu eta jokabideak hartuaz gainera. Akats bat litzateke ordea hau zentzu

absolutu batean hartzea. Langile klasearen goiko edo inguruko geruzako hauen psikologia eta kontzientzia oso heterogeneoa eta aldakorra da, eta hauen artean badaude klase kontzientzia duten langileak ere, oraindik langile klasearekin bere loturak galdu ez dituztenak gainera. Edozein kasutan langile klasearen masa zabalen indarrak, bai kopuru aldetik eta baita sozialki ere, erdiko maila hauenak baino infinitoki handiagoa izaten jarraitzen du.

Jende askok klasearen kontzeptua bizi mailarekin nahasten du. Horrela herrialde aurreratueta langileen gehiengo ez bada gosez hiltzen eta bizi baldintza hobegoak lor baditza ke jada langile klase izateari utzi diote eta erdi mailako klase izatera pasatu dira. Horrela arrazoitzen dute teoriko eta soziologo askok, marxismoaren faltsutze baldar bat errepresentatzen duen eskema batekin.

Marxismoak ez du inoiz ukatu, inozo xamarra izango litzateke ukatzea, langile klasearen geruza handien bizi kalitatea hobetu daitekeen posibilitatea. Sistema kapitalista bera sentitzen da behartua langileen soldata, bizi dituzten baldintza sozial aldakorren arabera moldatzea, biziraun dezaten. Horrela, adibidez, orain dela 70 urte auto bat edukitzea langileen gehiengo handiarentzat luxu bat zen, garaiko soldatarekin alderatuta zeukan prezio altuaz gain, ez zelako hain beharrezkoa gizarte kapitalistan moldatzeko. Gaur egun ordea, autoa ia 'beharrezko' bihurtu da. Kasu konkretuan, lantokira autoz joateak paper esentzial bat jokatzen du sistema produktiboak egunero funtziona dezan. Gainera automobilen produkzioa ekoizpen kapitalistaren oinarritzko adar bihurtu da.

Sistema behartua sentitzen da errealtate hau langileen soldatan islatzeko existitzen jarraitu nahi badu. Baina barre egiteko modukoa litzateke honegatik langileak burgestu egin direla edo erdi mailako klase bihurtu direla deduzitzea. Autoa kontsumoko objektu bat da, bizitzeko bitarteko bat eta ez ekoizpen baliabide bat. Honegatik ez da langile-kapitalistaren arteko erlazio soziala desagertzen. Kapitalistek langile hauek esplotatzen eta gainbalioa ateratzen jarraitzen dute.

Marxismoak argi baieztatzen du, garai bakoitzean, kapitalistak langileen soldata beharrezko minimoan mantentzen saiatzen direla, juxtu dauden baldintza sozialetan bizi ahal

izateko. Kapitalistek langileei eman diezaieketen soldata maximoaren muga, noski bere irabaziak zalantzan jartzen ez bada behintzat, kapitalista hauei hilabete bukaeraro bere lan indarra saldu behar izatetik askatu ezin dituen hura da.

Eta marxismoak baieztatzen du baita ere langile klasearen bizi mailan eta lan baldintzetan egindako konkista oro ez dela betirako. Klaseen artean indar-korrelazioak aldatzen direnean, porrot sindikal baten fruitu edo, ikuspegi zabalago batean, porrot iraultzaile batengatik, izan ekonomia kapitalistaren krisi gogor batengatik, konkista hauetariko asko desagertu egiten dira. Gizartearen eraldaketa sozialistak bakarrik bermatu ditzake etengabe aurrerapen sozialak eta hauek mugarik gabe igotzea.

INDUSTRIAREN PAPERA EKONOMIA KAPITALISTAN

Gaur egun modan dago kapitalismoaren apologisten artean ekonomia kapitalistan industriak duen garrantzia arbuizatzea. Honek, alde batetik, ezjakintasun inozoa erakusten du eta, bestetik, bere ahalegin kontzientea errealtatea itxuraldatzeko.

Honela langile klasearen arretea bere jomuga historikoetatik aldendu eta honen kontzientzia ahultzen saiatu dira. Hauxe diote: “ekonomia berriarekin ez dira produkzio instrumentuak bakarrik aldatzen, baita edukia ere. XX. mendean gauzak fabrikatzetik, XXI. mendean, informazioa prozesatzera pasatu gara, hori da eraldaketa nagusia”.

Produkzio industrialia gizarte moderno kapitalista sostengatzen duen oinarria da. Betidanik izan da horrela, eta beti izango da horrela. Zerbitzuen gizarteari buruzko hitzontzikeria baldar guztiak, industriaren eta industriako langileen papera gainbeheran doala dioten zurrumurruak ez dira kritika zientifiko txikiena ere jasateko gai.

Janzten gaituen arropa, hartzen ditugun elikagaiak, erai-kinak osatzen dituzten adreiluak, boligrafoak, papera, autoak, hegazkinak, telebistak, ordenagailuak, egunkariak, txartel eta txanponak; Hau dena eta gehiago fabriketan edo instalazio industrialetan egina dago. Ekoizpen industrialia gabe gizarte kapitalista 24 ordutan kolapsatuko litzateke. Hain agerikoa da hau, non umekeriatan denbora galtzea baita azalpenak ematen geratzea, baina hain maila miserablean erori da zientzia moderno burgesa!

Industriaren garrantzia, kapitalismoan, ez datza bere erabilera-balioen funtzio ekoizlean bakarrik, objektu erabilgarrien ekoizpenean, baita (nekazaritzarekin batera) gainbalioa sortzen duen iturri bakar bezala ere, produkzio kapitalistaren benetako motorra dena. “Kapital industrialia, kapitalaren existentzia modu bakarra da, bere funtzioa ez datza gainbalioaren

edo produktu soberakinaren jabetzean bakarrik, baita honen sorkuntzan ere. Horregatik kapital honek produkzioaren izaera kapitalista baldintzatzen du; bere existentziak kapitalisten eta soldatapekoen arteko klaseko kontraesana inplikatzeko du (...) Bera baino lehenago agertu ziren beste kapital barietateak, behea jota edo gainbeheran zeuden ekoizpen baldintza sozialen barnean sortu zirenak, bere menpe jartzen dira eta bere funtzioen mekanismoan aldaketa egokituak jasaten dituzte. Are gehiago, ez dira mugitzen honen oinarrian ez bada; honek ematen dien oinarri honekin bizi eta hiltzen dira, iraun eta amore ematen dute” (Marx, Kapitala, II. lib., 53. orr., Ed. Kubatarra).

Marxek azaltzen duen bezala, produkzioari zuzenki lotuta ez dauden beste kapitalak (kapital komertziala, banku kapitala, eta ‘zerbitzuen sektorearen’ zati handi bat) soldatapeko lanaren bidez erabilera-balioen produkziara orientatzen den kapitalaren menpe dago (industria eta nekazaritza); bere existentzia eta gainbalioaren jabetzea, eta horrenbestez, irabaziak eskuratzea, kapital industrialak baldintzatzen du. Eguneroko errealitateak erakusten du industrian eta nekazaritzan gertatzen den perturbazio orok berehalako ondorioak eragiten dituela gainontzeko ekonomia kapitalista guztian. Kapitaleko III. liburukian, Marxek xehetasunez azaltzen du, industrian eta nekazaritzan jatorria duen gainbalioa ekonomia kapitalistan parte hartzen duten sektore guztien artean banatzeko bideratzen den mekanismoa.

Ikuspuntu marxista batetik, sektore industrialak ez ditu fabrika, instalazio industrial edo meatzeak bakarrik hartzen, merkantziak produzitzen dituzten sektore guztiak baizik. Eraikuntzako sektorea adibidez (hemen merkantziak etxe eta eraikuntzak dira, bere baloreen langileek eraikitze prozesuan gehitu dioten gainbalioa dagoelarik), merkantzien garraioak (hemen desplazamendua bera da merkantzia, soldatapeko langileek burutua), telekomunikazioak, sektore energetikoa (elektrizitate, petrolio, gas), etab. Produkzio kapitalistak inposaturiko lanaren banaketak, are gehiago zabaltzen du ekonomia kapitalistan industriak duen zatia.

“Industria modernoak ez du inoiz produkzio prozesu bat behin betiko bezala kontsideratzen ez eta tratatzen ere. Beraz, bere oinarriaren teknika iraultzailea da, aurreko produkzio

modu guztiena funtsean kontserbadorea zen bitartean. Makinen, prozedura kimikoen eta bestelako metodoen bitartez, industria modernoak produkzioaren oinarri teknikoa etengabe aldatzen du goitik behera, eta honekin langileen funtzioak eta lan prozeduraren konbinazio sozialak. Modu honetan, jarraitasun berarekin aldatzen du baita lanaren banaketa gizartearen barnean ere, gelditu gabe kapital eta langile masak produkzioaren adar batetik bestera mugituaz” (Marx, Kapitala, I lib, 437. orr Ed. Kubatarra).

Bitxia da, ekonomiaren ‘tertziaroaz’ hitz egiten duten abokatu hauek ez daukatela denborarik guri Hego Korea, Txina edo Brasil munduko ekonomian hain oldarki sartu izana nola uler daitekeen azaltzeko, ez bada azken hamarkadetan pilaturiko indar industrial ikaragarria kontuan hartzen. Eta ez dezagun aipatu Alemaniak bere industria boteretsuari esker Europako ekonomian duen nagusitasuna. Alderantziz ordea, ikus dezakegu Britainia Handia bezala, garai bateko lehen mailako potentzia industrialak munduko ekonomian duten garrantzia etengabe beheraka doala, honen burgesia produkzio industriaren zati handi bat eraisten joan den neurrian.

Ekonomia kapitalistan zuzenki merkantzien produkzioan lan egiten ez duten sektoreak egoteak (zerbitzuen sektore famatua), ez du esan nahi horregatik, lehen esan dugun bezala, merkantzi produkzioaren menpe egoteari uzten diotenik. Eta bere langileei dagokienez, beharturik ikusten dira industriaren metodoak, soldatapeko lanaren sistema, eramatera honek funtziona dezan.

ENPRESA TXIKIA ETA EKOIZPEN HANDIA

Merkatu askearen ekonomia defendatzen dutenek enpresa ertain askoren garrantzia eta ahalmena nabarmentzen dute sutsuki. Hauek diotenez, errealitate hau kontraesanean dago marxismoak iragartzen duen produkzioaren pilaketarako joerarekin.

Azken hamar urteetan, produkzioaren kontzentrazio harrigarri baten lekuko izan gara. Enpresa multinazionalen kopurua txikituz joan da sektore produktibo gehienetan: altzairua, automobila, kimika, papera, aeronautika, itsas ontzigintza, banka, hidrokarburoak, telekomunikazioak, etab. “1998ko lehen erdian bakarrik, AEBn enpresa xurgapenek 949.000 milioi dolarren zifra astronomikoa inplikatu zuten. Jarduera ekonomiko osoaren %20a gutxienez. 1999eko lehen erdialdean 570.000 milioi dolarreko kopuru gehigarria egon zen inplikaturik xurgapenetan. Hau ez da soilik AEBra mugatzen. Aldi berean, EBn fusioak 346.000 milioi dolarretara heldu ziren. Joera honek ez dirudi gutxitzera joko duenik. 1999eko lehen hiru hilabeteetan, mundu osoko fusioen prozesua aurreko urteko denboraldi berdinekoa baino %16 altuagoa izan zen, 2,2 bilioi dolarretako marka berria lortuz.

Gaur egun, 200 multinazional erraldoi dira sektore produktibo guztiak hartzen dituztenak eta ekonomia mundialaren oinarritzko palankak kontrolatzen dituztenak. Hauetako askok duten botere ekonomikoa, eta baita politikoa ere, Estatu nazional askorena baino handiagoa da.

Analisi oinarritzkoenak ere argi erakusten digu herrialde batean enpresa txikiaren nagusitasunak ez duela garapen handiagoa adierazten, guztiz kontrakoa baizik. Herrialde kapitalista garatuenean enpresa handi gehiago dituzte proportzioan, kapitalismo ahulago eta atzeratuagoa erakusten duten herrialdeek baino.

Egia esan, gure kritikoak liluraturik daude azken urteetako boom ekonomikoarekin eta bat-batean produkzio adar be-

rriak agertu direla eta. Dirudienez, hasieran behintzat, enpresa txikiak izan baitira aurea hartu dutenak. Hau, produkzio kapitalistaren hazkuntza azeleratua denean sortzen den ilusio tipikoa da. Kapital txiki eta ertainen existentzia beti egongo da produkzio handiaren alboan sistema honek dirauen bitartean, baina hau enpresa handi eta multinazionalak baldintzatua eta estutua egongo da bere garapenean. Rosa Luxemburgok zioen bezala: “Marxen arabera, eboluzio kapitalistaren martxa orokorrean, kapital txikiek iraultza teknikoan aurreratuak izatearen funtzioa betetzen dute, zentzu bikoitz batean: bai adar zahar, finko eta sendoetan produkzio metodo berriak sartzeari dagokionean, bai kapital handiek oraindik esplotatu ez dituzten adar produktibo berriak sortzeari dagokionean ere (...) Ez da imajinatu behar enpresa ertainaren eta kapital handiaren arteko borroka eguneroko guda bat bezala, non alde ahuleneko destakamendua modu zuzen eta kuantitatibo batean deuseztatzen den, baizik eta, hobe esanda, kapital txikien eguneroko segatze baten modukoa da, berehala birsortzen direla, industria handiaren segak berriro ebaki ditzan”.

Azken hogeitau urteetan garatu diren produkzioaren adar berriek lehen mailako influentzia lortu dute ekonomia kapitalistan; esaterako, ordenagailuen eta programa informatikoen kasua. Horrela, Microsoft, Seattleko garaje txiki batean sortu baten Bill Gates bezalako gazte lehiatsu baten eskutik, hogeitau urte geroago, produkzio kapitalistaren alor honetako enpresa txiki herritzaile guztietatik Microsoftek eta besteren batek bakarrik biziraun dute, milaka langile enplegatzen dituzten multinazional handiak bihurtuz. Froga honek eta beste hainbatek, ekonomia kapitalistak duen produkzio handirako joera naturala eta bertan honek jokatzeko duen zuzendaritza papera erakusten du.

EKOIZPENAREN “DESZENTRALIZAZIOA” ETA LANGILE INDUSTRIALAREN GUTXITZEA

Modan dago marxismoaren maiseatzaileen artean, pixkanaka, produkzio handia produkzio unitate txikiagoei bidea uzten ari dela esatea, honekin industriako langileen kontzentrazioa jaisten delarik, eta, beraz, hauek duten kontzientzia.

Jende honek, fabrika batean egoeraren arabera langileen kopurua jaitea, langileak makinez ordezkatzearen ondorio bezala identifikatzen du, ekonomia kapitalistaren joeretan atzera pauso bat izango balitz bezala. Guztiz kontrakoa, langileak makinez ordezkatzeko (kapitalismoaren historian ezinbesteko zatia) beti dakar berarekin hazkuntza bat fabrika horretako merkantzien produkzio eskalan. Fenomeno honetan ez dago ezer berririk. Marxek Kapitallean xehetasun guztiz aztertzen du kapitalaren indar produktiboaren hazkuntza, kapitalaren zati konstantea (makinak) handiagotuz eta bere zati aldakorra (langileak) gutxiagotuz lortzen dela. Kapital aldakorraren murrizketa hau erlatiboa izan daiteke (langile kopuru berarekin edo baita langile gehiagorekin ere, merkantzia kopuru handiago bat produzituz langile bakoitzeko) edo absolutua (langileak gutxitu eta merkantzia kopuru handiagoa produzituz). Kasu guztietan potentzial produktiboa beti handitu egiten da.

Fabrika batean, langileen murrizketak bi muga ditu oztopo gisa. Alde batetik, beti beharko da langileen kopuru gutxiengo bat produkzioa funtzionamenduan mantentzeko. Bestetik, irabazi kapitalista, langileei ateratako gainbalioetik datorren heinean, beti izango da beharrezkoa hauen gutxiengo bat irabazien tasa eta masa mantentzeko (noski langile hauen zapalkuntza handituz). Marxek azaltzen duen bezala, makinak ez du gainbalioa produzitzen, merkantziari dagokion balorea ematera mugatzen da.

Hemen sistema kapitalista kontraesan berri bati aurre egin beharrean aurkitzen da. Adar industrial bateko produktibitatea mugagabe igotzen badu langileak makinez ordezkatzuz, honek, apurka-apurka irabazien tasaren jaitsiera ekarriko luke eta, berandu baino lehen, irabazien masa jaitea. Hau produkzio kapitalistaren interesen aurka joango litzateke, honen interesa geroz eta irabazi pribatu handiagoa ateratzea baita. Puntu bateraino, lanaren prozesuan egin ditzakeen berrikuntza teknikoak mugatu egin behar ditu, eta beraz, erregimen kapitalista, lanaren indar produktiboaren garapena gelditzen duen traba kontserbatzaile batean bihurtzen da. Horrela, beraz, indar produktiboen garapena kontraesan zuzenean sartzen da irabazi kapitalistarekin eta bestalde, langile

klasearen zatirik handiena lan produktibotik kanpo geratuko balitz, horrek ezinbestean iraultza ekarriko luke.

Hau dela eta, kapitalak, irabazi maximoaren gosearen akuiluak zirikatuz, etengabe produkzio eremu berriak bilatu behar ditu eta produkzioaren adar berriak sortu, langile berriak zapaltzeko eta gainbalio berria ekoizteko. Gauzak horrela izanik, alde batetik adar industrial jakin batzuetan langileen kopurua jaisten den bitartean, bestetik beste adar berri batzuk sortzen dira soldatapeko langileen masa geroz eta handiagoak enplegatuz.

Produkzioaren deszentralizazio hau askotan, azpikontratazioa bezalako fenomenoetan azaleratzen da enpresatik kanpo egiten diren lan jakin batzuetan. Kostuak gutxitzeko eta irabaziaz handitzeko erabiltzen duten instrumentu bat da hau, azpikontratuek produzituriko merkantziak merketuz eta hauetan lan egiten duten langileak esplotatuz lortzen dutena. Edozein kasutan ere, enpresa azpikontratista hauen independentzia erabat faltsua da. Bere jarduera ezinezkoa litzateke lan egiten dien enpresa handiena gabe eta akzioen konposizioari begiratzuz gero, segituan ikusiko genuke benetan kontrola duena enpresa handi hauek direla.

LANGILE KLASEA ETA KLASE KONTZIENTZIA

Zer esan nahi du ordea bere baitarako klase kontzientzia hartzeak? Gizartean komunitate jakin bateko kide izatearen kontzientzia da, soldatapeko langile izatearen baldintzatik datozen interes sozial eta helburu historiko propioak dituen klasekoa hain zuzen.

Langileek klase kontzientzia hartzearen prozesua ez da berehalako prozesu bat ez eta prozesu automatiko bat ere, ez da horrelakorik ematen ez industrian ez beste sektore produktiboetan. Filosofiaren miseria liburuan, Marxek, 1840. hamarkadan Britainia Handiko egoera aztertuz, honakoa nabarmentzen du: “Hasieran, baldintza ekonomikoek herrialdeko masak langileetan eraldatu zituzten. Kapitalaren aginteak masa honetan egoera komun bat sortu du, interes komunak. Honela, masa hau jada klase bat izatera heltzen da kapitalaren aurrean, baina oraindik ez bere baitarako. Borrokan, non bertako atal batzuk seinalatu ditugun, masa hau batu egiten da, bere baitarako klase bat eratuz. Defendatzen dituzten interesak klase interesak izatera heltzen dira” (Marx, Filosofiaren Miseria, 257. orr. Júcar Ed.).

Zer esan nahi du ordea bere baitarako klase kontzientzia hartzeak? Gizartean komunitate jakin bateko kide izatearen kontzientzia da, soldatapeko langile izatearen baldintzatik datozen interes sozial eta helburu historiko propioak dituen klasekoa hain zuzen; interes eta helburu hauek gizartearen eraldaketa sozialistaren bitartez bakarrik lor daitezke, klase kapitalistaren jabetza desjabetuz eta bere kontrol eta gestioa gizartearen osotasunean planifikatuz, langile klasearen zuzendaritzapean.

Klaseko kontzientzia esperientziaren bidez hartzen da, ez langileek bere enpresatik jasotzen dutenetik bakarrik, baita beste enpresetako langileen esperientziak asimilatzetik ere, bai bere herriko, nazioko nahiz beste herrialdeetako egoeretatik.

Klase kontzientzia eratzearen prozesua ez da ematen langileek gizarte kapitalistaren estruktura ekonomikoaren marakoan hartzen duten esperientziarekin bakarrik, sistemaren gainegituraren ere, langileak bere erakundeen (sindikatu, partidu), instituzio politiko burgesen (udaletxe, parlamentu, etab.); eta batez ere gertakari handien astinaldi politiko eta sozialetan harturiko esperientziaren bidez formatzen dira: Estatu burgesaren errepresioa, gerrak, eztanda sozialak, etab., masen kontzientzian eragin handia izan dute historian zehar.

Herralde bateko langile klasearen esperientzia historikoa, bere tradizioak, eta langile erakundeen zuzendaritzaren kalitateak ere faktore garrantzitsuak dira, kasu batzutan langileen kontzientzia hartzea bizitu egiten baitute edo bestelako kasuan berriz baldartu eta atzeratu.

Faktore guzti hauek direla medio prozesu iraultzaileak gertakari oso bereziak izaten dira gizartean, baina naturako beste fenomeno batzuekin gertatzen den bezala, animalien fisiologian edo lurrazaleko geologian (lurrikarak) adibidez, ohiko ez izateak ez du beharrezko izatea kentzen. Azken 150 urteetan kapitalismoaren historiak erakusten digu nola iraultza eta eztanda sozialak etorkizuneko errealitate ere izango diren.

Baina kapitalismoaren aldi normal batean langile klasearen kontzientzia ez da pasatzen bizi eta lan baldintzen hobekuntza ekonomikoen edo hauen defentsaren eguneroko borrokatik.

Nahiz eta ultra ezkertiar batzuen pentsamenduan langileak enpresara grebak egitera eta noizean behin bakarrik lan egitera joan beharko luketen, errealitatean langileak lan egitera doaz, oinarrizko bizi baliabideak lortzera alegia. Bere eskakizunak kontuan hartuak izan daitezten exijitzeko bide guztiak ahitu zaizkienean eta beste erremediorik ez daukatenean izaten da grebak egiten dituzten unea. Itxura batean grebek ohikoak edo arruntak direla eman badezakete ere, benetan oso fenomeno berezi eta bakanak izaten dira langile baten bizitza normalean.

Beti gertatu izan da langile klasearen gutxiengo bat bakarrik izatea kapitalismoaren garai normaletan kontzientzia sozialista bat hartzera heltzen dena. Hau gaur egun bezala gertatzen zen orain dela 85 edo 90 urte, baina honek ez zuen era-

gotziko aro iraultzaileek historia moztu eta sistema kapitalistaren bizia benetan kolokan eta zalantzan jartzea. Aldi motzeko mozketak gogorrak izaten dira, urte, hilabete nahiz egun gutxitakoak. Milioika langile, lehen apatikoak eta borroka politikotik apartaturik zeudenak, bere eginkizun historikoen kontzientzia hartzen dute eta gizartea eraldatzeko borrokara tinkotasun osoz batzen dira. Honela, Europa bakarrik aipatzeagatik, 1917-23ko mugimendu iraultzaileak eduki genituen, 30. hamarkada edo 70. hamarkada, besteen artean batzuk esatearren. Guzti hauek zergatik porrot egin zuten ez da artikulu honen materia baina edozein kasutan ere, ez zen izan langileen artean klase kontzientzia sozialista bat falta zelako edo hauen borroka ez zelako nahikoa izan, baizik eta hobe esanda langile erakundeen zuzendaritza benetan iraultzaile baten ga-beziagatik edo hauen traizio kontzienteagatik izan zen; ez zuten beren eginkizun historikoen mailan egoten jakin.

NOLA SORTZEN DA KONTZIENTZIA ETA LANGILE KAPITALISTEN AURKAKOTASUNA

Langileen kontzientzia hartzearen prozesua, hau da, kapitalistarekiko dituzten interes kontrajarriak jabetzea, lanpostutik hasten da. Artisaua bere lanabesen eta lanaren azken produktuaren jabe den heinean interes zuzen bat du produkzio prozesuan. Baina langileak aldiz, ez du inongo interes pertsonalik bertan, ez delako bere lanaren azken produktuaren jabe, salmentarako produzituriko merkantziaren jabe alegia. Soldatapeko lana, langilearen aurrean inposaturiko baldintza bezala agertzen da, bere bizi baldintzak lortzeko duen bide bakar bezala.

Bere Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoetan, Marxek xehe-tasunez aztertzen du langileak lantegian sufritzen duen beste-rette edo alienazio prozesua. “Zertan datza orduan lanaren alienazioa? Hasteko lana ‘arrotza’ zaio langileari, hau da, ez da bere izatearen jabegokoa; bere lanean, langilea ez da baiez-tatzen, ukatzen baizik; ez da zoriontsu sentitzen, zorigaitzoko baizik; ez du energia fisiko eta izpiritual aske bat garatzen, bere gorpua hiltzen eta bere izpiritua ondoratzen du baizik.

Horregatik, langilea, lanetik kanpo bakarrik sentitzen da bere baitan, eta lanean bere baitatik kanpo. Berean dago lanean ez dagoenean, eta lanean dagoenean berriz ez dago berean. Bere lana, horrela, ez da borondatezkoa, behartua baizik, 'lan behartua' (...) Azken batean, langilearentzat lanaren arrotzatsuna, hau berea ez den finean agertzen da, beste batena baizik, bere jabegokoa ez dela; bertan dagoenean ez dela bere buruaren jabe, beste batena baizik" (Marx, Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak, 108-109 orr., Alianza Editorial Ed).

Segidan, langile-kapitalistaren aurkakotasuna azaltzen du: "Bera, hortaz, bere lanaren produktuarekin, bere lan objektibatuarekin [produzituriko merkantzia], objektu boteretsu, beragandik independente, etsai, arrotz, batekin bezala erlazionatzen bada, objektu honekin berarengatik independente, boteretsu, etsai, arrotza den beste pertsona baten jabegokoa den modura erlazionatzen ari da. Bera bere jarduerarekin jarduera ez libre batekin bezala erlazionatzen bada, berarekin beste baten zerbitzura dagoen jarduera batekin bezala erlazionatzen ari da, beste baten agindu, konpultsio eta uztarripean" (Marx, Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak, 109 orr., Alianza Editorial Ed).

Azkenik, Marxek klase interesaren identitatea nola sortzen den erakusten du, ofiziotik independenteki: "Lan alienatuarekin erlazioan, gizon bakoitzak, beraz, besteak bera bere buruarekin langilearekiko aurkitzen den neurri eta erlazioaren arabera kontsideratzen ditu" (Marx, Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak, 113. orr., Alianza Editorial Ed.).

Produkzio kapitalistan zenbat eta teknika gehiago garatzen den, makinak eta lan instrumentuak perfektzionatzen diren, langilearen lana orduan eta espezializazio gutxiagokoa da, gehiago deskualifikatzen da bere lana eta garrantzi gutxiago dute bere ezaugarri indibidualek, eta beraz errutinariogoa, aspergarriagoa eta interes gabekoa bihurtzen da, langilea makinaren apendizet soil bat izatera kondenatuz eta lanaren alienazioa areagotuz. Lanaren izaera honek, inongo sormenik gabea, langilea bere bizi eta lan baldintzen inguruan hausnartzera bultzatzen du. Bere esperientzia orokortzen laguntzen dio bere kideekin batera dituen interes komunez jabetzean eta deskontentua eta atsekabea hazi egiten da, honek, bere esplotazio eta

zapalkuntzako egoeraren kontzientzia hartzera bultzatzen du. Lan baldintzek honela, ezinbestean sortzen dituzte langileen kontzientzia hartzearen oinarritzko baldintzak.

Kontsiderazio guzti hauek langile klasea osatzen duten sektore eta geruza guztietan aplikatzen dira, nahiz eta laneko baldintza partikular batzuek geruza batzuk bere kontzientzian azkarrago aurreratzera bultzatzen dituen besteen aldean.

LANGILE KLASE INDUSTRIALA

Burgesiak erositako teorialari eta intelektualek, kapitalismoaren izenean marxismoaren teoriak azpiratu nahian diharduten horiek, honi benetan kolpe handia eman diotelakoan daude iraultza sozialistaren ezinezkotasuna behin betiko frogatu dutelakoan.

Hara non, ukatu egiten dute langile klaseak kontzientzia iraultzaile bat hartzeko duen gaitasuna, hauen arabera industriak eta industriako langileen kopuruak gero eta pisu txikiagoa omen duelako ekonomia kapitalistan. Zera ematen du, lan industrialak, bere baitan eta bere kabuz soilik, nolabaiteko sorginkeria edo efektu magnetiko bereziren bat eragiten duela bertako langileen kontzientzietan eta hauek (hauek bakarrik) iraultzaile ikaragarri bihurtarazten dituela. Hortik, beraz, beraien saiakera guztiak modu arbitrario eta itxura zientifiko batean industriaren gainbehera azaltzeko eta beraz kontzientzia iraultzailea langile klasearen osotasunera zabaldu beharrean, sozialismoa, 'estamentu marjinal' baten amets utopiko bezala erakusteko.

Aurreko artikuluetan azaldu dugu jada industriaren papearren azaleko analisi hauek gordetzen duten sinplifikazio eta faltsukeria. Herrialde kapitalista garatuenetan, birmoldaketa industrial guztiak kontuan hartuta ere, langile industrialen kopurua orain dela 60 edo 70 urte baino handiagoa da eta urte haietan iraultza Europa guztian gori gorian zegoen. Azken finean, aurreko artikuluetan genioen bezala, klase kontzientzia sortzeko premisak soldatapeko langileen bizi eta lan baldintzak dira, lan egiten den sektoretik aparte.

Hau esanda, langile industrialak, klase kontzientziaren garapenari dagokionez, beti izan dira soldatapeko langileen artean abangoardia, industriako lanak baldintza egokienak sortzen baititu kontzientziaren garapena modu sakonago batean eman dadin.

Zein dira baldintza hauek? Lehenik, merkantziak masan ekoizteko askoz handiagoa da beharrezko langileen kontzentrazioa beste edozein motako enpresetan baino. Honela, kopuru

handiagoak, handiago egiten du indarraren sentimendua eta enpresan duten boterea. Hau indartsuago egiten da batez ere grebetan, langileen kontzientzietan sakonki eragiten dutelarik. Bigarren, makinariaren garapena handiagoa da beste sektoreetan baino eta hazi egiten da langilea makinaren apendiz huts bat denaren ideia, lanari erakargarritasun guztia kenduz. Praktikoki, langile industrialen prestakuntza berdina da beraien artean enpresako produkzio linea bakoitzeko, eta existitzen diren kategoria asko eta asko artifizialki sortuak izan dira edo jatorrizko zentzua galdu dute, baina mantendu egiten dira langileak zatitzeko edo akuilatzeke eta horrela hauen lanaren produktibitatea handitzeko. Hirugarren, langile industrialak (metalurgiakoak batez ere), langile klasearen barnean, hobekien ordainduak izan ohi dira, kultuenen artean daude eta borrokarako adore gehiago daukate urteetako borroken ondorioz lortutako hobekuntzak direla eta. Azkenik, nagusiarekin inolako kontaktu pertsonalik ez egoteak enpresa handi edo ertain batean, errazago erakutsarazten die langileei enpresaren funtzionamendu osoa beraien lana dela, denak funtziona dezan beraiek direla beharrezko bakarrak, are sakonago bihurtuz zapalkuntza sentimendu komuna. Nagusiarekin kontaktu pertsonalik ez egoteak eragotzi egiten du erlazio paternalistak sortzea, enpresa txikietan normalki gertatzen den bezala, non batzuetan nagusiak “esku bat” botatzen duen. Enpresa zenbat eta handiagoa izan, zenbat eta kontzentratuago egon langileak lantoki berean, orduan eta errazago eta azkarrago garatuko da beren klase kontzientzia.

Leon Trotskyk, 1905eko Errusiako Iraultzari buruzko bere liburuan proletalgoaren papera eta bere indar soziala aztertzen du: “Proletalgoaren garrantzia nagusiki produkzio handian jokatzen duen paperetik ondorioztatzen da (...) Bere botere soziala, produkzio baliabideak, burgesiaren eskuetan egonik, mugimenduan berak bakarrik, proletalgoak, jar ditzakeen errealitatetik dator... Hortik, proletalgoaren garrantzia —egoera berdinean, kopuruaren indarrari dagokionez— handiagoa da mugimenduan jartzen duen indar produktiboen masa handiagoa den heinean: lantegi handi bateko proletalgoak —egoera berdinetan— garrantzia sozial handiagoa du artisau batek baino, eta proletalگو hiritar batek, nekazaritzako proletalگو

batek baino. Beste hitz batzuetan: proletalgoaren paper politiko handiagoa da zenbat eta gehiago dominatzen duen produkzio handiak txikia, industriak nekazaritza eta hiriak mendia” (León Trotsky: 1905. Emaitzak eta Perspektibak, II Lib., ‘Sozialismorako aurrebaldintzak’, 198. orr. Ruedo Ibérico Ed.).

Langile klasearen sektore periferikoez ez bezala, industriako langileek sistema ekonomiko kapitalistaren bizkar hezurari eusten diote. Industriaren eta garraioen eguneroko funtzionamendurik gabe, gizarte kapitalistak ez luke aste bat bera ere iraungo. Langile klase industrialak gizarte kapitalistan existitzen den indar boteretsuena da, berdin du hiru edo hamar milioi diren herrialde jakin batean. Bere benetako pisua gizartean eta ekonomian askoz handiagoa da bere kopurua baino.

Iraultza Errusiarrak ederki baieztatzen du analisi hau. Langile klase errusiarra hamar milioi langileez bakarrik osatua zegoen 150 milioi biztanleko herrialde batean. Langile industrialak lau milioi inguru ziren. Baina Trotskyk azaltzen duen bezala, ekonomia kapitalista errusiarrean zuten beren indar eta pisu zehatzak ehun aldiz bidertzen zuen hauen kopurua, abangoardiako borroka indarrak boteretsuena bihurtuz eta borroka iraultzailerak langile geruza atzeratuenez gain gizarteko masa zapaldu guztiak erakartzen zituztelarik. Eta hau egia bazen 1917ko Errusiarentzat, mila aldiz egiago da gaur egun edozein herrialde kapitalista garatuentzat.

Nahiz eta adar industrial jakin batean langileen kopurua zenbaki absolutuetan jaitsi, bere indar eta botereak berdin berdina izaten jarraitzen du, hauena baita, eta bakarrik hauena, adar honetako produkzioa funtzionamenduan jartzeko gaitasuna.

Hau kontutan hartuta, ezin zaizkigu minimoki serioak iruditu langile industrialen ahultasunari buruzko aiene eta kexu tamalgarri guztiak. Garai normaletan ere ikusi ahal izan dugu, nola fabrika edo faktoria bakar bateko langileen borroka eskualde edo probintzia oso bat jarri duen zutik. Gaurkotan biziz ikusten ari gara Cadizeko Delphi enpresako langileek edo Vigoko metaleko langileek burututako borroka eta greba orokorrak zer nolako magnitudeak izatera ailegatu diren eta ikuspuntu historiko batetik aztertzen baditugu erabat

frogatzen dute borroka hauek gero eta ugariagoak eta gogorragoak izango direla, baita gure herrietan ere. Industriako langileen borrokek langile klasearen osotasuna eta gertuen dauden erdi mailako klaseak mugitzeko gaitasuna daukate, bere abangoardiako paperari eutsiz langile klaseko sektore kontziente eta aurreratuenak batzerakoan. Hau behin eta berriz frogatu da. Ez da hain zaila orduan egoera iraultzaile batean langile klase industrialak aska lezakeen indarra imajinatzea.

LANGILE KLASEA BERE OSOTASUNEAN

Kapitalistek eta bere morroiek mito handi bat eraiki dute langile klaseari buruz, hankaz gora jartzen dituzte gizarte kapitalistan ematen diren benetako prozesuak. Horrela, ideia faltsuak errepikatzen dituzte behin eta berriz.

Langile klasea ahuldu egin dela, langileen konposizioa orain dela 30 urte baino konplexuagoa dela, soldatapekoen talde ezberdinek interes berak eduki beharrean norabide ezberdinetan aldentzen direla... Jende honek, modu arbitrario eta interesatu batean, langile klasea industriako langile klasearekin identifikatzen du eta ez dute ulertzen ahultzetik urrun, langile klasea, ikaragarri indartu dela eta orain dela hamarkada batzuk soldatapekoen artean ez zeuden edo existitu ere egiten ez ziren sektore asko erakarri dituela.

Sistema esklabistatik soldatapeko lana eta merkantzien produkzioa gizarte guztietan eman bada ere, kapitalismo aurretik izaera marjinal bat besterik ez zeukan eta bigarren maila batean zegoen gizarte horretako lan eta produkzio moduetan. Sistema kapitalistarekin bakarrik izan da soldatapeko lana eta merkantzien produkzio handia, lan eta produkzio sistema nagusi bezala jarri diren aroa, produktore txikia oinarri zuten iraganeko guztiak garbituz.

Dena den, ekonomia kapitalista jaioberrian, guk ezagutzen dugun soldatapeko lana eta beraz langile klasea bi sektoretan bakarrik agertu ziren: ehungintzan eta meatzaritzan. Piskak beste sektoreetan hazten hasi zen, ekonomia kapitalistak artisau eta nekazal produkzioaren beste adarrak hartu zituen eta hauetan zabaldu zen. Metalurgiaren eta siderurgiaren industria trenbidea sartzearekin sortzen dira eta honek trenbideko langileen klase berri baten sorrerari ematen dio bide. Ekonomia kapitalistan asmakizun berri guztiek eragiten dute lanaren zatiketa berri bat, eta beraz, sektore produktibo

berriak eta soldatapeko langile destakamendu berriak jaiotzen dira. Automobilak, elektrizitateak, hidrokarburoek, plastikoak eta informazioaren teknologia berriek adar industrial berriak sortu dituzte eta noski, baita langileen labealdi berriak ere. Kapitalismoaren aldi bakoitzak bere ekonomia sortzen du eta ondorioz lanaren zatiketa berri bat.

Hasiera batean erdi mailako klaseei zegozkien sektoreek, artisau edo familiako ekonomiarenak, ezin diete aurre egin kapitalismoan indar produktiboen garapenak inposatzen dituen legeei eta soldatapeko lanaren sisteman babestera beharturik ikusten dute beren burua: hezkuntza, tabernak eta jatetxeak, erietxe handiak bere zaindari, mantenuko langile (elektrikari, iturgin, etab.), ospitaleko laguntzaile, LI eta baita sanitate publikoko legioekin; burdindegia, arozgintza, elikagaigintza... eta horrela infinituraino jarraituko genuke.

Azaldu izan dugu jada sektore guzti hauetan lan baldintzak direla ezinbestean klase kontzientzia garatzeko premisak sortzen dituztenak. Hau gainera langileen antolakuntzan ere egiaztatzen da. Klaseko sindikatu handiak dira herrialde guztietan langileen gehiengo zabala biltzen dutenak, ofizio eta lan baldintzen ezberdintasunen gainera. Borrokako metodoak berberak dira langile klasearen sektore guztietan eta masen ekintza dirrelako bereizten dira: grebak, manifestazioak, lantokietako okupazioak, etab. Beste sektore batzuek antzeko borroka metodoak erabiltzera jotzen dutenean agerian geratzen da gizarte kapitalistan langile klaseak zer nolako influentzia eta indarra duen: ikasleek, lurjabe txikiek, garraioko edo komertzioko jabe txikiek, etab. bere ekintzei zalantzarik gabe proletarioen usaina duen hitz batekin deitzen die: greba.

Marxismoaren aurka jarduten duten horien argumentu gokoenetako bat, eta harrigarria badirudi ere, ezkerreko sektoreetan oihartzun gehien eduki duenetakoa hauxe da: lan eta bizi baldintzen aurka kapitalismoak aurrera eramandako ofentsibak, batez ere langile gazte eta zapalduengan (enplegu prekario, lanaldi partzial, tenporal, eskubide sindikalen galera, etab.), eragotzi egiten du objektiboki langile hauek ekonomia kapitalistako sektore klasikoetako langileena bezalako kontzientzia garatzea. Analisi hau ordea errealitatean beraien aurka bueltatzen da. Sistema kapitalistak klase borroka eta iraultza den-

bora batez gelditu dezake, baina ez langile eta kapitalisten arteko kontraesanak handituta, kontraesan hauek baretuz eta leunduz bakarrik baizik. Hau burutzeko bide bakarra langile klaseak modu duin batean bizitzeko eta lan egiteko baldintzak sortzea da eta honela bizi maila piskanaka hobera joango denaren ilusioa sortaraztea. Honelakoa izan zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren bizitu zen garaia.

Ulegaitza gertatzen da, kapitalismoak kontraesan sozialak gero eta jasangaitzago bihurtzen dituenean, milioika langileren bizi eta lan baldintzak okertzen dituenean, etorkizuneko klasearteko borroka erlaxatuko dela pentsa daitekeenik sinistea. Guztiz aurkakoa. Lan baldintza “berri” hauek (prekarietatea, gain esplotazioa, zalantza etorkizunaren aurrean) klasearteko borrokaren benetako eztanda prestatzen ari dira eta pilatzen ari den amorru guztia azalera irtengo da ekonomia kapitalistaren zikloa aldatzean. Sektore esplotatu hauek, orain hortzak estutuz etorkizun hobea baten esperoan badaude, ilusio hauek frustratuak ikusiko dira eta oso paper garrantzitsua jokatuko dute derrigorrean emango diren borroketan.

Marxismoaren kritikoez ahaztu egiten dute ordea berriro nostalgiaz erreklamatzeko dituzten baldintza sozialek (Ongizatearen Estatu famatu horrek sortutakoak) berrogei edo berrogeita hamar urte bakarrik dituztela. Zein ziren hogeigarren edo hogeita hamargarren hamarkadan langile klaseak European edo Amerikan zituzten bizi eta lan baldintzak? Ba antzekotasun handiak dituzte gaur egun sektore askotan eta batez ere gazteriaren artean sortzen ari diren baldintzekin. Eta akaso baldintza haiek ez al ziren ba zati handi batean kapitalismoaren historian inoiz eman diren mugimendu iraultzaile gogorrenak sortu zituztenak? Baina zer gertatzen da gaur egun? Klasearteko borroka handitzen edo txikitzen ari da?

Klasearteko borrokaren lokomotora geroz eta bizkorrago doa eta langile eta gazteak borrokara erakartzen ari da mundu guztian zehar baina egia da azken urteetan zehar borroka sindikala nahiko baxua izan dela ia herrialde guztietan: “[borroken maila baxu hau] kausa ezberdinengatik azaldu daiteke. Langabeziaren beldurrak paper garrantzitsu bat jokatu zuen, batez ere boomaren lehen urteetan, jada aipatu dugun bezala, atzerapen ekonomiko baten antz gehiago zuen. Lanaldi

partzialen eta modu guztietako 'lan malgutasunaren' sarrera zabalak bizirik mantendu du segurtasun faltaren sentimendua eta modu tamalgarrian eragin du militantzian eta antolakuntza sindikalean orain arte. Bestalde, lan indarrean emandako aldatetek lanpostu askoren galera suposatu dute industria astun zaharrean, lehen, sindikatuen bastioi zirenak. Aktibista sindikal zaharren taldea gogor joa izan da. Atzera begiratzen dute eta ez dute porrota besterik ikusten, marxistek duten etorkizuneko perspektiben ikuspegi zabalagorik gabe eta pilatzen ari den ekaitzaren izaera naturala ulertzeko gaitasunik gabe; egoeraren benetako ulermen bat gabe, beren arazoan errua langile klaseari botatzera jotzen dute. Hau zen hain justu 68ko maiatzaren aurretik gertatzen zena, boomaren tontor altuenean zeru oskarbi bateko tximistaren antzeko zerbait izan zen.

Aktibista beteranoenak desorientaturik eta etsita dauden bitartean, gazteriaren geruza berriek, etorkizuneko borroketan paper klabea jokatzeko daudela, esperientzia falta dute eta oraindik ez dute bere tokia aurkitu. Beraiek jasango dute esplotaziorik okerreana nagusien eskuetan eta energiako eta borroka izpirituzko erreserba amaiezinak dituzte. Etortzeko dauden gudetan antolatuko dira eta oso irekita egongo dira ideia iraultzaileekiko” (Alan Woods eta Ted Grant, *El ciclo económico y la lucha de clases*).

MARXISMOA ETA ERREFORMEN ALDEKO BORROKA

Hamarkadetan zehar, erreformistek langile klasearen hoberako erreformen aldeko borroka mesprezatzear salatu dituzte marxistak. Begi-bistakoa da hau erabat faltsua dela, ideia hauek kontzienteki zabalduak dira marxistak langile familien eguneroko arazoaz arduratzen ez diren zoro eta sektario bezala aurkezteko.

Marxistak ez dira bereizten erreformistengandik erreformak baztertzen dituztelako. Alderantziz, marxistak dira erreformen alde borroka gogorren egiten dutenak, baina borroka honi klase eduki sozialista ematen die, erreformistek ez bezala.

Gizarte kapitalista langile klasearen eta beste klase eta geruza zapalduen zapalkuntzan oinarritzen da klase kapitalistaren eskutik. Honek gizartean duen agintea eta pribilegioak zalantzan jartzen ez dituzten erreformak bakarrik onar ditzake. Marxistek erreformen aldeko borroka palanka moduan erabiltzen dute klasearteko borroka azken ondorioetaraino bultzatzeko eta langileek bere indarrengan eta buruarengan duten konfiantza indartu ahala bere klase kontzientzia indartzeko. Erreformistek, aldiz, kapitalismoak bere baitatik eman dezakeenera automugatzen dituzte beren ekintzak eta langile masek, inongo egoeretan hau zalantzan jarri gabe; hau da, kapitalisten jabetza pribatua eta bere irabaziak zalantzan jarri gabe.

Egia da, boom ekonomiko batean bere irabaziak igo eta igo ari direnean, kapitalistak bere langileei ogi apur batzuk emateko gai direla; inoiz doakoak ez diren apurrak, borrokaz, gogor lan eginez, ordu estren bidez, osasuna izorratuz eta familiarako bizitza sakrifikatuz lortzen direnak.

Baina, zer gertatzen da kapitalistentzat negozioak gaizki doazenean, edo hauek lehen langileei emandako erreforma batzuk mantendu ezin dituztenean? Egoera horretan, sindikatu eta langile alderdi erreformistek interes kapitalisten transmisio lokarri baten antzera jokatzen dute. Kapitalisten intere-

sak zalantzan ez jartzean bere burua erreformen aldeko borroka uztera beharturik ikusten dute eta kontrarreformen ezarpenak babestera, langile klasearen interesen aurka. Ez al da hau bada azken urteetan mundu guztian zehar eta, batez ere, gure inguruan ikusi dugun errealtatea?

Mundu guztian zehar gobernu kapitalistek bultzatutako langile familien aurkako kontrarreformak babestu dituzte hainbat sindikatu erreformistek. Eta kasu gehienetan gobernu erreformistek ere eskuinaren politika berdina mantendu dute praktikoki, patronalaren eta eskuinaren presioen aurrean burua makurtuta. Boom ekonomikoa deitu dioten garai honetan, hazkuntza ekonomikoaz eta enpresa eta bankuen irabaziez hainbat erreformistek harrotasunez hitz egiten duten honetan ikusi besterik ez dago zein diren masen soldatak eta erosahalmena, etengabe jaisten ari dira, zer esanik ez etxebizitzaren egoeraz, familien zorpetze larriaz eta nola ez gero eta ilunagoa den lanpostuen prekaritateaz. Lan erreformek, hezkuntzakoek etab. errekorte sozialen bidea jarraitu dute eta bitartean, non daude zuzendari sindikalak?

Hau dena gainera desmobilizaziorako politika kontziente batekin dator. Eskuina, erabat erradikalizaturik dabil Europako zenbait herrialdeetan, geruza erreakzionario guztiak batzeko eta mobilizatzeko bere gaitasun handienetan dagoen bitartean, zuzendaritza erreformistek ez dute behatz bat bera ere mugitzen, langileriaren, klaserik borrokalariaren, potentziala paralizatuz eta asfixiatuz. Metodo iraultzaileak baztertzean eta langile klasea mesprezatzean, logika ergel eta koldar batekin jokutzen du: Eskuinari aurka egiteko modu hobereana bera imitatzea eta asko ez probokatzea da. Hau langileentzat kaltegarria izateaz gain, hauteskunderi begira zentzugabea da, eskuineko politiketaz hitz egitean, nahiago izaten delako origina bere fotokopia baino.

Marxistentzat erreformen aldeko eguneroko borroka ezinbestekoak dira langile klasea bere osotasunean mobilizaziora bultzatzeko, ez bere sektore kontzienteenak bakarrik, hain zuzen ere atzeratuenak eta inerteenak bultzatzeko. Modu honetan, langile klasea borrokan batzen da eta esperientziaren bitartez bere kontzientzia maila igotzen du. Erreformen aldeko borroka arrakastatsuak langileei berez duten indarrean kon-

fiantza emateko balio du, indartsuak direla ulertarazteko, azken finean langileen baimenik gabe ez dela gupil bat bera ere mugitzen, ezta argi bat bera ere pizten erakusten digu; eta, aldi berean bizi eta lan baldintzen aurrerapen guztiek bai gure auzoetan, bai legetan, etab. gure kontzientzian eta duintasunean eragiten dute, nagusi baten menpeko lan makina soilak baino zerbait gehiago garella eta pentsatzen eta bere kabuz ibiltzen dakiten gizon eta emakumeak garella sentiarazten digute, borrokatzen dugunaren azken helburuak zein diren argiago erakutsiz.

Gainera, marxistak erreformistetatik benetan bereizten dituenak, inolako azpijokorik erabili gabe langile klaseari, kapitalismoak esku batekin ematen dizuna bihar bestearekin kenduko dizula azaltzen diotela da, hau da, konkista guztiak denboraldi motz batekoak direla, korrelazio indarrak aldatzen diren arte irauten dutela eta benetan gure aurrerapen sozialak irauteko eta hauek hobera egiteko bide bakarra gizarte kapitalistarekin amaitzea dela.

Boom ekonomikotik krisira bitarteko, eta alderantzizko, trantsizioa urteetan zehar pilatutako esperientzia izaten da, hain zuzen ere, etorkizunaren aurreko zalantza pizten duena, kontzientzia hartzearen prozesua bizitzea eragiten duena eta berandu baino lehen, sistema honetan jarritako itzaropen guztiak pikutara bidaltzen dituena.

Erreformen aldeko borroka ekonomikoaz edo sindikalaz gain, politikoki ere borrokatu behar dela azaltzen du marxismoak, instituzioetan eta kalean, langile eta geruza zapalduen artean kapitalistak desjabetzeko eta giza baliabideak langileen kontrol demokratikopean jartzeko adinako indarra lortu arte. Horrela benetako gizarte sozialista bat lortzeko oinarriak jarri ahalko genituzke, zapalkuntza, miseria, gerra eta ingurugiroaren suntsiketarik existituko ez zena.

Zentzu honetan, marxismoak ez ditu mesprezatzen Parlamentuan eta beste instituzioetan lortu daitezkeen posizioak, hauek programa iraultzaile bat defendatzeko erabiltzea oso lagungarri da iraultzaileen ahotsa ozenago entzun dadin eta horrela ideien atzean herritar gehiago biltzeko. Baina instituzioetako lana masen borrokaren osagarri bat bakarrik izan behar du, azken borroka hau izango baita benetan helburu

dugun gizartearen eraldaketa erradikal hau posible egingo duen bakarra.

Gazte edo langile guztiek dakite bere esperientziaren kabuz, kaleetako borrokaren bidez eta sindikatu eta langile alderdietan milaka eta milaka pertsonen antolakuntzaren bitartez bakarrik lortzen direla benetako aldaketa garrantzitsuak. Hortxe ditugu errepresioaren aurkako borrokak, gerraren aurkakoak...; eta hau egiazkoago bihurtzen da gizartea goitik bera aldatzeaz ari garenean.

Egia da, hamarkadak pasa daitezkeela langile klasearen masek existitzen den orden soziala zalantzan jarri gabe eta honek zuzendaritza erreformistek eta burgesiak, gizartearen errutinan eta inertzian oinarrituz, ordena sozialaren egoera normalean bere babes puntuak jartzera ahalbidetzen duela.

Baina berdin berdin erakusten du historiak badaudela momentu batzuk gizarte kapitalista krisian sartzen dela. Eremu ekonomikoan, politikoan eta sozialean pilatutako kontraesanen pisuak errutina eta inertzia hautsi egiten dute eta jendearen gehiengoak gizartearen ordena zalantzan jartzen du, iraganeko sineskeria eta aurreiritzi guztiak baztertuz eta gizartea aldatzeko antolatzea eta borrokatzea bilatuz.

Ilusio hutsa da, pixka-pixkanaka, gradualki eta urte askoren buruan, gehiengo bat lor daitekeela parlamentu burgesean eta gero honetaz baliatuz gizarte kapitalistan aldaketa iraultzaileak aurrera eraman daitezkeela pentsatzea. Ez historiak ezta giza kontzientziak ez dute modu gradualista honetan jokatzeko. Alderantziz, fermentu iraultzaileko egoera batean bakarrik da posible, erakunde marxista eta iraultzaile baten bidez gizartea eraldatzea, langile klaseari bere botere organoak sortzen lagunduz (fabrika, enpresa, auzo, hiri... ba-koitzeke borroka komiteak) eta kaleko presioarekin batera, monopolioak, bankuak, eta latifundioak espropiatzea, gizartea langile klasearen zuzendaritza demokratikoaz antolatuz.

SOZIALISMOA ALA BASAKERIA

Marxismoak gizateriaren jakinduriari historia eta orokorrean inguratzen gaituen mundua ulertzeko metodo zientifiko baten ekarpena egin dio eta bereziki, marxistontzat garrantzitsuena dena, langile klaseak kapitalismoaren aurka duen borroka maila kontziente batera igo du.

Azken 200 urteetan historiak hainbat eta hainbat panazea politiko ezagutu ditu. Bakoitza, bere modura, langile klasea salbatzen saiatu izan da baina oinarrian ez dute ulertu izan sistema kapitalistaren benetako izaera, hau “gizakiaren berekoikeriaren eta diru gosearen” maldizio bezala kondenatu izan dute. Marxismoarentzat ordea, kapitalismoa, beharrezko etapa historiko bat izan da gizateriaren benetako askapenerako bide luze eta gogorrean. Ekoizpen indarren eta kulturaren garapen maila altu batek bakarrik bermatu dezake zapalkuntzarik gabeko gizarte aske bat emateko ezinbestekoa den oinarri materiala.

Kapitalismoak, atzean geratu ziren gizarteek utzitako aztarnez baliatuz, aurrerapen ikaragarriak bultzatzeko beharra izan du industrian, nekazaritzan, zientzian, komunikazioan, kulturaren... Oinarritzko aurrerapen hauek gabe gizateriaren gehien goa eskasian eta gutxiengo baten menpe bizitzera kondenaturik dago. “... ekoizpen indarren garapen hau (...) premisa praktikoa erabat beharrezkoa ere bada, bera gabe eskasia bakarrik orokortuko bailitzateke eta, hori dela eta, pobreziarekin, berriro hasiko zen, aldi berean, ezinbestekoarengatik borroka eta nahitaez aurreko satsukeria guztian birjausiko litzateke.” (K. Marx eta F. Engels, *La ideología alemana*, 36. orr. Grijalbo Ed.).

Kapitalismoaren aurreko gizarteetan, esku lanaren eta lan intelektualaren banaketa erabat garatzen denean, herritarren gutxiengo bat gehiengoak egindako lanaren kontura bizitzea ezinbesteko baldintza zen. Gutxiengo hau bere beharrak asetzeko lanetik askatua izanik eta asti libredun klase bat bihurtuz, zientzia, teknologia eta filosofia egiteko, arte ezberdinak garatzeko eta horrela gizartea aurrera eramateko aukera izan

zuen; hori bai, milioika gizon eta emakumeren bizkarren eta sakrifizioaren kontura. Kapitalismoan ordea, ekoizpen indarren garapenak eta klase dominatzailearen eta dominatuaren arteko erlazio berriek egoera hau justifika ezina bihurtu dute eta gizarteko zapalkuntza guztia gainditzeko baldintza guztiak sortu ditu. Sistema esklabistarekin eta sistema feudalistarekin gertatu zen bezala, sistema kapitalistak iraganean paper ikaragarri iraultzailea jokatu bazuen ere, sistema erabat ahitu, ustel eta zaharkitu batean bihurtu da, gizateria basakeririk handienera eramateko mehatxua egiten duelarik. Beraz, beharrezkoa da hau suntsitzea eta sistema sozial altuago batengatik ordezkatzeko, sozialismoa.

Monopolio, multinazional eta banku gutxi batzuek irabazi eta pribilegioak mantentzeko ezartzen duten kontrol itogarria amesgaizto bihurtu da milioika gizakientzat mundu guztian zehar. Gizateriaren %80a gero eta pobrezia eta miseria handiagoan bizi da. 1960 eta 1970 artean egunean dolar bat baina gutxiagorekin 200 milioi pertsona bizi baziren, gaur 1.300 milioi dira, eta 2.800 milioi bizi dira egunean 2,5 € baina gutxiagorekin. 800 milioi elikadura gaixotasun kronikoak dituzte eta egunero 30.000 haur hiltzen dira gosez. Beste poloa berri, eta ONUren arabera, mundu guztiko 200 pertsona eska sek batera, 3.000 milioi gizakik adina diru-sarrera dituzte, munduko biztanleen erdiarenak. 1960 eta 1993 artean planetako aberatsenen aberastasunak %70etik %85 izatera pasa ziren eta bitartean munduko biztanleen %20 pobreena %2,3 edukit zetik %1,4 edukitzera jaitsi zen. 100 milioi haur kale gorrian bizi dira eta 400 milioi lan egitera behartuak daude.

Herrialde pobreenen zorraren kargak hauen produkzio ekonomiko globalaren %94 hartzen du, eta kasu batzuetan %125era ailegatzen da. 1980ean herrialde azpigaratuen zorra guztira 600.000 milioi dolarretakoa zen, 1990ean 1,4 bilioietakoa eta 1997an 2,7 bilioi dolarretakoa. Zazpi urteetan zorra 770.000 milioi dolar igo zen! Denboraldi honetan herrialde azpigaratuek 1,83 bilioi dolar ordaindu zituzten zorraren zerbitzuen ordaintetan: laguntza bezala jasotako dolar bakoitzaren truke, Hirugarren Munduko herrialdeek hamaika itzuli dituzte zorraren zerbitzuen truke. Egoerak okerrera besterik ez du egin gaur egundaino.

Azken hogei urteetan nabarmentzekoa izan bada ere herrialde garatu eta azpigaratuen (ipar eta hegoa) arteko zuloaren handiagotzea, honekin batera, ez da gutxiagorako izan herrialde guztietan aberatsen eta pobreen artean etengabe hazten joan den aberastasunen polarizazioa. Pobrezia ez da jada Hirugarren Munduarena bakarrik: Europan 57 milioi pobre daude eta Estatu Batuetan 38 milioi. Microsofteko hiru mag-nateren artean Estatu Batuek pobreziarekin amaitzeko programetan gastatzen duten aurrekontu guztia baina diru gehiago daukate.

Bestalde, langabezia masiboaren epidemiak hor dirau, kapitalismoa ez da inoiz arazo honekin behin betiko amaitzeko gai izango. Bigarren Mundu Gerraren ondoren potentziek pilatu zituzten 'gantzak' gaur egun ahitzen ari dira, sistemari aldi baterako oreka eta egonkortasuna ematen zien erreserba sozialak alde guztietatik mota guztietako murrizketa sozialen bidez kentzen dira. ONUren zifra ofizialen arabera, langabezia mundialak 120 milioi pertsona hartzen ditu, baina beste estimazio independente batzuk zifra erreala 1.000 milioi ingurukoa dela baieztatzen dute. Oraingo langabezia hau ezin daiteke esan langabezia zikliko bat denik, edo errekupeazio ekonomiko batean lan mundura sartuko den erreserbako ejertzittoa denik. Orain, enpresarien irabazien aldetik behintzat, boom ekonomiko batetik pasa omen gara, hortik atera kontuak geroz eta gertuago ikusten den atzerapen ekonomikoa nolakoa izan daitekeen.

Gaur egun ematen ari den langile klasearen lan baldintzen okerragotzea benetako kontrairaultza batekin bakarrik alderatu daiteke. Azken hogei urteetan AEBko langileen soldata erreala %20 jaitsi da. Bitartean, gaur egun langile batek urtean bataz beste 168 ordu estra sartzen ditu, ia hilabete bat gehiago urteko (90. hamarkadan astean 41 lan ordu egiten bazituen 2000n 51 egiten zituen). Lan prekarietateak eta produkzio erritmo biziak lan istripu eta heriotzen hazkuntza izugarria eragin dute mundu guztian zehar, Euskal Herrian joan den urtean 113 langilek galdu dute bizia lanean.

Hain zuzen, lan merkatuaren desregularizazioek, kaleratzea merkeagotzeak, lan prekarietateak, ETTeK... helburu bakar bat dute, langile klasearen gainbalio absolutu eta erlatibo ge-

hiago lortzea, eta produkzioa lehiakorragoa egitea lan gastuak murriztuz eta irabaziak handituz.

Irabazien gose amorratuak ekonomia espekulatiboaren hazkuntza ikaragarria ekarri du ekonomia produktiboaren kontura, eta honek krisiaren tamaina handitu besterik ez du egiten. Joan den udaran delako suprimen krisiak ekonomia mundialeko alarmak piztu ditu. Egia esan, 1970ean transakzio internazionalen %90a ekonomia produktiboarekin erlazionaturik bazegoen 1999an transakzioen %95 espekulatiboa zen (dibisen salerosketa, lehengaien eta dibisen etorkizuneko prezioen in-guruko apustuak, enpresa akzioen salerosketa, subprime arrisku altuko maileguen luzapen masiboa...), eta hau guztia aberastasan erreal izpi txikiena sortu gabe! Egunero 1,56 bilioi dolar mugitzen dira dibisetan, merkantzien trukea baino berrogeita hamar aldiz gehiago, munduko banku zentralen erre-serba bateratuak adina alegia.

Kapitalismoa historiak heriotzara kondenatu duen sistema sozial bat da. Gerra inperialistak, genozidioak, gaixotasun eta goseteak edo hondamendi naturalak ez doaz jaisten, erritmo bizian hazten baizik. Euskal Herrian bertan ikusten dugu, nola soldatak behera egiten duten, inflazioa gora doan eta beraz langile familien eros ahalmena ikaragarri jaisten den. Hori gutxi balitz zorraren pisua ikaragarri handitu da, 1999an bankuen zorra familien errenta erabilgarriaren %66 izatetik, %103 izatera pasa zen 2005ean eta azken urtean errekor historikoetan ezarri da berriz ere.

Herrialde aurreratuenetan ere urteetako borroken bidez lortutako konkista historikoak desagertzen ikusten ditugu, lan prekarioa, lanordu luzeak, osasuna eta hezkuntzaren pribatizazioa, kaleratze eta deslokalizazioak... Biharko egunen aurrean dagoen zalantza handitzen ari da eta burgesia gogor prestatzen ari da etorkizunean emango diren borroketarako. Langile klaseari pribatizatuz eta gastu sozialak murriztuz gerra deklaratzeko bitartean, konkista politikoak eta esku-bide demokratikoak murrizten ari da etengabe, alderdien legea ikusi besterik ez. Errepresioa erabiltzen dute kalera irteten ausartzen den edonoren aurrean. Eskuinaren diskurtsoa erabat erradikala bihurtu da, burgesiak talde faxistak kontzienteki indartzen ari da mertzenario hauek baitira krisi iraultzai-

leetan langile klasearen borrokaren aurka egiteko erabiltzen dituen txakurrak. Alde berdinean militarren mehatxuak hor dirau, burgesiak arma guztiak erabiliko ditu bere pribilegioak mantentzeko, Venezuelan 2002an ikusi genuen bezala iraultzak gelditzeko estatu kolpeak eguneraturik daude, ez dira iragan urrun bateko ipuinak. Burgesia hain arduraturik egotea ez da kasualitatea, klase honek ez du inoiz ohiturarik izan gauzak alperrik egiteko. Ondotxo daki langile klaseak iraultza sozialistaren bidez bere pribilegio guztiekin amaitu dezakeela, Latinoamerika inpotentzia ikaragarri batekin kontrolpetik ihes egiten ari zaiola ikusteak kizioetatik ateratzen du. Ondotxo daki borroka honetan marxismoaren ideiak langile klaseak eduki dezakeen armarik iraultzaileena direla eta berarentzat arriskutsuena hauek zabaltzea dela, horregatik saiatzen da ideia hauek behin eta berriz lurperatzen, diru eta errekurtsio morderoa bidaliz lan hau egiteko. Marxismoaren ideiak bizirik jarraitzen dute eta indar osoa dute gaur egun ere, beharrezkoa da kapitalismoaren aurkako borrokan mundu guztiko iraultzaileek ideia hauek berreskuratzea eta benetako programa sozialista baten defentsan lerrokatzea. Badago etorkizunik baina sozialismoarekin bakarrik.

LANGILE MUGIMENDUA ETA TEORIAREN GARRANTZIA

Burgesiak, joan den 160 urteetan, Manifestu Komunistaren agerpenetik bertatik, behin eta berriz deklaratu du marxismoa hilda dagoela. Zaharkitua, utopikoa, autoritarioa, amoral... burgesiak, bere akolitoen laguntzaz, lorenzo antzera gezur eta kalunnia berberak errepikatu dituzte mende oso batez, marxismoa zabor pilo baten azpian lurperatu nahirik. Baina zergatik nekatu aspaldi hilik zegoena behin eta berriz ehorzten?

Klase dominatzailearentzat, sozialismo zientifikoaren ideiak, behin eta berriz, zabaltzen diren izurriteen moduko amesgaiztoa dira. Sobietar Batasuna erori ondoren, honek marxismoa behin betiko akabatu zuela pentsatu zuen. Bestalde, pare bat hamarkada nahikoa izan dira, historiarentzat istant labor bat, hau berriro ere eszenatokian paper nagusia jokatuz agertzeko. Hala ere, akatsa litzateke burgesiak ideia hauen aurka darabilen armamentu mediatikoak duen eragina gutxieste. Historian zehar beste klase dominatzaileen antzera, burgesiak ere tradizio handiko borroka metodoak erabiltzen ditu.

Azken batean, klase hau dugu dudarik gabe, komunikabide, argitaletxe, unibertsitate, instituzio, etab. garrantzitsuenak kontrolatzen dituenak. Alde guztietatik datorren bonbardaketa ideologiko honek eragin handia du gizartearen maila ezberdinetan, baita langile mugimenduren barnean ere. Baina lehenago edo beranduago kapitalismoak atxikirik dituen kontraesanen larriagotzea izaten da gezur sorta hau erabat amiltzen duena. Aberastasunen kontzentrazio ikaragarria alde batean eta geroz eta miseria eta pobrezia zabalagoak bestean, horixe da beste promesa faltsu guztien gainera masei begien aurrean agertzen zaiena. Kapitalismoa etengabeko bizi baldintzen hobekuntza dela esatea erabat zentzugabea da langile klasearentzat, batez ere krisiaren kanpai hotsak gero eta ozenago entzuten diren honetan.

Aldizkari honen aurreko aleetan sistema kapitalistaren benetako oinarriak zein diren eta honen egungo egoera zer nolakoa den azaldu dugu. Jorratu ditugun gaien artean klasearteko borroka, langile klasearen osaera eta bere klase kontzientzia, merkatu kapitalistaren izaera, industriaren papera, erdi mailako klaseen mitoa eta egungo egoera ekonomikoa daude besteak beste. Lanketa honen funtza teoria marxistaren oinarria berreskuratzea eta eguneratzea da, baina ez intelektual burgesen gezurrei eta erasoei erantzuteko helburu hutsarekin, mundu honen eraldaketa sozialistaren aldeko borrokan langile mugimenduarentzat arma nagusia zorrozteko baizik.

TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA

Marxek, gaztea zela, argi utzi zuen zein zen bere filosofiaren eta beste guztien arteko funtsezko ezberdintasuna. Feuerbach buruzko tesian hauxe dio: “Filosofoek ez dute mundua modu ezberdinetan interpretatu besterik egin, baina berau eraldatzean datza gakoa”. Marxek eta Engelsek hasieratik argi zeukaten beraien lan teoriko guztiak ezin zuela paper hutsean geratu. Filosofia, miseria guztiaren amaierara eta gizateriaren garapen orokorrera bideratu behar zuten eta beraz, honek nahitaez, errealitatea bere osotasunean eta den bezalakoa ulertzeko instrumentu baliagarria izan behar zuen.

Bi filosofo hauek langile klasearen lerroetara pasa ziren eta honentzat armarik zorrotzena dena garatzeari ekin zioten: materialismo dialektikoa. Baina filosofia marxistak historia eta orokorrean inguratzen gaituen mundua ulertzeko metodo zientifiko bat garatzean, langile klaseak kapitalismoaren aurka duen borroka maila kontziente batera igo zuen.

Leninek honela laburtu zuen Gure Programa izeneko artikuluan teoria marxistaren benetako ekarpen iraultzailea: “Honek, lehen aldiz sozialismoa utopiatik zientzian eraldatu zuen, zientzia honen oinarri solidoak finkatu zituen eta hartu behar zen bidea trazatu zuen, bere xehetasun guztietan garatuz eta landuz. Honek ekonomia kapitalista garaikidearen esentzia aurkitu zuen, nola langilearen kontratazioak, lan indarraren erosketak, lur, fabrika, mehatze, etab.en jabe diren kapitalista

gutxi batzuen esku dauden milioika desjabeturen esklabotza es-taltzen duela azalduz. Honek frogatu zuen nola kapitalismo ga-raikidearen garapen guztiak, produkzio txikia handiarengatik ordezkatzera jotzen duen eta gizartearen antolaketa sozialista posible eta beharrezko egiten duten baldintzak sortzen dituen. Honek, ohitura errotuen, intriga politikoen, lege konplexuen eta abileziaz sortutako doktrinen estalkiaren azpian klase borroka ikusten erakutsi zigun, genero guztietako klase jabetuen eta masa desjabetuen eta guzti hauen buruan dagoen proletalgoa-ren arteko borroka. Marxen teoriak argi jarri zuen alderdi sozia-lista iraultzaile baten benetako eginkizuna: ez gizartearen be-rrestrukturaketa planak asmatzea, ezta kapitalistei eta bere akolitoei langileen egoera hobetzeko beharrendaren predikuaz ar-duratzea, ezta konjurazioen asmaketan ibiltzea, baizik eta lan-gile klasearen borroka antolatzea eta borroka hau zuzentzea, langileriak botere politikoa konkistatzea eta gizarte sozialista-ren antolaketa duelarik azken helburu.” (Lenin, Gure Programa).

Teoria, azken finean, ekintzarako gida bat da. Gizartea eral-datzeko borroka modu eraginkor batean eman nahi bada, hasi aurretik beharrezkoa da programa bat, politika bat eta perspek-tiba serio batzuk garatzea, hau da, lehenik etsaiaren izaera ondo ezagutzea eta hau garaitzeko modua aurkitzea. Honek ez du esan nahi eztabaida teoriko hutsa ekintzaren gainetik jarri behar denik. Borroka taktikak ere beharrezkoak dira eta hauek teoriarekin batera garatu behar dira. Ezinbestekoa da ekintza-rako garaian zein taktikak diren eraginkorrak eta zeintzuk ez, zeintzuk indartzen duten langile klasearen borroka eta zein-tzuk baztertzen duten, etengabe baloratzea. Leninek inoiz ez zituen teoria eta praktika bereizten, biak nahita ez batera joan behar zuten, langile klasearen borroka ekonomikoak politikoa-rekin joan behar zuten bezala. Malgua eztabaidan eta zorrotza ekintzan, horixe zen partidu boltxebikeak zuen metodoa.

ESPERIENTZIA HISTORIKOAREN GARRANTZIA

Historiatik ikasten ez duena kondenaturik dago akats berbe-ra behin eta berriz errepikatzen. Marxismoak ez du historia modu erromantiko batean ikusten historialari burgesen antze-

ra, lezio praktikoak ateratzeko iturri amaiezin bat bezala baik. Historiaren interpretazio materialista ezinbesteko tresna da iraultzaileentzat. Beharrezkoa da oroimena berreskuratzea oraina ulertzeko eta etorkizunerako prestatzeko. Prozesu iraultzaileek nahiz kontrairaultzaileek, langile klasearen garaipe- nek nahiz porrotek, aberastasun ikaragarri handia eskaintzen dute langile mugimenduarentzat eta sakonki aztertu, eztabai- datu eta eguneratuak izan behar dute bertatik ateratzen diren lezio guztiek. Trotskyk iraultzaile batentzat langile mugimen- duaren esperientzia eta tradizioak ezagutzea ezinbesteko bal- dintza zela azaltzen zuen.

Materialismo historikoak, gizartearen egituraketa eta garapen historikoari dagokionean, ekarpen handiak egin ditu eta giza- kien artean agintzen duten lege dialektikoen ikuspegi orokor bat eskaini du. Metodo hau mekanizista dela eta dena ekono- miara mugatzen duela esaten duten kritikak ez dira berriak, Engelsek honela erantzuten zien. “Auzia modu materialista batean aztertzeari dagokionean, esan behar dut, lehenik eta be- hin, metodo materialista bere aurkakoan bihurtzen dela iker- kuntza historikoaren printzipioen gidatzat hartu beharrean, gertaera historikoak bakoitzaren interesen arabera egokitu ahal izateko aurre diseinaturiko modelo baten ikuspuntutik hartzen bada”.

“Izate sozialak kontzientzia determinatzen du”, hau da giza historiaren ulermenean Marx eta Engelsek eginiko ekarpen handia. Esaldi honek teoria marxistak eta langile klaseak du- ten lotura azaltzen du. Sozialismoa langileek naturalki hartzen duten ideologia da, bizi baldintza zehatzek hau horrela izate- ra bultzatzen dute. Langile klasea da benetan enpresa bat martxan jartzen duena, gure bizi behar oro martxan jartzen duena. Klase honek nahi badu dena gelditu dezake. Etsai beza- la soldadak murrizten dizkien, ordu estrak sarrarazten dizkien eta esplotatzen dituen nagusi parasittoa ikusten dute. Bestal- de, ekoizpen prozesuan bezala, borroketan klase honek bere artean batasuna eta elkartasuna beharrezkoa du. Honela be- raz, lehenago edo beranduago, klase kontzientziaren garape- nak, nagusia desjabetzera eta enpresa langileen funtziona- menduan jartzera bultzatzen ditu. Ideia hauek oso kutsako- rrak bihurtzen dira eta elkartasuna, enpresa ezberdinetako

langileetara eta masa zapaldu guztietara zabaltzen da, borroka ekonomikoak borroka politiko bihurtuz eta langileak estatuaren indar polizialen aurka borrokatzera paso emanez eta bere borroka organoak sortuz.

Marxiston baikortasunak langile klasearen sormenaren indarrean du bere jatorri guztia. Noski, badakigu klase honetan geruza aurreratuagoak eta atzeratuagoak daudela eta aldi historiko lasaietan ez direla masak izango, gutxiengo kontziente bat baizik, ideia iraultzaileak defendatuko dituena. Baina langile masak izatez pasiboak direla eta teoria konplikatuak ulertzeko gai ez direla dioten burges txikiak erabat erraturik daude. Rosa Luxemburgok zioen bezala, “Langile masa zabalak sozialismo zientifikoaren arma zorrotz eta eraginkorra heltzen dutenean soilik hondoratuko dira inklinazio burges txiki guztiak, korronte oportunistak guztiak. Orduan izango da mugimendua oinarri sendoetan jalgiko den unea”.

LANGILE KLASEA ETA SOZIALISMOA

Burgesiak bere gaztaroan feudalismoren aurka egin zuen bezala, langile klaseari dagokio orain sistema honen aurkako borroka zuzentzea. Langile klaseak du sistema kapitalista behin betiko lurperatzeko ahalmena. Produkzio kapitalistan duen paperak eta bere bizi eta lan baldintzen berezitasunek klase hau ordezka ezina bihurtzen dute eginkizun honetan.

LANGILE KLASEAREN IDEOLOGIA NATURALA

Erdi-mailako klasea, bere bizimoduan eta produkzioan duen papera dela eta, organikoki ez da gai sistema kapitalistaren benetako izaerari aurre egiteko. Gizartean duten posizioarengatik eta bere lan isolatuagatik, ez dira klase dominatzaileko etsai bartenkin zuzenean aurrez aurre jartzen. Honenbestez, beraien gaitz guztiak gobernatzaileen ezgaitasunetik edo borondate txarretik, edota bestela jainkoaren zigorretik datozela iruditzen zaie maiz.

Langileek berriz, euren gaitzen iturria euren nagusian ikusten dute. Hau da soldatak jaisten dizkiena, ordu estrak sartze-ra behartzen dituena, esplotatzen dituena eta kaleratzen dituen. Honen aurrean defendatu ahal izateko beharrezkoa dute lankide guztien elkartasunik handiena hemendik datorrelarik beren mentalitate solidario, kolektibo eta anti-individualistaren jatorria. Bestetik, lanerako orduan ere, ekoizpen prozesu orok behar du funtzionatu ahal izateko enpresako langile guztien inplikazioa, hauetako bakoitza ezinbesteko zati bat delarik ekoizpen prozesuaren katean. Egunerokotasunean eramaten duten elkarren arteko interdependentzia honek, indartu egiten du aipaturiko mentalitate kolektibo hau.

Edozein enpresetako langileen borroka dialektikaren lege oso garrantzitsu bat azaltzen du: osoa bere zatien batura baino gehiago da. Lantegi bateko langileen indar bateratua askoz handiagoa da hauetako bakoitzak isolaturik egin dezakeen presioa baino. Hemen alderatzen dira erdi mailako klaseko burges txikiarekiko.

Sozialismoa da langile klasearen ideologia naturala. Langileen eta enpresako nagusiaren arteko borroka puntu gorenera iristen denean, hauek fabrikak okupatzera edo zuzendaritzak honen barruan eustera jotzen dute. Momentu horietan izaten da “hemen benetan nork agintzen duen” argi geratzen den unea. Nagusia desjabetzeko ideia eta enpresa langile guztien arteko jabetza komuna izan behar duela esaten dien sentimendua, beren kontzientziaren garapen naturalaren ondorioz jaiotzen da momentu jakin batean. Jabetza komunaren ideia langile izatearen baldintzatik sortzen da. Enpresak funtzionatzen jarraitu behar badu, hau ezin da zatikatu eta langileen artean banatu, baturik eta denek elkarrekin lan eginez mantendu behar da. Greba orokor orok ere mahaiaren gainean jartzen du, maila altuago batean, “hemen benetan nork agintzen duen”, eta aldi berean, baita langile klasearen sektore guztien interesak berberak direla. Egoera iraultzaile batean honen potentzial ikaragarria geratzen da agerian.

Ekonomia kapitalistan, lanaren banaketaren izaerak eta sektore ekonomiko guztien arteko elkarreraginek egiten dute ideia hau ekoizpen indarren osotasunera zabaltzea. Hemendik dator beraz, klase kapitalista guztiaren desjabetzea eta langile klase osoaren kontrol eta zuzendaritzapean egongo den ekonomia planifikatu baten sorrera langileek bere enpresa partikularretik ateratako ondorioen orokortze bat izatea.

Kapitalismoak berak sortzen dituen bizi baldintzak dira, hain zuzen ere, etorkizuneko gizarte sozialista baterako oinarriak jartzen dituztenak. Nekazal ekonomia zaharrean familia bakoitzak zuen bere etxea, putzua eta elikatzeko, janzteko eta bizi ahal izateko modu indibidual bat. Gaur egun ordea, langile familiak komunean bizi dira (hiri, auzo eta eraikin komunean) eta elektrizitate, estolderia, telefonia, garraio publiko eta kontsumorako baliabide komunak dituzte ingurukoekin. Guzti honek pentsamendu indibidualista apurtzera eta sozialista bat sortzera bultzatzen ditu langile familiak.

KAPITALISMOAREN ALTERNATIBA

Kapitalismoa mundu mailako sistema bat da. Ekonomia kapitalistak mundu guztian zehar ezarri dituen lan banaketa erla-

zioek herrialdeak eta kontinenteak elkarrekin batzen dituzte. Herrialde batek ere, ezta boteretsuenak edo garatuenak, ezin dio merkatu mundialaren aginte itogarriari ihes egin. Estatu burgesak eta ekoizpen baliabideen jabetza pribatua oztopo nagusi bihurtu dira gizakiaren eta ekoizpen indarren garapenean. Bi hauek dira krisi ekonomikoak, gerrak eta gorroto xenofoboak eragiten dituztenak. Hauekin behin-betikoa amaitzea eta historia zaharkituaren museora bidaltzea ezinbesteko baldintza da gizateriak bere aurrean dituen arazo eta basakeriak konpontzen hasteko.

Langile klasea ere mundu mailako klasea da. Esplotazio modu berberak, arazo eta interes berberak, mundu guztian zehar batzen dute langile klasea. Jasan dituen esplotazio kapitalistako 150 urteetan zehar behin eta berriz erakutsi izan du zertan datzan internazionalismo proletarioak; bai momentu ezberdinetan sortu dituen langile erakunde internazional eta iraultzaileekin, bai kapitalismoaren aurkako borrokan herrialde ezberdinetan erakutsi duen elkartasunarekin. Internazionalismoa ez da kontsigna huts bat, langile klasearen borroka mundu mailan batzeko ezinbesteko oinarria da. Planeta guztian zehar zabaldu behar da gizartearen eraldaketa sozialista baten aldeko borroka, mundu mailan bakarrik ematen baitira sozialismoa eraikitzeko aukerak.

Multinazional handiek eta garraio eta komunikabide modernoek, historian inoiz ikusi ez diren maila erraldoietan elkartzen dituzte ekoizpen indarrak eta erlazionatzen dituzte gizakiak. Kapitalismoak eman zuen garapenaren ondorioz, lehen aldiz bideragarria da ekonomia modu harmoniko eta demokratiko batean eta gizateria guztiaren interesen arabera planifikatzea eta ez pribilegiatu eta parasito batzuen arabera, gaur arte gertatu den bezala.

Iraultza sozialista garaile batek, herrialde bakar batean izanda ere, eragin ikaragarria edukiko luke munduko langileen kontzientzia eta perspektibetan, batez ere herrialde garrantzitsu batean ematen bada. Honelako garaipen bat mundu mailako iraultzaren hasiera bezala bakarrik uler liteke.

Egia da gizarte kapitalistaren aro normal batean ideia guzti hauek ez daudela langile klasearen gehiengoaren pentsamenduetan. Horretarako beharrezkoak dira aurretiko espe-

rientzia bat, gizartearen inertziarekin apurtzen duen egoera iraultzaile bat eta langile alderdi ezkertiar eta borrokalari bat; marxismoaren programa tinko defendatzen duena eta masen artean eragina duena, langileei bere esperientzia eta interesekin bat azken ondorioak ateratzen lagunduko diena.

Marx eta Engelsek esplotazio kapitalistaren aurka langile klaseak dituen interes inkontzienteak ulertu eta azaldu zituzten, eta honela, klase hau, borroka honetatik eratoritzen diren eginkizunez kontziente egin zuten. Ekoizpen erlazio kapitalisten erabateko eraldaketa eta klaserik gabeko gizarte sozialista berri bat eraikitzea dira ezbairik gabe langile borrokaren benetako garaipena.

Burgesia desjabetuta eta ekoizpen indarren planifikazio komun batekin bakarrik izango da gai gizateria bere benetako askapenerantz aurrera egiteko. Gure historia guztian zehar teknologian, zientzian, artean, pentsamenduan eta kulturaren lortu ditugun garaipen konkista guztiak gordeaz eta hauen gainean konkista altuagoak eraikiaz, etorkizun oparoa eta muga-gabea du oraindik gizakiak ezagutzeko. Etorkizunik bada hura sozialismoarekin da.

MATERIALISMO DIALEKTIKOA, FILOSOFIA IRAULTZAILE BAT

Sozialismo Zientifikoaren ideia eta teoria guztiek, azken batean, oinarri sendo bat dute, zutik eusten dien bizkar hezur bat. Hau bere metodo filosofikoa da, materialismo dialektikoa alegia.

Hasiera batean nahiko arraroa egin liteke, filosofiari hainbeste garrantzia ematea, bai filosofiak eta bai filosofoek, askotan zoro kontuak direla eman izan baitute. Lehenik burura datorren irudia, beti katuari bosgarren hanka aurkitu nahian dabilzan gizonena da, asperturik eta beraien ideietan, gizartetik erabat isolaturik bizi direnena. Egia esan, ez da arrazoirik falta historiak eman dituen filosofo gehienei begiratura.

Hasteko ordea, benetan filosofiarik behar ote dugun galde liteke, ea auzi konplikatuez arduratzeak zerbaitetarako balio ote duen. Galdera honek bi erantzun ditu. Eguneroko bizitza egiteko kasuan, noski, erantzuna ezetz litzateke. Baina munduaren ulermen sakonago bat bilatzen badugu, gure bizitzetan, ingurunean edo gizartean ematen diren gatazken jatorria eta izaera ulertzea bada gure helburua, orduan, erantzuna bestelakoa da. Filosofia bat azken finean, orokorrean mundua ulertzeko modu bat da. Denok uste dugu, ongi dagoenaren edo gaizki dagoenaren artean bereizten dakigula, hala ere, askotan auzia konplikatu egiten da. Gerren, gatazka politikoaren, porreziaren edo gosetearen aurrean jende askok aitortuko du honelako arazoek ez duela ulertzen edo bestela, hauek azaltzeko argudio ilunetara joko du, esate baterako, arazoa “gizakiaren izaera natural ankerra” dela esanez. Egia esan, filosofiarik ez dutela behar edo politikaz ez dutela ezer jakin nahi diotenek, askotan klase dominatzaileak eskaintzen dizkien aurreiritzietan erortzeko arrisku handia dute.

Marx eta Engelsek, bere garaian jada esaten zuten garai bateko ideologia, klase dominatzailearen ideologia izaten dela. Jakina da komunikabide nagusiak, irakaskuntza ereduak eta

instituzioak, gaur egun, burgesiaren kontrolpean dauden erremintak direla, hauek zabaltzen dituzten ikuspuntuak klase interes kontziente batzuen arabera direla. Hala ere, gizarte bakoitzean, klase dominatzaile hau azpiratuko duen klase zapaldua jaiotzen den bezala, klase honek, gizarte horretako aurreiritzi guztiak irauliko dituen pentsamolde iraultzaile bat hartzen du. Marxismoak, gezur dekadente guzti hauei aurre egingez, gizarte kapitalistaren ulermen sakon eta osatu bat eskaintzen digu. Baina aldi berean, filosofia honek, alde guztietatik hau gainditzeko bidea erakusten digu eta garrantzitsuena dena gizarte sozialista baten perspektiba zientifikoa ematen du.

IKUSPEGI MATERIALISTA BAT

Gaur egun, erabilera arruntean ‘materialista’ eta ‘idealista’ espresioek duten esanahia ez da filosofiako arloan ematen zaionaren berbera. Nahasketa hau oso zaharra da eta bere jatorria mendeetan zehar elizak materialismoaren izenari egindako kritiketan aurkitzen da. Engelsek berak, ohikoa duen umore batez, honela erantzuten die kontzeptu hauek desitxuratu nahi zituztenei: “Filistiarrak, materialismo bezala, sabelkeria eta mozkorkeria, gutizia, haragikeriaren plazera, bizitza oparitua, diruaren irrika, zikoizkeria, aberasteko gogoia eta burtsa iruzurrak ulertzen ditu; hitz batean, kultu sekretu bat eskaintzen dien bizio zikin guzti horiek; eta idealismoaz, bertutearenganako, hurkoaren maitasunarenganako eta orokorrean “mundu hobeago batenganako” fedea, hauetaz besteen aurrean harropuzten dela, eta hauengan berak, asko jota, bere ohiko gehiegikeria “materialistei” jarraitzen dien erresakan edo makalaldietan sinisten duela” (F. Engels, L. Feuerbach y el fin de la filosofía clásica alemana).

Filosofian idealismoak, mundu sentigarria, hau da, inguratzeko gaituen mundua, ideia batzuen edo ideia handi baten isla dela dio; hauek, betidanik existitu direla defendatzen du, guregandik aparte, eta perfektuak eta betierekoak direla. Materialismoak berriz, ukatu egiten du munduan zerbait oinarri materialik gabe existitu daitekeenik, hau da, gure pentsamendua, gogoia eta ideiak materia antolatuta baten produktu direla

defendatzen du eta ez arimak, ez Jainkoek, ezin dutela izaki inmaterial eta independente bezala bizi dio.

Nahasketa hau ongi aztertzen badugu, bi esanahiak erabat aurkakoak bihurtzen direla ohartzen gara. Idealismoak, erlijioari estuki loturik, beti beste mundu batera begiratu izan du, imajinario mundu perfektuetaz hitz egin du eta idealista eszeptikoenen kasuan bezala, mundu hau mespretxatu eta ukatu izan du. Marxismoak ordea, paradisua mundu honetan bertan erakitzeagatik borrokatzen du. Gizakiak lorpen ikaragarriak egin ditu zientzian eta teknologian, objektiboki badu gaitasuna gizarte honetako miseria guztiakin amaitzeko. Gutxi batzuen klaseko pribilegioak eta jabetza pribatuaren interes ekonomikoak dira hain zuzen ere, garapen hau oztopatu eta gizartea hondamenik gordinenera eramaten dutenak. Azken finean, gizartean zentzugabeak diruditen gauzek ere (gerra inperialistek, goseteak eta elikagaien gain-produkzioak, langabeziak eta esplotazioak, lapurretak, arrazakeriak...) kausa materialak dituzte eta hauek gizartearen antolatzeke moduan bertan bilatu behar dira.

“Izate sozialak kontzientzia determinatzen du”, honela labur daiteke Marx eta Engelsek gizartea eta historia ulertzeko modu materialistari eginiko ekarpena. Argi dago pertsona eta taldeen ideologia eta kontzepzioak ere ez direla zerutik erortzen, azken finean oinarri material batetik jaiotzen direla. Gizarte batean ekonomiak, bizi baldintza materialak produktzeko eta erreproduzitzeko moduak, lehen mailako papera jokatzen du, modu honek determinatu izan baititu historian zehar, klase sozialak eta beraien interes antagonikoak. Gizakiaren hautapen aske eta existentziaz hitz egiten duten filosofoak ez dira gai gerrak eta iraultzak azaltzeko. Gizakien garapen pertsonala ere, azken instantzian, bere ingurunetik jaso duenari loturik dago. Honela beraz, Marx eta Engelsen hitzetan, “gizakia zirkunstantzietatik eratua bada, zirkunstantziak modu gizatiar batean eratu behar dira”.

FILOSOFIA ETA ZIENTZIA

Idealismoak, bere izateko arrazoiak, lan intelektualaren eta esku lanaren muturreko banaketan aurkitzen du. Esklabutza-

ren bidez, gizon batzuk bizitzeko lan egitetik askatuak izan ziren eta egia esan, honela, zientziak, arteak eta teknikak aurrerapen handiak lortu ahal izan zituen. Baina aldi berean, gizon hauek gizartearen gainetik jarri ziren eta beren pentsamenduei erabateko gorentasuna eman zieten, gizakiaren naturarekiko harremana distortsionatuz eta bere esentzia den lana, erabat mesprextatuz. Erljioa, idealismoaren muturreko espresioa da eta gizartearen klase antagonismoetatik jaiotzen da, hain zuzen ere dominazio hau izpiritualki sendotzeko. Erljioa gizartearen gainetik ezartzen da, denek onartu eta jarraitu beharreko dogma bezala eta erabat distortsionatu eta oztopatu egiten du, gizakiak bere burua eta inguratzen duen munduaren ezagutza hartzea.

Lubakiaren beste aldean zientzia dugu, bere izaera naturala dela eta, mundu honen ulerkuntza arrazional bat bilatzera jotzen duela. Zientziak, gizakiaren jatorria edo fenomeno meteorologikoen izaera bezalako galdera handiak, natura sakonago ulertuz azaltzen direla erakutsi digu. Egia da, hau ere ez dela gizartetik isolaturik bizi eta zientzialariak gizartean bizi diren pertsonak izanik honek eraginda daudela. Gaur egun, kapitalismoaren zahartzaroko dekadentzia fase batean bizi garen honetan, influentzia hau oso nabarmena gertatzen da, bai zientzian eta filosofian ere. Zientzian, ideia erlijiosoak ikus daitezke, unibertsoaren sorreran, “Big Bang” famatuaren teorian adibidez, materia eta denbora noiz sortu ziren asmatu nahian dihardutenean. Ahaztu egin zaie Lukreziok orain bi mila urte esan zuena, ‘ezerezetik ezin dela ezer sortu’ alegia. Bestalde, arrazakeriaren, sexismoaren, homofobiaren edo gaiztakeriaren justifikazio sasi zientifikoak ere bilatzen saiatu izan dira, genetikaren bidez eta abar luze batez. Zientziak ordea arazo bat du, ez ditu dogmak onartzen hipotesiak baizik, eta hauek frogatu beharrak (nahiz eta okerrak izan) ikerkuntza sakonagoetara bultzatzen du.

Bai zientzia eta bai filosofia ofizialetan, gaur egun, arrakasta handiena duten ideiak idealismorenak eta eszeptizismorenak dira. Ideia hauek dudatan jartzen dute ea benetan norberaren burua ala beste guztia existitzen den, edo ea mundu hau benetan den bezala ezagutu ote daitekeen. Gizarte kapitalistaren gainbeherak, artista, ikerlari zein filosofo asko mundutik

alde egin nahi izatera eta beraien ideietan gordetzera bultzatzen ditu. Bestalde, gaur egun oraindik ere, milaka gizon eta emakumek ideia erlijiosoetan aurkitzen dute euren buruen salbazio indibiduala.

Egia esan, berandu baino lehen gizateriaren potentzial guzti hau martxan jarriko da, eta masa zapalduak gizartea eraldatzeko eginkizun ikaragarria hartuko dute beraien eskuetan. Langile klaseak, klase zapalkuntza guztiakin amaituko du eta lehen aldiz historian, giza kulturaren aberastasunak masei zabalduko zaizkie. Langile klaseak, gizateriak jaso duen ezagutza guztia oinarri tinko batzuetan finkatuko du eta gizateriaren ahalmen ikaragarriak iragana gainditu eta muga imajinaezinak ezagutuko ditu.

ESTATUA ETA BERE ITXURAZKO INDEPENDENTZIA

Estatuaren auzia funtsezkoa izan da betidanik marxistentzat. Iraultza sozialista orok, lehenago edo beranduago, aurre egin beharko dio nahitaez Estatu burgesaren indarrak garaitzeko eta hau suntsitzeko eginkizunari. Langile klasearen garaipenen eta porrot lazgarrien esperientziek erakusten digute Estatuarekiko ideia argiak eta programa zehatza edukitzea ezinbestekoa dela sistema kapitalistarekin behin betiko amaitzeko.

Marxisten obra askoren gai nagusia izan da Estatuak. Gai hau aztertzen murgildu dira, besteak beste, Engelsen Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorria, Marxen Luis Bonaparteren Brumarioko 18a eta bereziki, zabalen azaltzen duena, Leninen Estatuak eta Iraultza. Hala ere, nahiz eta pentsalari hauek hainbesteko garrantzia eman gai honi, badirudi egunero bizitzetan Estatuaren auziak ez duela horrelako ardurarik sortzen langile klasearen masa zabalen artean.

Hau, ordea, ez da kasualitate bat. Estatu bat ez da eragin korra izango, jendeak ez badu zerbait inpartzial bezala ikusten, klaseen interesen eta pertsona ororen gainetik dagoen zerbait bezala; hau da, azken finean “hor dagoen zerbait” bezala. Konstituzioa, ejertzittoa, parlamentua eta audientzi nazionala zalantzan jartzea gaur egungo politikan lekuz kanpokotzat ikusten da, tabu bilakatu dira. Eta agian, bere burua “aurre-rakoitzat” duen politikariren bat instituzio hauen akatsen bat edo beste kritikatzera ausartzen bada ere, ez zaio inondik inora bururatuko benetan beharrezkoak diren ala ez zalantzan jartzea. Azken finean “demokrazia” honetan Estatuak “denona da”, ez?

Ez da harritzekoa klase borroka lasai dagoen aldietan (historiako zati handienak dudarik gabe), masen gehiengoarentzat Estatuak indar “independente” bat bezala agertzea. Burgesiak bere baliabide guztiak jartzen ditu aparatu honen legitimota-

suna ideologikoki zabaltzeko lanean. Baina hala ere, klase borroka berotzen denean eta gizarteko polarizazio gogorrek oinarritzko arazo guztiak eguneko gai zerrendan jartzen dituenen, amaitu egiten dira politikarien diskurtso polit guztiak eta Estatutuak bere benetako izaera erakusten digu, azken finean: “gizon armatuen indar bereziak jabetza pribatuaren defentsan”.

Marxismoak Estatu oro klase batek bestea zapaltzeko instrumentua dela erakusten digu. Estatuak ezin du neutrala izan, ez baita ezerezetik sortzen. Azken finean, gizarte bateko klase arteko borrokaren produktua da, zapaltzaileen eta zapalduen etengabeko gudatik sortzen dena. Estatuak betidanik egon den zerbait bezala aurkezten digute, baina hori ez da egia. Lehenengo gizarteak Estaturik gabe moldatu ziren, oraindik ez baitziren klaseak existitzen; komunismo primitiboa deituriko aldia zen.

ESTATUAREN SORRERA

Estatuak oraindik sortzeko zegoenean, gizon emakumeak gensean antolatzen ziren. Giza klan hauek elkar erlazioetan zituena odolezko senidetza erlazioak ziren, ez lurraldetasunarena, geroago izango zen bezala. Ez ziren klaseak existitzen ezta ezberdintasun eta menpekotasun sozialak ere. Taldetik baten bat nabarmentzen bazen, bizitzan zehar irabazi zuen begiruneagatik eta autoritate moralagatik zen, ez besteak esplotatuz bizitzeagatik.

Gizarte primitibo hauetan eman ziren garapeneko ordea, gizakiak inoiz ezagutu duen iraultza handienari eman zioten bide, iraultza neolitikoari hain zuzen ere. Arrazoi historiko ezberdinak medio, gizarte hauek ibiltari eta ehiztari izatetik sedentario izatera pasa ziren eta ibai hertzetako lur emankorrak lantzen hasi ziren, nekazaritza, abeltzaintza eta eskulanetako ofizioak garatuz. Arte hauen perfektzionamenduak aldi berean, taldearen ondasunetan soberakin bat ekoiztera eraman zuten. Produktuak soberan geratzen hastean, tribuko gizabanako batzuk soberakin hauen jabe egiten hasi ziren modu individual batean. Baina nekazaritzan eta abeltzaintzan ekoizpena gorantz zihoan heinean, eta oraindik ekoizpen handiagoa lortze-

ko aukera ematen zuten bitartean, ez zen modu berean hazten hau ekoizteko ezinbestekoa zen eskulana. Honela, falta zen lan hau gerren bidez preso hartzen zituzten pertsonak esklabo bihurtuz lortzen hasi ziren.

Aberastasunen jabetza indibiduala indartzen zen heinean gizarteko lan banaketa geroz eta handiagoa bihurtzen zihoan. Lehen aldiz, komertzioa, dirua, mailegua eta hipoteka bezalako fenomenoak sortu ziren gizarte esklabistaren zirrikituetan. Aberastasunen jabetza geroz eta esku gutxiagotan eta boteretsuagotan kontzentratzeak aldi berean gehiago ahulenaren pobretzea ekarri zuen. Esklaboen jabeak bizitzeko lan egiteki libratu ziren bitartean, lan esklaboak nagusitasuna hartu zuen ekonomian. Honela, gizartea interes ekonomiko ezberdinak zituzten klaseetan erabat zatiturik gelditzera ailegatu zen eta honek nahitaez etengabeko borroka sortuko zituen gizartearen beraren garapena ezinezkoa bihurtuz.

Hau eragozteko agertzen da hain zuzen ere Estatuak, klaseen arteko talka hauek eragozteko edo gutxienez mantsotzeko. Honetarako, “gizartearen gainetik jartzen den eta berarengandik geroz eta gehiago banatzen den botere bezala aurkezten da”. Estatuaren lehen berezitasuna bere menpekoak lurraldeka antolatzen dituela da, lehenagoko senidetza erlazioen aurrean. Bigarrena, berriz, askoz esanguratsuagoa da. Gizartea klaseetan zatituta dagoen momentutik, ezinezkoa da biztanleen antolakuntza armatu espontaneo eta beharrezkoa gertatzen da indar publiko baten ezarpena. Hemen, funtzionarioen kasu bat, indar publikoen eta zergak biltzearen jabe, gizartearen gainetik agertzen da. Indar publiko hau, ordea, gizon armatuez osatzeaz gain, kartzelez eta mota guztietako instituzio hertsatzaileez baliatzen da.

KLASE ZAPALDUAREN ESPLOTAZIORAKO INSTRUMENTUA

Estatuaren sorrera laburtuz, Engelsek hurrengo pauso bat ematen du marxistontzat funtsezkoa den ideia bat ondorioztatuz: “... Estatuak klaseen arteko antagonismoak mantsotzeko beharretik jaio zenez, eta aldi berean, klaseen hauen gatazkaren erdian jaio zenez, lege orokor bezala, klase boteretsuenaren

Estatua da, ekonomikoki dominatzailea den klasearena, honen laguntzarekin politikoki ere klase dominatzailea bihurtzen delarik, hemendik klase zapalduaren errepresiorako eta esplotaziorako bitarteko berriak lortuz...”.

Antzinaroan Estatuak esklabisten alde eta esklaboen aurka egiten zuen eta Erdi Aroan jauntxoek alde eta jopuen aurka. Baina modu berean, Engelsek dioten bezala, “Estatu ordezkari modernoa ere, kapitalak soldatapeko lana esplotatzeko erabiltzen duen instrumentua da”. Manifestu Komunistan, Marxek eta Engelsek “Estatuaren gobernu klase burges osoaren negozio komunak kudeatzen dituen kontseilu bat besterik ez dela” azaldu zuten. Eta kapitalismoan benetan hala da. Demokrazia burges formal batean bakoitzak nahi duena esan dezake (edo hori ere ez!), baina benetan bankuek eta monopolioek erabakitako dute gertatuko dena. Beste era batera esanda, demokrazia burgesa kapital handiaren diktadura besterik ez da.

Gaur egungo Estatu kapitalistak urteetan zehar perfekzionaturiko aparatuak dira. Langileen borroka bakoitzak, burgesia, aparatu hau handitzeko eta hobetzeko beharrera eraman dute. Gizarteko herritarren zati ikaragarri bat Estatuaren burukrazia sarera eta errepresio indar publikoetara bideratu ditu; aparatu honek, funtzionario askoren gogoez independenteki, gizarteari arnasbide guztiak ixten dizkiolarik.

Kapitalismoan, makinaria itogarri hau burgesiaren interesen eta beharren arabera diseinatua izan da, edo hobe esanda, burgesiak proletalgoari gainbalioa ateratzen dion moduaren arabera. Feudalismoan esaterako, ezinezkoa zen hainbeste giza baliabide Estatu aparatu parasito batera bideratzea, ekoizpen baliabideen garapen urriak ez baitzuen honelako gasturik onartzen. Gainera jauntxoak bere jopuak zapaltzeko zuen modua hain gordina eta begi bistakoa zen, nahikoa zuela Elizarekin eta “polizia” destakamenduekin matxinada ezberdinei aurre egiteko.

Gizarte kapitalista, ordea, erabat ezberdina da esentzian. Burgesiari bere nagusitasuna, ekoizpen baliabideen jabetza pribatua edukitzetik dator; proletalgoari berriz, bere menpekotasuna, bizitzeko baliabideak ateratzeko bere lan indarra soldata baten truke saltzea beste erremediorik geratzen ez zaion errealitatetik. Honela, beraz, gizarteko palanka ekonomiko

guztiak burgesiaren eskuetan egonik, funtzionarioen ustelkeriaren bidez eta gobernuen eta enpresa eta bankuen aliantzen bidez burgesia Estatuak indartsuki dominatzera ailegatu da.

Errepublikak "demokratikoa" da dominazio honek eduki dezakeen mozorrorik hoberena eta segurua, bere boterea zeharka gauzatzen baitu, baina beste aldetik, ez pertsona, ez alderdi, edo ezta mekanismo politikoak akatsek ez baitute gizar-teko klase dominazio hau aldatzen. Baina burgesiarentzat sufragio unibertsala ez da beti defendatzen duen ideia absolutu bat. Klase borroka maila altuetara iritsi izan denean burgesiak demokrazia guztiak utzi eta armen eta destakamendu militarren indarrera jo izan du, Franco, Pinochet etab. erabili izan ditu bi aldiz pentsatu gabe.

Dudarik gabe, gaur egun ere, Estatuak eta batez ere hauen indar armatuak dira burgesiak bere agintea mantentzeko dituen instrumentu nagusiak. Etorkizunean ere langile borroka errepresio indarren aurrean topatuko dira. Baina inolaz ere Estatuaren indarrak ez dira ahalguztidunak, iraultza askotan eman den bezala Estatuak lokatzekeo hankak dituen erraldoi bat bezala erori izan da klase lerroetan bananduz. Gaur egun, klaseen existentziak bezala, Estatuaren existentziak ere gizartearen garapena oztopatzen du, ez da beharrezkoa den zerbait, hobe esanda beharrezkoa dena bere behin betiko desagertpena da.

MARXISMOA ETA LANGILE ESTATUA

Dudarik gabe Estatuaren auzia da, marxismoa beste ideologia eta korronte guztietatik argien bereizten duena. Berak bakarrik azaldu du, zehatz-mehatz, zein den iraultza sozialista gauatzeko programa eta modua. Horregatik izan da marxismoa faltsutuena, hain zuzen ere Estatuaren puntuan, eta horregatik da gure egin beharra, faltsutze hauen guztien gainera, inoiz garatu den programarik iraultzaileena berreskuratzea.

Teoriako aurreko artikuluan Estatu kapitalistaz hitz egitean, Engelsen hitzak erabiliz, zera genioen: Estatu kapitalista, azken finean, gizon armatuen indar berezi bat da jabetza pribatuaren defentsan. Estatua klase arteko borrokaren erdian eta bere kausa bezala jaio zenez, orokorrean, klase dominatzailearen Estatua dela baieztatzen genuen. Historian zehar, klase dominatzaile ezberdinek, gizarteko gutxiengo esplotatzaileek, Estatua erabili izan dute klase zapalduak jazartzeko, matxinadak erreprimitzeko eta euren pribilegioak mantentzeko. Hau horrela izan da klaseetan zatituta existitu diren gizarte guztietan, bai esklabismoan, bai feudalismoan eta baita ere, noski, gizarte kapitalistako demokrazia burges modernoan.

Baina zer egin dezakegu langileok kapitalismoaren zapalkuntza honen aurrean? Zer egin dezakegu burgesiaren agintea eta Estatu kapitalista “izugarri” hau suntsitzeko? Posible al da armada iraunkorrik gabe, kolore ezberdinetako polizia-rik gabe, audientzi nazionalik gabe eta parlamenturik gabe, langileok gizartea antolatzea?

Noski, ohiko burges txikiak honakoa erantzungo du: “EZ! Ezinezkoa da! Horrelako gizarte bat, armadarik eta polizia-rik gabe, ongi ordaindutako politikaririk eta epailerik gabe, enpresen eta banketxeen nagusirik eta exekutiborik gabe, erabat anarkikoa izango litzateke, bertan krimenak eta kaosa bakarrik gailenduko lirake!” Hauxe da burgesiak aukera duen guztietan errepikatzen duen ideia eta komunikabide burgesak pertsonen buruetan sartzen saiatzen direna. Gauza bera erre-

pikatzen digute askotan “ezkerrekoak” diren politikari erreformistek ere, gaur egun hainbesteko degenerazio ideologikoan jau si direla, ezen manifestazio edo greben aurrean indar polizialek egiten duten sarraski oro justifikatzen dutela, “indar legitimoen” ekintzak direla argudiatuz. Erreformismoaren porrot ideologiko tamalgarri hau ordea ez da batere berria, garai batean (XX. mende hasieran esaterako) sozialdemokratak “marxistak” kontsideratzen zuten euren burua eta sozialismoaz hitz egiten zuten, baina benetako orduan, ezbairik gabe, “euren” Estatu nazionala babesten zuten, noski, “ordenaren eta nazioaren alde!”

ERREFORMISMOA ETA ESTATUA

Erreformismoak, hasteko, ukatu egiten du, Estatua klase batek bestea erreprimitzeko aparatu bat dela. Bere ideien arabera, egungo Estatu demokratikoa klaseen arteko ikamikak adiskidetzeko tresna lagungarri bat da. Jaun hauen ustetan, zapaltzaileak eta zapalduak elkar ulertzeko eta ados jartzeko, beharrezkoa da “bitarteko inpartzial bat”, gatazka oro konpontzeko behar den bezala eta hori da, hain zuzen ere, egungo Estatua. Baina ahazten dutena zera da, “konponbide” honetan, zapaltzaileak zapaltzaile izaten jarraitzen duela eta zapalduak zapaldu!

Hala eta guztiz ere, “inpartziala” al da indar hau? Burgesiak kapitalismoan bere eskuetan dauzka gizarteko palanka ekonomiko erabakigarri guztiak. Zuzenean kontrolatzen ditu Estatuko funtzionario militar eta politiko altuak eta zuzenean esku hartzen du Estatuko erabaki benetan garrantzitsuetan, publikoki bai pribatuki. Parlamentuak, oinarritzko erabakiak hartzeko organo izan beharrean, alferreko hitzontzikerien toki bihurtzen dira.

Aldi berean, langile klaseak Estatuan eta parlamentuan dituen “ordezkari” gehienak, hain zuzen ere, teoria hauek errepikatzen dituzten erreformista traidoreak dira. Kapitalismoaren historian eta mundu guztian zehar, alderdi sozialistetako zuzendaritzan kokatu izan diren buruzagiak langileen botoekin parlamentuan egotera ailegatu dira. Baina behin bertara

iritsita, postu altuekin, soldata ikaragarriekin, sobornoekin, presio ideologikoarekin, etab. langileen oinarri sozialetik banandu dira eta klase burgesaren “gonapeko txakurrak” bihurtu dira, banan bana neurri atzerakoi eta errepresibo guztiei amen esan diotelarik.

Kapitalismoa, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran gorakada ekonomiko batean zegoen testuinguru batean, langile klasea, bere borroka sozialari eta sindikalari esker, kontzesioak eta erreformak lortzeko gai izan zen arlo ekonomikoan nahiz politikoan. Langile alderdietako zuzendaritzek sinetsi egin zuten, marxismoa alde batera utzirik, kapitalismoak bere kontraesan ekonomikoak betirako gainditu zituela eta etengabeko hazkuntzan jarraituko zuela. Ustezko betiereko garapen ekonomiko honekin batera, alderdi sozialdemokraten lana garapen politikoa gero eta demokratikoagoa bilakatzeari zen. Langileen botoen bidez parlamentuan gehiengoa osatzera iritsiz eta bertatik erreformak eginez, apurka-apurka eta baketsuki kapitalismoarekin amaituko zuten eta sozialismoa eraikiko zuten. Ideia erreformista teoriarik oso polita izan arren utopiarik handiena da, eta praktikan, mende oso batez, ezagutu diren traizio handienekin frogatua izan da.

Amets erreformistak, itsaso gazi bat egunero azukre koilarakada bat botaz gozatzea espero dutenen parekoak dira. Historian, inongo klase dominatzailek ez ditu bere pribilegioak hil ala biziko borroka bat eman gabe utzi. Burgesia ez da gutxiago izango. Bere klaseko pribilegioak ekoizpen baliabideen jabetzatik datozkion heinean, botere politikoa guztiz kontrolatzen saiatuko da. Ahal badu, sufragio unibertsala aitortuko du, eta masei klase dominatzaileko zein agintarik zapaldu behar dituen aukeratzen utziko die, baina inola ere ez ditu bere pribilegioak hauteskunde demokratiko batean jokoan jarriko. Hauxe da historian zehar burutu dituen eta gaur egun burutzen dituen Estatu kolpeen eta milaka hauteskunde iruzurren benetako esanahia.

Marxismoak zera dio: Langile klaseak, jasaten duen zapalkuntzarekin behin betiko amaitzeko, botere politikoa hartu behar du, gizartean klase dominatzaile bezala antolatu behar du. Eginkizun honetan ezinbestekoa da burgesiaren interesetan sortua izan den Estatu aparatu hau suntsitzea, erabat

haustea, Estatu forma hau ez baita baliagarria zapalduak, gizar-tearen gehiengoak, beren gobernua ezartzeko. Zerekin ordezkatu orduan aparatu hau?

ANARKISMOA, LANGILE ESTATUA ETA BERE IRAUNGIPENA

Hasi aurretik, batez ere anarkisten eta marxisten arteko polemika argitu asmoz, honako galdera hauek erantzun behar ditugu: Beharrezkoa al da behin Estatu burgesa suntsituta langileen Estatu bat? Posible al da benetan Estaturik gabeko gizarte bat?

Marxismoaren arabera, bi erantzunak baiezkoak dira. Askotan faltsutua izan da eta argi esan behar da, Marxek, Engelsek, Leninek eta Trotskyk beren idatzietan beti defendatu izan dutela sozialismoaren benetako helmuga klase gabeko eta Estatu gabeko gizarte bat dela. Puntu honetara arte marxistak bat etortzen dira anarkistekin, baina iraultza hau konkretuki planteatzerako orduan ezadostasunak eta jarrera ezberdinak hasten dira.

Anarkismoaren (bere teoriko klasikoan) arabera, Estatuarekin ahalik eta azkarren amaitu behar da. Estatu gabeko gizarte bat nahi da, Estatu baina gizarteak dituen gaitz guztien jatorria. Autoritate oren, menpekotasun oren, aurka daude. Aldi berean ordezkari-tza sistema oro, arduren eta erantzukizunen sistema oro, a priori ukatzen dute eta berdindio hau nondik datorren. Behin eta berriz errepikatzen dute, botereak gizakia galbideratzen duenaren ideia.

Auzia horrela planteatzeak ordea, hain modu abstraktu eta idealistan, teorian oso polita badirudi ere, ez dauka zentzu handirik. Marxek, bere garaian, iraultzen esperientzia konkretua aztertzetik eta hemendik ikasgai praktikoak ateratzetik garatu zituen bere ideiak. Ez zion ekin, utopisten antzera, bere buruan iraultzarik ederrena asmatzeari, eta gero gizar-teari berak asmaturiko iraultza eder hura egin behar zuela erakusteari. Langile klaseak berak erakusten zion iraultzak zein forma hartu behar zuen. Esate baterako, Parisko Komuna iritsi zen arte ez zen ausartu konkretuki langile klaseak Estatu burgesa suntsitu ondoren nola antolatu behar zuen esaten,

historiak ez baitzuen oraindik hau egiteko materialik eman. 1871an izan zen langile klasea, momentu labur batez izan bazen ere boterea hartu zuen historiako lehen unea eta hementik aurrera izan zen Marxek “proletalgoaren diktaduraren” ideia benetan garatu zuena (Garai hartan diktadura hitzak ez zuen gaur egun du esangura, egokiagoa litzatekeelarik langile demokrazia adierazpena, berdina esan nahi baitu).

Laburbilduz, langile klaseak Estatu boterea funtsezko bi arrazioengatik behar duela esan liteke. Lehenik eta behin, kapitalisten erresistentzia garaitzeko. Estatua klase batek beste zapaltzeko instrumentu bat dela azaldu badugu, langileen eskuetan Estatua kapitalistak zapaltzeko tresna bat bilakatu da. Aurrez esan bezala, burgesiak ez ditu bere pribilegio guztiak utziko modu baketsu batean, azkenera arte borrokatu gabe. Honela beraz, erabat beharrezkoa da iraultzan langile klasea bere osotasunean armatzea. Baina begi bistakoa da iraultza mantendu nahi bada, langileek klase zapaltzaile parasitoarekin behin betiko amaitu nahi badute, ezin dituztela armak itzuli, baizik eta sistematikoki erabili behar dituztela burgesiaren aurka gerra irabazi arte. Eta zapalduen gehiengoak gutxiengo parasito honen aurka sistematikoki biolentzia erabiltzeak, biolentzia hau demokratikoki baina diziplina zorrotz batez antolatzeak, gehiengoaren Estatu bat inplikatzeko du. Noski, oraingo honetan klase zapalduaren erabateko ezabatzea posiblea eta, are gehiago, beharrezkoa da. Langile klaseari zer erreprimitu geratzen ez zaionean, bere kabuz Estatu hau iraungitzen hasiko da, eta armen erabilera sistematikoak pixkanaka beharrezkoa izateari utziko dio.

Bigarren arazoia berriz gizartearen antolakuntza sozialistaren ingurukoa da. Ekonomia kapitalista, jabetza pribatuaren interes partikularretan eta merkatuaren “izaera anarkikoan” oinarritzen da. Ekoizpena soziala den heinean, jabetza indibiduala da. Kontraesan honek ezinbestean etengabeko krisiak sortzen ditu ekonomia kapitalistan, gain-produkzioan oinarritzen direnak. Hau bereziki agerikoa da egungo krisi ekonomikoan.

Anarkismoak honen aurrean zera planteatzen du: Fabrika bakoitza bertan lan egiten duten langileei ematea, lur sail bakoitza lur hura lantzen duten nekazariei ematea, itsasontzi

bakoitza bertan lan egiten duten arrantzaleei ematea, etab. hau da langileen kooperatiba “askeak” sortzea nonahi. Honek ere oso polita dirudi ideia bezala, baina praktikan ez dugu apurtzen merkatu kapitalistaren kontraesan bakar batekin ere. Eskaintza eta eskariaren arteko erlazioa are anarkikoagoa bihurtuko litzateke, adibidez: Autoak egiten dituen lantegi batek, langile gehiago hartzeko beharra badauka ekoizpena altxa egin daitekeelako eta gazte berriek ere nonbait lan egin behar ko dutelako, arazorik gabe hartuko ditu langile berriak. Baina alderantziz bada, ekoizpena jaitsi egiten bada eta langileak soberan badaude, nola moldatuko dira bertako langileak eguneroko ogia ateratzeko ez badute saltzen? Bestalde, agian petrolioko langileek beren lana beste inor baino garestiago saltzeko aukera edukiko lukete, produktu garrantzitsu baten monopolioa duten heinean! Eta ez dezagun hitz egin jada, ekoizpenaren adarretan lan egiten ez duten langileez, zerbitzuez, etxebizitzeez... edo lantegi handi batek bakarrik inplikatzeko duen funtzionamendu konplexuen antolakuntzaz.

Marxismoak merkatu kapitalista zoroarekin amaitzeko argi uzten du beharrezkoa dela ekonomia planifikatu bat. Lantegiak, bankuak, lur sailak eta gizarteko palanka ekonomiko erabakigarri guztiak, biztanleria langile guztiaren eskuetara pasatzea. Ekoizpen baliabide bakoitza eta guztiak, langile bakoitzaren eta langile guztien jabetza dira. Baina argi dago ekonomia planifikatzeko antolakuntza zabal eta zorrotz bat behar dela, hau antolatuko duten “boterearen” organo batzuk beharrezkoak direla, behintzat gizartearen osotasunak bere kabuz bizikidetzara arauak betetzen ikasi arte. Baina, era berean Parisko Komunak erakutsi zigun gizartearen ekonomia antolakuntza hau egingarria zela, armada iraunkorrik eta burokrazia pribilegiaturik gabe. Honako antolakuntza izan zuen Parisko komunak eta horrelakoa izan zen Urriko Iraultzaren lehen urteetan Sobietar Batasunak hartu zuen antolakuntza.

Alde batetik berehala lau neurri praktiko iraultzaile hauek hartu zituen: 1) Kargu publikoen hauteskunde libreak, momentu oro funtzionario guztiak hautagarri eta karguz kengarriak izango dira. 2) Inongo kargu publikok ezingo du langile bat baino soldata handiagoa jaso. 3) Txandakako sistema ba-

ten ezarpena denek kontrol, ikuskatze eta kontabilitateko egin-kizunak burutzeko. Denak aldi batez burokrata direnean, inor ezin da burokrata bihurtu. 4) Armada iraunkorrik ez, herri armatua baizik. Noski neurri hauek martxan jartzeko, langile bakoitzaren lan orduak izugarri jaitsi beharko dute, baina hau oso egingarria izango da, kontuan hartzen badugu, alde bate-tik, kapitalismoan zenbat langabe, zenbat gaizki antolatutako lanpostu zentzugabe eta zenbat giza baliabide dauden indar armatu berezietara eta burokraziara bideratuta; eta bestetik, sozialismoan, erosotasunera eta segurtasunera bideratutako zenbat aurrerapen teknologiko izango lirartekeen posible.

Langile Estatuak inoiz ezagutu den formarik demokratiko-ena izan behar du nahitaez, gizarte guztiaren gehiengoa hasieran, eta guztia gero, ohitu behar baitu ekonomia eta bizitza sozial guztia beren eskuekin antolatzen. Estatu kapitalista suntsitua den bezain laster langileek nazio guztian zehar eta mundu guztian zehar beren antolakuntza sistema bat ezarri beharko dute ezinbestean, garaipenak mantentzeko beharrak bultzaturik. Baina behin burgesiaren aurkako errepresio sistematikoak bere zentzua galtzen duenean, klase sozialak desagertzen direnean eta gizarteak modurik demokratikoenean antolatzen ikasten duenean, orduan Estatuak gradualki iraungitzen hasiko da eta sozialismo osorako bidea irekiko da.

KRISI KAPITALISTEN TEORIA I

Burgesia eta bere morrontzan lan egiten duten ekonomialariak, boom ekonomiko bakoitzeko, krisien behin betiko amaieraz eta denontzako oparotasunez beteriko etorkizun batez hitz egiten hasten zaizkigu. Hau emateko ezinbesteko baldintza bakar bat jartzen digute: “denok sistema honen perfektutasunean konfiantza izatea”. Baina, dena den, non geratu dira orain ilusio eta esperantza utopiko horiek?

1999ko bere perspektibetan OCDE erakundeak honakoa esan zuen: “Estamos en el umbral de una atractiva oportunidad, la posibilidad de un sostenido y largo boom de la economía mundial que se prolongará en las primeras décadas del próximo milenio... Una confluencia de factores que podrían unirse para propulsar importantes mejoras en la capacidad de creación de riqueza y bienestar a escala mundial”. Ez dira hamar urte igaro eta jada, krisi ekonomikoa eguneroko albiste bihurtu da. Egutero esaten zaigu krisia uste zena baino larriagoa eta luzeagoa izan daitekeela, ERE berri batek eta kaleratze masiboei milaka lanpostu golpetik suntsitzen dituztela, bankariei eta enpresariei, euren irabaziak babestearren, gure poltsikoetatik diru gehiago eman behar diegula; hau dena hezkuntza publikoari, sanitateari eta laguntza sozialei murrizketa latzak egitearen truke, langileon etorkizuna hipotekatzearen truke.

Ekonomialari burgesak beren teoria eta azterketa ekonomikoak egiterako orduan, garai historiko honetako klase dominantzailearen, burgesiaren, ametsa hartzen dute abiapuntu eztabaidaekin moduan, hots: Sistema kapitalista, existitu daitekeen sistema ekonomikorik perfektuena da eta ez dauka berezko kontraesanik. Honegatik, ‘ustekabeen’ krisi bat gertatzen denean, ekonomialari hauek ‘ezbeharraren’ kausa bezala ‘halabarrezko akzidenteen’ aitzakiak jartzen dituzte (esate baterako petrolioaren garestitzea, espekulatzaile ‘gupidagabe’ batzuen diruzalekeria, merkatuaren etika falta, etab.). Eta, beraz, behin eta berriz diote merkatuaren lehenagoko oreka hura berrezartzeko ez dagoela ‘jatorrizko arazotxo hau’ konpondu bes-

terik. Ez dute inoiz onartuko kausatzat jartzen dituzten 'istri-pu' hauek sistemaren zahartzaroaren sintomak direla, ekoizpen kapitalistak berez duen kontraesan salba ezinaren ondorio besterik ez direla eta arazoaren benetako jatorria sistema sozioekonomiko honen izaera naturalean oinarritzen dela.

Panorama honen aurrean beharrezkoa dugu honakoa aldarrikatzea: Marxek arrazoia zuen! Marxek kapitalismoa dirauen artean gertatuko diren krisi ekonomikoen azalpen eta deskribapen zientifiko osatu bat eman zuen bere idatzietan, orain dela 150 urte! Ondorengo teoriako artikuluetan ideia hauek laburbiltzen eta sinpleki azaltzen saiatuko gara.

IRABAZIRIK EZ BADAGO EKOIZPENIK ERE EZ

Ekoizpen kapitalista mugiarazten duen xedea ez da, inondik inora, behar sozialak asetzea, irabazi maximoa lortzea baizik. Honela beraz, ekoizle bakoitzak merkantziak masan produzitzeari eta hauek merkatuan ahalik eta gehien saltzeari ekiten dio, izan ere, behin merkantzia salduta soilik lortzen baita irabazi kapitalista. Baina, zein da irabazi honen jatorria? Soldatapeko langileari ordaintzen ez zaion lan indarra da, hau da, gainbalioa. Merkantziei bertan ezarritako lanak ematen die balioa eta balio hau ekoizpenean egindako sozialki beharrezkoa den lanaren denborak determinatzen du. Soldatapeko langileak, bere lanaldian balio gehiago ematen die ekoiztutako merkantziei ordainetan soldatan jasotzen duena baino. Azken finean burgesak, ahal izanez gero, soldata langileak bizitzeko behar duenera mugatuko du, ahalik eta gainbalio handienarekin geratzeko.

Baina merkantiaren salmenta ez bada gauzatzen gainbalio ere ez, eta kapital pilaketa prozesua golpetik gelditu egiten da. Merkatuaren kontrakzio indartsu honen aurrean, kapitalaren ondasunen inbertsioa (ekoizpen baliabideena) izugarri jaisten da eta baita, aldi berean, kapital aldakorraren inbertsioa ere (lan indarra). Ekoizpenaren gelditze honek, enpresen itxiera masiboak eta langabezia kronikoa eragitean, langileen eros ahalmena murrizten du eta kontsumoa izugarri jaisten da. Modu honetara, dinamika guztia azkartu egiten da eta ondorioa (langile klasearen pobretze orokorra dena) kausa

bihurtzen da (kontsumo urriak ekoizpena geratzen du). Kredituek mugitzeari uzten diote, inongo bankuk ez baitu mailegurik arriskatu nahi arazotan dabiltzan enpresa, negozio eta gizabanakoekin; irabazi tasa ere jaitsi egiten da eta, beraz, etorkizuneko inbertsioen paralisia hazi egiten da. Hitz gutxitan esanda, ez badago irabaziak lortzeko aukerarik, kapitalistak ez du ekoiztuko, aurreko urteetako aberastasun guztia ahalik eta seguruen babesten saiatuko da.

GAINPRODUKZIO KRISIA

Ekonomialari burgesek kapitalismoaren funtzionamendu ordenatu eta logikoari buruz margotu nahi diguten koadro idilikotik urrun, marxismoak ekoizpen kapitalistaren izaera anarkikoa dela azaltzen digu. Hau gidatzen dutenak merkatuaren indaritsuak eta kapitalista banakoen irabazi nahia dira. Marxismoak krisi kapitalisten kausak sistemaren bihotzean bertan ezartzen ditu, hain zuzen ere, ekoizpenaren izaera sozialetik eta jabetzaren izaera pribatutik jaiotzen den kontraesanean.

Kapitalaren jabeek, une oro beste kapitalistekin duten konpetentziak bultzaturik, etengabe ekoizpen teknikak iraultzera, ekoizpen balia bideak berritzera eta soldatapeko lanaren esplotazioa indartzera behartuta ikusten dute euren burua (gainbalioa handituz). Kapitalisten artean konpetentzia ikaragarri bat askatzen da irabazi tasa handiagoen bilaketan. Kapitalak etengabe irabazi tarte handiagoa eskaintzen duten ekoizpen adar horietara jotzen du, nahiz eta honek kapital iraunkorraren gastu handi bat eskatu, eta baita, orokorrean, kapitalaren konposaketa organikoaren handiagotze gradual bat ere. Honela, beraz, kapitalistek ekoizpenaren adar jakin batzuetan irabazi azkarrak eta handiagoak lor ditzaketela uste badute, zalantzarik gabe, ahal bezain beste kapital inbertituko dute adar horietan, baita honetarako bankuen kreditura eta zorpetze masibora jo behar badute ere. Fenomeno hau hazkuntza kapitalistako garai guztietan eman izan da, ekoizpenak goraka egiteko aukera duenean eta lanaren banaketa internazionala zabaltzen ari denean, hau da, komertzio mundialaren merkatua haziz doanean.

Baina, hala ere, prozesu honek, kapitalisten irabazi goseak ez bezala, muga objektiboak dauzka eta hauen aurka talka egiten du. Azkenean, gehiegizko inbertsio bat sortzen da, hau da, inbertsioak ez dira hain azkar amortizatzen, izan ere, merkatua produktuez saturatzen eta salmenta zailtzen hasten baita. Honen ondorio ekidinezina gainprodukzioa da, bai kontsumorako artikuluetan, baita ekoizpen baliabideetan ere. Azken finean, gehiegizko abundantzia bat sortzen da eta merkatuak, momentu jakin batean, ezin du hau dena xurgatu. Hemendik aurrera, krisi fase bat hasten da, irabazien tasaren erorketa, inbertsio eza, kaleratze masiboak, lantegien itxierak, etab. Laburbilduz, ziklo ekonomikoan gailentzen dena ekoizpen indarren suntsiketa da.

Argi utzi behar da gainprodukzioa merkatuarekiko ematen dela, eta ez gizartearekiko. Alderantzizkoa esateak, kapitalistentzat argudio bezala balio dezake ekoizpen indarren eta lanpostuen suntsiketa legitimatzeko. Produktuak gehiago ez erosteko arrazoia eros ahalmenik ez edukitzea da eta ez, inondik inora, gizarte guztia denaz gehiegi aseta egotea. Merkatu kapitalistarentzat, azken finean, eros ahalmenik gabeko pertsona bat ez da existitu ere egiten. Biltegiak gehiegi betetzen hasten direnean eta produktuak soberan daudenean da, hain zuzen ere, gizarteak hauen behar gehien duen unea. Honelakoa da krisi kapitalistaren kontraesana.

Noski, krisia hainbat faktorek areagotu eta azkartu egin dezakete. Azken hamarkadan pilaturiko burbuila finantzario izugarriak, maileguei eta zorpetze masiboari esker sortuak, merkatua eta ekoizpena beren mugetatik kanpo zabaltzeaz eta espekulatu zuten kapitalistei irabazi handiak emateaz gain, egungo krisiaren izaera oldarkorra prestatu zuen. Merkatu finantzarioen krisia ez da atzeraldiaren kausa izan, bere sustriak benetako ekonomian baitauzka, baina dudarik gabe, hau gauzatzen lagundu du eta honen izaera baldintzatuko du.

Manifestu Komunistak ongi laburbiltzen duen bezala, krisi kapitalistak ekoizpen indarren matxinada bat dira jabetza erlazio burgesen eta Estatu nazionalaren arteko alkandora hertsagarriaren aurka.

KRISI KAPITALISTEN TEORIA II

Erreformisten eskolako ekonomialarien artean, oso zabaldurik dago krisi ekonomikoen arrazoi nagusia herritarren kontsumo baxua dela esatea. Teoria hauen helburu bakarra arazoaren jatorria ekoizpen modu kapitalistatik aldentzea eta begirada faktore sozial eta psikologikoetara zuzentzea da; azken finean, ekoizpen baliabideen jabetza pribatu santua inork zalantzan jar ez dezan ziurtatzea.

AZPI KONTSUMOA ETA ERREFORMISMOA

Azpikontsumoaren teoria honen defendatzaileen artean bat egiten dute gaur egun ezkerreko erreformistek eta, batez ere, eskola sozialdemokratako neokeynesianistek. Ideia hauetatik eratortzen diren neurri politikoak ongi ezagunak dira. Krisiak saihesteko eta merkatua bere onera ekartzeko gizartean produktuen eskaria handitu beharra dagoenez, konponbide bakarra Estatuaren esku-hartze ekonomiko zuzena da, hau da, Estatuak ekonomiaren kontrolatzaile lanak egitea eta masen eros ahalmena igotzera bideraturiko neurriak hartzea. Hala ere, hilabete gutxitako esperientziak beste behin ere erakutsi digu administrazioek hartu dituzten neurri ekonomiko guztiek zerbaitetan arrakasta izan badute, hori kapitalisten irabaziak ahalik eta hobekien babesten izan dela, beti bezala langile klaseak sorturiko aberastasunak kapitalistei, parasito bteredunei, ematen.

Honen aurrean, marxismoak lehenik eta behin zera azaltzen du: Estatuak ez da klaseetatik independentea den aparatua; kapitalismoan “Estatuaren gobernua klase burges osoaren negozio komunak kudeatzen dituen kontseilu bat besterik ez da” (Manifestu Komunista). Egungo gobernuek, “ezkerrekoek” nahiz eskuinekoek, gizarteko sektore pobreenetara laguntza ekonomiko txikien batzuk bideratu badituzte, ez da izan politikariak hazkuntzan doan pobreziarekin arduraturik daudelako eta hori konpontzen ahalegindu nahi dutelako, baizik eta burgesiak berak zuzenean ikusten duelako krisi honek bere agintea

kolokan jar dezaken iraultza sozialak ekar ditzakeela eta horren beldur da. Azken finean, kapitalistak eta politikariak bat eginik publizitate erraldoi batekin lagunduriko ogi apur miserable batzuk askatzen ahalegintzen dira dena ez galtzarren.

Teoria hauen arabera pilaketa kapitalistaren prozesua beregiteko administrazioek langileen soldata zuzenean nahiz zeharka handitzera bideraturiko neurriak hartu behar dituzte, langabezi sorospeneko laguntzak haziz, gastu soziala handiagotuz, lan publikoa bultzatuz, etab. Hala ere, zalantza serioak ditugu alderdien zuzendaritzan esertzen diren agintari erreformistek, burgesiaren mehatxu txikiaren aurrean burua makurtzen duten horiek, testuinguru ekonomiko honetan kapitalistei aurre egin eta pribilegioak kentzen hasiko direnik langile klasearen aldeko neurri serioak defendatzeko.

Estatuak aberatsei dirua emateari utzi eta gizarteko aberastasuna modu justuago batean banatzeari ekin beharko lukeen ideia oso zabaldurik dago, baita ezkerrekotzat hartzen diren alderdi eta sindikatuetan ere. Soldaten igoera, lanpostu guztiak mantentzea, langabezi sorospen mugagabea ezartzea, bankuei eta enpresei dirua emateari uztea eta hau politika soziala bideratzea bezalako leloak oinarritzekoak dira, indar handia hartu dezakete eta baliagarri gertatu daitezke langile klasea antolatzeko eta borrokan jartzeko, eraso hauen guztien aurrean garaipenak lortzeko. Baina bere baitan ez dituzte krisiaren erroak ukitzen. Ez du ekoizpen baliabideen jabetza pribatua desegiten eta honela kapitalistek jarraitzen dute zer ekoizten den eta zer ez erabakitzen. Kapitalistek gizarteko botere ekonomikoaren monopolioa duten bitartean, beharrezkoa badute sabotaje ekonomikoa, funtzionarioen ustelkeria, azpijokoa eta Estatu kolpea erabiliko dute arriskutsutzat jotzen duten gobernu bat eraisteko, gaur egun Venezuelan gertatzen den bezala. Jakina da inork ezin dezakeela kontrolatu bere eskuetan ez daukana eta esku pribatuetan badago ekonomiarekin horixe gertatzen da. Erdibideak ahiturik gelditzen dira eta beharrezkoa da aurrez aipaturiko eskakizunen aldeko borroka banka eta enpresa garrantzitsuenak langile kontrolpean nazionalizatzeke borrokarekin elkartzeko. Eredu ekonomiko eta politiko kapitalistaren aurrean alternatiba bakarra langile demokraziapen antolaturiko ekonomia planifikatua da.

Kontsumo urria krisi kapitalisten kausa nagusia dela dioen teoriaren aurrean, marxismoak krisien ezinbestekotasuna ekoizpenaren izaera sozialaren eta jabetzearen izaera pribatuaren arteko kontraesanetik azaltzen du. Ez du ukatzen krisietan ekoizpenaren eta kontsumoaren artean kontraesan argi bat ematen denik, baina fenomeno hau bere tokian ezartzen du, bigarren mailako gertaera baten garrantzia ematen dio. Arazoaren muina, azken finean, kapitalaren pilaketa prozesuak dituen berezko legeetan bertan aurkitzen da, hau da, ekoizpen baliabideen jabetza pribatua, gainbalioa gauzatzen den moduan eta merkantzien ekoizpenean oinarritzen den ekonomia batek dituen kontraesanean.

IRABAZI TASAREN ERORKETARAKO JOERA

Kapitalistak ekoizpen prozesuan erabiltzen duen kapitala bitan zatitzen da: kapital finkoa, ekoizpen baliabideek, lehen gaiek, makinariak, etab.ek osatua; eta kapital aldakorra, langileen lan indarra erosten gastatzen den kapitala. Lehenak ekoizpenean dagoen merkantziari bere balioa gehitu bakarrik egiten dio, bere balioa ez da aldatzen, lan hila da. Bigarrenak aldiz kontsumitzean balioa sortzeko gaitasuna du eta honako hau da gainbalioaren eta irabazi kapitalistaren jatorria.

Merkantzien ekoizpen masiboaren dinamikak kapitalista bakoitza makinarian eta teknologian azken aurrerapenak sartzera behartzen du. Modu honetan, kapital finkoan egindako inbertsioak igo egiten dira. Epe motzean honek merkantzia gehiago ekoiztea baimentzen du, baina irabazi tasa erortzea ere eragiten du kapitalaren konposaketa organikoa hazten den heinean, hau da, ekoizpen baliabide eta instrumentuak hazten diren heinean. Burgesek kapitalaren konposizio organikoaren hazkuntza bat jasaten duten arren, gogor borrokatzen dute beren irabazi tasaren erorketa nolabait konpentsa dadin. Normalean, irabazi tasaren erorketak ez du kentzen irabaziaren masa handitzea. Kapitalista batek ez dio inbertitzeari utziko bere irabaziak kapital globalaren %4a bakarrik badira %9aren orde. Lege hau ez da absolutua, joera bat erakusten du eta neurri jakin batzuekin aurre egin dakioko:

1.- Lanaren zapalkuntza maila handitzea eta soldata bere balioaren azpira murriztea. Gain balioaren mozkina handitu egiten da lanorduak luzatuz eta lan erritmoak azkartuz. Faktore hau gakoa izan da azken urteetan mundu osoko kapitalismentzat geroz eta irabazi handiagoak jasotzen jarraitzeko. Herrialde guztietan lan eguna igo egin da, ekoizpen erritmoak ikaragarri azkartu dira eta bien bitartean lan indar honen soldadak jaitsi egin dira. Bestalde, milaka pertsona SEBS zaharretik, ekialdeko Europatik eta Txinatik lan merkatu mundialera sartu izanak eta herrialde garatuetera eman diren migrazio mugimendu indartsuek lan indarraren merkatzerako joera eragin dute.

2.- Kapital konstantearen elementuen merkatzea. Ekoizpenaren garapenak, berez, kapital aldakorrarekin alderatuz kapital konstantearen masa handiagotzera jotzen duenez, kapital honen elementuen balioa murrizten du lanaren ekoizpen gaitasuna handitzean. Honela beraz, kapital konstantearen balioak, nahiz eta etengabeko hazkuntzan egon, ezin du lan indar berak martxan jar ditzakeen ekoizpen baliabideen hazkuntzaren proportzio berean hazi.

3.- Kapitalaren errotazioa azkartzea. Urteko irabazien masa, kapital zirkulatzailerak egin ditzakeen ekoizpen ziklo kopurutik eratorritzen da. Errotazio hau garraioaren eta merkantzien salmenten azkartasunak bezain beste baldintzatzen du ekoizpen erritmoen azkartasunak.

4.- Kanpo merkataritza. Merkataritza mundialaren garapenak nola kapital konstantearen elementuak hala kontsumo gaiak merkatzen ditu. Honek, gainbalio kuota handitzean eta kapital konstantearen balioa murriztean irabazien kuota handitzen laguntzen du. Munduko merkataritzak ekoizpen eskala zabaltzen laguntzen du, honela metaketa kapitalista azkartzen duelarik.

Krisi kapitalisten arazoa ikuspuntu dialektiko baten bidez aztertzean, argi utzi behar da beren jatorria soilik irabazi kapitalisten tasaren jaitsierari, hau da, gainbalio gutxiegi ekoizteari egoztea ere ez dela nahikoa. Joera hau XX. mendean ezagutu diren krisi kapitalistetan hor egon da (1929ko crackean, 1973/74ko atzeraldian...). Lege honek argi erakusten duena ziklo industrialak globalean hartzen duen forma anarkikoa da. Eko-

nomia kapitalistan bertan aurkitzen diren legeek jartzen dituzte gain-produkzio krisi baterako premisak. Azken finean, krisiak saltzeko ezintasunetik sortzen dira, eta orduan, kapitalistentzat krisitik ateratzeko modu bakarra ekoizpen baliabideen suntsiketa masiboa da.

KRISI KAPITALISTEN TEORIA III

Krisi ekonomikoak azaltzeko orduan, teoria marxista sistema kapitalista garatzen den barne dinamikaren berezko kontraesanetatik abiatzen da. Era berean, gizartean gertaera sozial eta politiko handiak gauzatzeko oinarrizko baldintzak azpiegitura ekonomiko honen dinamikan garatzen direla azaltzen du. Burgesiak 90. hamarkadan krisi ekonomikoak behin betiko amaituko zirela esaten hasi zenean, klase arteko gatazkak ere betiko desagertuko zirela baieztatu zuen. Bistakoa den bezala, bi aldiz hanka barru barruraino sartu zuen.

KLASE ARTEKO BORROKAREN ETA ZIKLO EKONOMIKOEN DIALEKTIKA

Klase arteko talka bortitzak, gerrak edo iraultzak bezalako fenomeno sozialak modu zientifiko osatu batean ulertzeko, ezinbestekoa da prozesu hauen sorburu materiala gizartea garatzen den azpiegitura ekonomikoan kokatzea. Sistema ekonomiko kapitalistak barnebiltzen dituen oinarrizko kontraesanak bere osotasunean ulertuz, Marx eta Engels gai izan ziren globalizazioa, kapitalaren monopolizazio prozesua, gain-produkzio krisiak, inperialismoa eta, batez ere, burgesiaren eta proletarioaren arteko hil ala biziko borroka aurreikusteko; hori guztia mundu kapitalista oraindik ere bere sehaskan zegoen garaian. Baina materialismo historikoaren metodoa azaltzen zuten heinean, argi utzi zuten behin eta berriz historiaren edozein interpretazio ekonomizista amaitua erabat hutsala eta okerra zela.

Engelsek honakoa idatzi zion gutun batean Paul Ernsti: “Auzia modu materialista batean aztertzeari dagokionean esan behar dut, lehenik eta behin, metodo materialista bere aurka-koan bihurtzen dela ikerkuntza historikoaren printzipioen gidatze hartu beharrean gertaera historikoak bakoitzaren interesen arabera egokitu ahal izateko aurrez diseinaturiko eredu baten ikuspuntutik hartzen bada”.

Sistema kapitalistak dirauen bitartean gorakada ekonomiko garai baten ondoren ezinbestean krisi ekonomikoa etorriko da. Ziklo ekonomiko hauen azterketa beharrezkoa da eszenatoki sozialean eta politikoan ematen diren prozesuen kausa eta efektuak ulertzeko. Trotskyk, “Garapen kapitalistaren kurba” izeneko artikuluan batean, maisutasunez azaldu zuen ziklo ekonomikoen eta klase arteko borrokaren arteko erlazioaren konplexutasuna ulertzeko abiapuntu nagusia. Bertan honakoa azpimarratzen zuen: “Guk ezin dugu ziklo hauek dena azaltzen dutenik esan: hori bazterturik dago sinpleki ziklo hauek ez direlako fenomeno ekonomiko oinarrikoak, eratorriak baizik. (...) Kapitalismoa ez da bereizten aldizkako zikloetarako joeratik bakarrik, bestela historia errepikapen konplexu bat izango litzateke eta ez garapen dinamiko bat. Ziklo komertzial eta industrialak izaera ezberdinekoak dira garai ezberdinetan. Beraien arteko ezberdintasun nagusia aztergai hartzen den ziklo bakoitzeko krisiaren eta gorakadaren arteko erlazio kuantitatiboek zehazten dute. Gorakadak soberakin batekin berriztatzen badu aurreko aldiko suntsiketa edo herstura, orduan garapen kapitalista gorakadan dago. Krisiak, ekoizpen baliabideen suntsiketa edo, edozein modutara ere uzkurdura izanik, intentsitatez gorakada gaintitzen badu, orduan emaitza gisa ekonomiaren uzkurdura bat daukagu. Azkenik, krisia eta gorakada elkarren artean neurritz hurbiltzen badira, aldi baterako ekonomiaren oreka —geldialdi bat— lortzen dugu. Hau da oinarrian eskema.”

Ziklo ekonomiko baten dinamika eta aldi historiko jakin baten izaera aztertzeke orduan, marxismoak ez ditu kontuan hartzen ekoizpenetik eta kapital zirkulaziotik eratortzen diren faktoreak bakarrik. Gizartearen gainegitura osatzen duten faktore politikoek eta ideologikoeke ere garrantzia handia dute, eta handiagoa hartzen dute ekonomian eta historian momentu kritikoak ematen diren garai berezi horietan. “Koiuntura komertzial eta industrialean ematen diren hausturek kontaktu hurbilago bat hartzea baimentzen digute joera politikoan, legegintzaren eta ideologiaren forma guztien garapenaren korapilo kritikoekin”.

Trotskyk planteaturiko ideiak abiapuntutzat hartuz, kapitalismoaren historian ekonomiaren dinamika bere osotasune-

an goranzkoa izateagatik edo beheranzkoa izateagatik bereizten diren aldi zabalak daudela ohartu gaitzke. Neurri handi batean, aldi hauengan eragin erabakigarria edukitzen dutenak ez dira hertsiki ekonomikoak diren fenomenoak izaten. “Garapen kapitalistaren joeren fase luzeei dagokienean (50 urtekoak), (...) beharrezkoa da azpimarratzea beren izaera eta iraupena ez duela ekonomia kapitalistaren barne dinamikak determinatzen, garapen kapitalistaren egitura osatzen duten kanpo baldintzek baizik. Kapitalismoak herrialde eta kontinente berriak eskuratzea, errekurtsio natural berrien aurkikuntza, eta, hauen esnatzean, gerrak eta iraultzak bezalako “gainegiturako” gertaera handiagoek, garapen kapitalistaren gorakada, trabatze eta gainbehera aldien izaera eta ordezkapena erabakitzen dute.”

OINARRIZKO GARAI ALDAKETA BATEN ATARIAN

Bistakoa den bezala, garapen kapitalistako garai bakoitzak, aurrekariren batekin antzekotasun puntuak eduki arren, funtsean ezaugarri ezberdinak aurkezten ditu eta klase arteko erlazioetan eta langile klasearen kontzientzia hartze prozesuan eragin kontraesankorrek eduki ohi ditu. “Boom ekonomikoak erreazioa suposatzen duela” eta “krisi ekonomikoak iraultza ekarri behar duela” dioten ekuazio mekanizistek errealitatearen aberastasuna baldarki sinplifikatzen dute. Krisialdi ekonomikoaren ondorioz automatikoki iraultzak ikustea espero zuenak edo, hain zuzen ere, langile klaseak iraultzak ez egiteagatik krisiaren existentzia ukatzen edo iraultzen aukera behin betiko baztertzen duenak gizartearen garapen historikoa ulertzeko modu enpiristaren ahultasunak erakusten ditu. Mota honetako ideiak eszeptizismoan erortzeko errezeta amaitu bat izan ohi dira eta historia bera arduratu izan da hauen okerrak frogatzeaz.

Gaur egun bizi dugun aldi historikoa ulertzeko nahitaezkoa da aurreko aldiaren funtsezko ezaugarriak aztertzea. Hamarkada honetako aurreko urteak, zifra makro ekonomikoetan behintzat, boom ekonomikokoak izan dira. Irabazi kapitalisten kopuru erraldoietan aurrekariak aurkitzeko gerraosteko

urteetara jo beharko genuke. Hala ere, burgesiaren sektore batzuk mozkorturik zeuden beren irabaziekin eta ez zuten ikusten 50. eta 60. hamarkadetako hazkuntzarekiko bizi zuten funtsezko ezberdintasuna. Irabazi erraldoi hauen benetako jatorria aurreko aldiko “koipeak” ahitzea zen, espekulazio orokortua, enpresa publikoen pribatizatze masiboa, gastu sozialen murrizketa, lanpostuen suntsiketa, soldaten eros ahalmenaren etengabeko galera... Baldintza guzti hauek alde batetik gizartearen polarizazio politiko handiago bat eta klase arteko borrokaren mundu mailako areagotze bat eragin dute (Latino-amerikako iraultzak, Europako eta oraingoz neurri txikiago batean Estatu Batuetako protesten, greben eta langile borroken areagotzea etab.); eta beste aldetik, batez ere espekulazioak eta kredituaren erabilera masiboak, jarraian etorri behar zuen krisi ekonomikoaren izaera geroz eta bortitzagoa izateko baldintzak jarri zituzten.

XXI. mendearen hasierak argi eta garbi aurreko aldiarekin haustura bat markatzen du, zeina estalislismoaren kolapsoaren ondorio ekonomiko eta politikoek gogor baldintzatu zuten. Testuinguru honetan dudarik gabe krisi ekonomikoak langile klasearen kontzientzia hartze prozesua azkartzearen papera jokatu du. Langile klaseak azken aldian porrotik jaso ez izanak, langile gazteen belaunaldi berriaren freskotasunak edo urteetan zehar agintari politiko eta sindikal erreformistek langileen aurkako erasoak babestean galdu duten autoritateak bezalako faktoreek ere paper garrantzitsu bat jokatu dute prozesu honetan.

Trotskyren hitzak berreskuratzuz: “(...) Kapitalismoaren garapen indartsuko garaiek forma biziki ezberdinak eduki behar dituzte —politikan, legeetan, filosofian, poesian— tratatze edo gainbehera ekonomikokoei dagokienez aldean. Are gehiago, mota honetako garai batetik beste ezberdin baterako trantsizioak, ezinbestean dardara handienak sortu behar ditu klaseen arteko eta estatuen arteko erlazioetan. Komiternaren Hirugarren Kongresu Mundialean puntu hau azpimarratu dugu egungo desintegrazio kapitalistaren kontzepzio erabat mekanizistari kontrajarriz. Gorakada ‘normalak’ krisi ‘normalengatiko’ aldizkako ordezkatzek bere isla bizitza sozialaren esfera guztietan aurkitzen badu, orduan hazkuntzako garai oso bate-

tik gainbeherazko beste baterako trantsizioak, edo alderantziz, istilu historiko handienak sortzen ditu, eta ez da frogatzen zaila kasu askotan iraultzak eta gerrak garapen ekonomikoko bi aldien mugatzean zabaltzen direla, esate baterako, kurba kapitalistaren bi segmentu ezberdinen elkarketan. Historia moderno guztia ikuspuntu honetatik aztertzea, benetan materialismo dialektikoaren eginkizun atsegingarrietako bat da.”

SINDIKALGINTZAREN MUGAK

Krisi hau hasi aurretik, burgesia sekulako irabaziak ateratzen ari zen bitartean langileen bizi eta lan baldintzak okerrera egiten zuten eta konkista sozialek etengabeko erasoak jasaten zituzten.

Egungo egoeran, are argiago ikusten da sindikatuen paktu sozialaren jarrerak, desmobilizazioak eta pasibotasunak zein ondorio kaltegarri dakartzan langile klasearentzat. Honegatik azpimarratu behar dugu, atzo bezala gaur ere, langileok beharrezkoa dugula klaseko sindikalgintza borrokalari eta demokratiko bat, langile klasearen borroka iraultzailearen alboan joango dena, eta ez burgesiaren eta Estatuaren alboan.

Sindikalgintzaren oinarrizko funtzioa langileak batzea da eskaintzen dugun merkantzia negoziatzerako orduan enpresariaren aurrean egoera mesedegarriago batean jartzeko. Merkantzia hau gizakion lan indarra da, lan bat garatzeko dugun gaitasun fisiko eta intelektuala. Honen prezioa hainbat elementuk osatzen dute. Ageriena nominan kobratzen dugun soldata da. Baina zeharkako elementuak ere badaude: soldata geroratu (Segurtasun Sozialeko kotizazioak bezala), lan baldintzak (jardunaldia bezala), konkista sozialak (lizentzia ordainduak, jantokiko edo hartzaindegiko zerbitzuak, e. a.).

Bistakoa den bezala, negoziazio kolektiboak indibidualak baino abantaila askoz gehiago eskaintzen ditu, hau da, merkantzia prezio mesedegarriago batean saldu ahal izatea baitmentzen du. Azken finean, sindikalgintza edozein ekoizle taldek beren merkantzia merkatuan kokatzean egiten saiatzen denaren berdina da. Giza lanaren merkantzia, ordea, merkantzia berezia da, aberastasuna sortzeko gaitasuna du (gainbalioa). Baina Marxek ongi azaldu zuen bezala, lan indarraren beste merkantzietan agintzen duten lege berdinak agintzen dute. Zerbaitegatik hitz egiten da hain garbi “lan merkatuaz”.

ESKANTZA ETA ESKARIAREN LEGEA

Ekonomia kapitalistan merkantzia baten prezioa zehazten duen legea eskaintza eta eskariaren legea da. Eskaintza handia bada eta eskaria baxua merkantziaren prezioak beheranzko joera hartzen du; eskaintza baxua bada eta eskaria handia, prezioak igotzera jotzen du. Lege hau lan indarrari ere berdin aplikatzen zaio. Boomeko garaietan —enpresetan lana dagoe-lako eta eskulana behar dutelako langabezia jaitsi egiten denean— soldatek igotzeko joera hartzen dute, eta atzeraldi ekonomikoko garaietan —enpresetan lanpostu murrizketak egiten direnean eta langabezia hazten denean— soldatak jaistera jotzen dute. Beste modu batean esanda: egoera ekonomikoak objektiboki baldintzatzen du soldatapeko lanak eta kapitalak gainbalioaren banaketagatik duten borroka.

Langabezia tasa borroka hau baldintzatzen duen faktore garrantzitsuenetako bat da. Marxek ongi deskribatu zituen bezala, langabetuak azken finean “kapitalaren erreserbako ejertzittoa” dira. Zentzu honetan, egungo errealitatea oso larria da. Estatutu mailan 4 milioi langabeturen zifra gainditzea eta Euskal Herrian 160.000ra ailegatu izana benetako drama da bai lanpostua galdu dutenentzat bai lanean jarraitzen dutenentzat ere. Baina erreserbako ejertzito klasikoaz gain, kapitalistak orain beste ejertzito globalago batekin kontatzen du, bi fenomeno berriren bidez: batetik migrazio masiboa eta bestetik enpresen deslokalizazioa. Burgesiak ejertzito hau joko bikoitz batekin erabiltzen du, mehatxuen bidez lan baldintza orokorrak geroz eta prekarioagoak bihurtzen dituen bitartean langile klasearen barnean aurreiritzi xenofoboak zabaltzen eta zatiketa bultzatzen du, beste herrialdetako langileei egotziz (migratzaileak izan edo ez) jaioterriko langileen lan baldintzak okertzearen errua, erantzukizun osoa eta bakarra klase burgesarena denean.

Ekonomiaren atzeraldi sakon baten testuinguruak borroka sindikala ikaragarri gogortzen du eta sindikalgintzaren mugak ageriago uzten ditu. Kapitalismoak langile klaseari ez dio inoiz ezer oparitu, irabazi dena gogor borrokatuta izan da. Baina garai batzuetan kapitalismoaren markoaren barnean soldata igoerak, lanordu jaitsiera, baldintzen hobetzea... negoziatzea posible den bezala, beste garai batzuetan lanpostuak

mantentzeko edo hilabeteko soldata kobratzeko ezinbestekoa da jabetza erlazio kapitalistak desafiatzea eta burgesa desjabetzea. Sindikalgintzak muga hauek gainditzeko garrantzitsua da borrokak zabaltzea, langile klasea bere osotasunean inplikatzeko (honela kapitalisten gainean egiten den presioa handitzeko) eta, batez ere, langileen borrokaren izaera politikoa garatzea.

ARAZOA KAPITALISMOA DA

Marxismoak azaltzen duen moduan, sistema kapitalistak berez sortzen du langile klasearen eta burgesiaren arteko kontraesana. Batzuetan, kontraesan hau erlatiboan izaten da, hau da, klase ezberdintasunak handitu egin daitezke, baina langileek beren egoera materiala hobetzen ikusten dute. Honen adibide argi bat Bigarren Mundu Gerra osteko boom ekonomikoa izan zen, ongizate estatua sustatu zuena. Baina beste batzuetan, kontraesan hau erabatekoa bihurtzen da, enpresariak ezin dituzte beren irabazi tasak mantendu langile klasearen bizi eta lan baldintzak okertuz ez bada. Orain honelako egoera batean gaude eta ezinezkoa da kapitalismoaren efektuen aurka borrokatzea, langile klasearen interesen aldeko borroka ez bada sistemaren aurkako borrokari lotzen.

Kapitalaren boterea mugatzen saiatzea ez da alternatiba bat. Langileok ezin dugu saldu nahi diguten “kapitalismo gizatiarraren” tranpan erori. Kapitalismoa noizbait gizatiarra izan bazen hori mendebaldeko herrialdeetan bakarrik izan zen, hirugarren munduko herrialdeen kontura, eta hau jada itzuliko ez den iragan bat da, batez ere kapitalistak beraiek izan direlako sistematikoki langile mugimenduak lortutako konkistak erasotzen joan direnak. Iragan hau berreraikitzen saiatzea ikuspegi atzerakoi bat da. Langileen benetako aspirazioa kapitalismoarekin behin betiko amaitzea da.

LANGILE MUGIMENDUAREN AUKERA

Mugimendu sindikalak bi aukera ditu: burgesiarekin kolaboratzea edo gizartearen eraldaketa sozialistaren alde egitea.

Lehenengo aukera egitearen ondorioak ez dute komentario gehiegi merezi, zoritxarrez sobera ezagunak dira.

Bigarren aukera hau planteatzen denean, ordea, segituan hasten da sindikatuen independentzia politikoa aldarrikatzen duen abesbatza oihuka. Ados gaude. Baina esan beharra dugu, lehenik eta behin sindikatuak independenteak izan behar badute hori etsaiarengandik dela (kapitalistak eta Estatu burgesa), eta honetarako beharrezkoa dela langile klasearen interes orokorren defentsa nekaezin bat egiteko programa, estrategia eta taktika argi bat. Horrela ez bada, azken ondorio praktikoa —gustatu ala ez, kontziente izan ala ez, nahi ala ez— burgesiari jokia egitea izaten da.

Sindikatuaren neutraltasun politikoaren diskurtsoa burgesiak langile klasearengan duen influentziaren isla da. Burgesiari buruzagi sindikalek babes politiko zuzena ematea gustatuko litzaioke, baina hori ezinezkoa dela badakienez, gutxienez ezkerreko babes ez dezaten saiatzen da. Azken finean, hau status quo-a mantentzeko amarrua da. Sindikatu batek ezkerreko erreferente ideologikoa galtzen duenean klase arrotzen influentzia ideologikoa jausten da. Ez da kasualitatea sindikatuen independentzia sutsuen defendatzen duten buruzagi sindikalak kontsensuaren eta paktu sozialaren defendatzaile handienak izatea. CCOOen historiaren analisiak, esate baterako, erabat baieztatzen du azterketa hau.

SINDIKALGINTZA IRAULTZAILE BATEN ALDE

Sindikatuak ezin dute politikoki neutralak izan, batez ere bi arrazoiengatik: 1) beren erabakiak ezinbestean efektu politikoak dituztelako (lan erreforma bat sinatzea edo ez, greba orokor bat deitzea edo ez, e. a.), eta hau horrela izanik logikoena eragin horiek kontzienteki aztertzea delako; eta 2) krisi sakoneko garaietan azkenean borroka ekonomikoak langile klase osoa klase burges osoaren aurkako borroka izaten amaitzen dutelako, hau da, boterearengatiko borroka politiko goren.

Sindikalgintzak, benetako klaseko sindikalgintza borrokari bat izan dadin, nahitaezkoa du eraldaketa sozialaren aldeko programa bat hartzea, hau da, sindikalgintzaren barne-

an sozialismoaren aldeko borroka inskribatzea. Are gehiago, interes ekonomiko hutsei begiratuta ere askoz eraginkorragoa da burgesiari dena galtzeko arriskuan dagoela ziurtatzea honen kontzesioak egin ditzan. Rosa Luxemburgok bere Erreforma eta Iraultza liburuan ongi azaltzen duen bezala, erreforma sozialak beti izan dira langile klasearen borroka iraultzaileen azpiproduktu bat.

Hau horrela izan dadin, zuzendari sindikalek printzipio argi eta sendoekin jardun eta pentsatu behar dute. Aurreko hamarkadetan sindikatu eta langile alderdi gehienek sozialismoaren eta marxismo iraultzailearen ideiak erabat baztertu zituzten kapitalismoaren momentuko lorpenez eta sobietar batasunaren erorketaz liluraturik. Honi buelta eman behar diogu. Ezinbestekoa dugu ideia hauek berreskuratzea, eguneratzea eta gizarte sozialista baten aldeko programa iraultzailea langile erakundeen banderan ezartzea. Aukera paregabe bat daukagu behin betiko sistema honekin amaitzeko. Elkarrik lortuko dugu.

MATERIALISMO HISTORIKOA

Teoria marxistaren oinarri nagusietako bat, ezbairik gabe, historiaren ulermen materialista da. Gizakiak bere lehen urratsetatik gaurdaino egin duen ibilbideaz lortu dugun jakintza izugarri zabala den arren, hau erabat antzua bihurtzen da historialari eta filosofo idealisten eta sentimentalisten erretorika pisutsuan erortzean. Langile mugimenduentzat historiaren azterketak xede praktikoagoa hartzen du, materialismo historikoa bereziki baliogarria izan zaio bere borrokaren ikuspegia zabaltzeko, honen helburuak zehazteko eta irakasgai baliotsuak ateratzeko.

GIZARTE OROREN HISTORIA, KLASE ARTEKO BORROKAREN HISTORIA DA

Esaldi honekin hasten da manifestu komunistaren lehen kapitulua. Baina nola eta zergatik sortzen dira gizarte batean klase sozialak? Zergatik borrokatzen dute elkarren artean? Galdera hauen erantzunean idealismoa eta materialismoa aurkako norabidean bereizten dira. Engelsek berak ezin hobe deskribatzen du jarrera bataren zein bestearen ezberdintasuna sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora laneko pasarte batean: “Historiaren kontzepzio materialista ordena sozial orren oinarria ekoizpena, eta honen ondoren, bere produktuen banaketa denaren tesitik abiatzen da; historiatic desfilatzen duten gizarte guztietan produktuen banaketa, eta honekin batera, gizakien klaseetako edo estamentuetako banaketa soziala, gizarteak ekoizten duena eta nola ekoizten duenagatik eta bere produktuak aldatzeko moduagatik determinaturik dago. Horren arabera, aldaketa sozial guztien eta iraultza politiko guztien azken kausak ez dira gizakien buruetan bilatu behar ezta eurek betiereko egiaren edo betiereko justiziaren inguruan duten ideietan ere, ekoizpen eta banaketa moduan gerta turiko eraldaketetan baizik”.

Materialismo historikoaren tesi nagusiaren arabera garapen historikoaren erro nagusia, azken instantzian, ekoizpen

indarren garapena da. Gizakia lehen garaietatik hasi zen bere bizi beharrak asetzeko baliabideak ekoizten, hau da, lanabesak eta tresnak lantzen eta biziraupenerako ezinbestekoa duen talde lana antolatzen. Lanaren bidez bere bizi baliabideak ekoiztean, naturaren inguruko ezagutza eta kontrol geroz eta handiagoa eskuratzen du eta lana taldean antolatzean elkarren arteko komunikazioa eta lanaren planifikazioa garatzen hasten da. Pixkanaka bere burua animalietatik bereizita ikusten hasten da.

Antolakuntza sozioekonomiko baten bideragarritasuna bizitza erreala produzitzeko eta erreproduzitzeko duen ahalmenean datza. Historian zehar hainbat ekoizpen eta banaketa modu ezberdin ezagutu izan dira. Hauetan emandako aldaketa sakon bakoitza antolakuntza modu zaharraren estankamendu eta gainbehera batetik etorri da eta krisi hau modu ezberdinetan klase arteko borrokaren bidez espresatu izan da, batzuetan forma politiko eta erlijioso konplexuak hartuz, baina gorabeherak gorabehera, beti klase dominatzaile zaharra boteretik kenduaz eta erlazio sozialetan iraultza bat emanaz amaitu izan da, honela garapen etapa berri bati pauso emanaz.

Gizateriaren lehen fase luzea komunismo primitiboa izan zen. Bertan ez ziren klase sozialak existitzen ezta jabetza pribatua eta Estatua ere. Gure arbasoak beren beharren gaintetik soberakin bat ekoizten hasi zirenean, honen jabetzea dela eta ezberdintasun sozialak sortu ziren, lurraren jabetza pribatuari pauso emanez. Jabetza honek ezinbestean geroz eta esku gutxiagotan kontzentratzeko joera izan du historian zehar, ezberdintasun sozialak handituz eta gizartea interes etsaiak zituzten klase ezberdinetan are gehiago zatituz. Aurreko artikuluan batzuetan azaldu dugun moduan testuinguru honetan sortu zen Estatua, klase dominatzailearen pribilegioak babestu eta status quoa mantentzeko indar publiko moduan.

Klase sozialen sorrerak, ordea, gizateriaren garapenean beharrezkoa zen elementu iraultzaile bat ekarri zuen berarekin: herritarren zati pribilegiatu bat bere bizi beharrak asetzeko lanetik askatua izan zen asti librea lortuz, eta honela, zientzia, teknika, kultura eta artea garatzea baimendu zuen. Hala ere, hau egintza aurrerakoi bat izan arren, kontuan hartu behar dugu jakintza hauek guztiak klase dominatzailearen monopo-

lio izan direla gizaldietan zehar gaur egundaino. Garai bakoitze-ko ideologia nagusia klase menderatzailearen ideologia izaten da. Gisa honetan, gizartearen ekoizpen eta banaketa modua da garai horretako filosofiaren, erlijioaren, zientziaren, artearen, e. a.en oinarri material bakarra, nahiz eta azpiegiturak gizartearen gainegitura esparruetan duen eragin hau ez den simplea eta mekanikoa, dialektikoa baizik. Trotskyk zioen moduan “ideiak ez dira zerutik erortzen”. Azken instantzian, gizarte batean sortzen diren ideologia ezberdinek eta beren arteko gatazkek klase ezberdinen aspirazio materialei erantzuten die. Klase arteko borroka, gizartearen antolakuntza sozioekonomikotik eratortzen dena, historia lotzen duen lokomotora da.

SOZIALISMOAREN OINARRI OBJEKTIBOAK

Marxismoak ez du zerikusirik “gizakiaren berezko maltzurkeriaz eta berekoikeriaz” hitz egiten duten doktrina pesimista eta irrealekin, ezta egungo kapitalismoaren gainbeheraren aurrean garai zaharrak goستن dituztenekin ere. Materialismo dialektikoaren arabera historian zehar ekoizpen baliabide eta moduetan eman diren aurrerapenek sozialismoa gauzagarria egiten duten nahitaezko oinarri materiala osatzen dute.

Neurri batean gizarte sozialista bat komunismo primitiborako itzulera bat da, baina ekoizpen maila izugarri handiago batean. Klaserik gabeko gizarte bat existitu dadin ezinbesteko aurrebaldintza dira ondasunen gabezia, ezberdintasun sozialak eta biziraupenerako borroka indibiduala erabat desagertzea. Horrenbestez, sozialismoak beharrezkoa du ekoizpen indarren garapen maila gizarte horretako kide guztien beharrak erraz asetzeko adinakoa izatea.

Gizarte kapitalistatik gizarte komunista batera pasatzeak aurreko gizartea baino maila produktibo handiago bat eskatzen du. Marxen hitzetan: “(komunismoan) Ekoizpen indarren garapen honek premisa praktiko beharrezko bat ere osatzen du, bera gabe eskasia orokortuko bailitzateke eta beraz, pobrezia-ekin batera, berriro nahitaezkoagatik borroka hasiko bailitzateke eta ezinbestean aurreko ankerkeria guztian eroriko.”

Honela, beraz, Marx eta Engels ez ziren sozialista utopikoak, ez zuten sozialismoa auzi moral bat bezala ikusten, gizartearen garapenean erroturiko pauso bat bezala baizik. Gizakia-
ren berezko berekoikeriaren edo borondate onaren eztabaidek ez dute zentzurik, ez baita oraindik existitu eta ez baita existituko garai historiko jakin batetik, gizarte antolamendu batean bizitzetik eta bertan posizio bat edukitzetik askatua izan den gizaki metafisikorik. Historiaren ikuspegi zabal eta materialistak lagin erabat ezberdina utzi digu.

Marxismoaren ikuspuntutik kapitalismoak etapa aurrerakoi bat suposatu du gizartearentzat, gizateriaren historia guztian ekoizpen indarretan, garraioabideetan, teknologian, e. a.tan inoiz eman den aurrerakada handiena eragin baitu. Baina kapitalismoaren paper aurrerakoi hau bere aurkakoa bihurtu zen aspaldian, planetaren biziraupen fisikoa bera arriskuan jarritz. Burgesiaren klase interesa ez da ekoizpen baliabide hauek garatzea, suntsitzea baizik. Lantegiak ixtea interesatzen zaio, langabezia izurri bat balitz bezala zabaltzea, gerrak bultzatzea eta krisi guzti hau langileen bizkarrengan ordaintzea. Globalizazioaren fenomenoak, bere baitan egintza aurrerakoia dena, erabat desitxuratua agertzen da erlazio kapitalistetan, toki guztietara barreiatzen dena burgesiaren eta sistema kapitalistaren dekadentzia baita, kultura batzuk besteen menderatzailer bilakatzen baitira.

Ekoizpen baliabideen jabetza pribatua eta Estatu nazionala giza garapenaren aurka matxinatzen dira kapitalismoan eta soilik proletalgora da hauek suntsitzeko gai, burgesia desjabetuz eta gizartearen boterea bere eskuetan hartuz. Ekoizpena planifikatuaz, proletalgora gai da berau irabazi maximoaren eta errentagarritasun azkarraren irrikatik askatzeko eta aldi berean, ingurugiroarekin erabateko armonia lortu eta hala ere lanaren ekoizpen gaitasuna maila altuagoetara igotzeko; gai da pertsona bakoitzaren eguneko lanordua erdira eta laurdenera jaisteko, honela langileak bere asti librea gizartearen antolakuntzan, kulturaren, zientziaren eta artearen garapenean inbertitu ahal izango dutelarik.

Oinarri material honen gainean kapitalismoak utzi duen herentzia kulturalaren ustelkeriak ere desagertu egingo dira. Berekoikeriak, lapurretak, matxismoak eta kapitalismoak in-

dartzen dituen gaitz kultural guztiek beren existitzeko arrazoia galduko dute, oparotasuna zabalduko da alde guztietan eta belaunaldi berriek gizateriaren ortzemuga maila imajinezinetara igo ahal izango dute.

MATERIALISMO HISTORIKOA ETA EKONOMIA POLITIKOA I

Gizakiek beren bizi baliabide naturalak lortzeko gizartean ekoizpen erlazio batzuk ezartzen dituzte. Erlazio hauek beharrezkoak zaizkie eta ez dira beren borondatearen arabekoak, ekoizpen indar materialen garapen maila jakin baten arabekoak baizik. Erlazio hauen osotasunak gizarteko azpiegitura ekonomikoa eratzen dute eta oinarri honen gainean altxatzen da gainegitura juridikoa eta politikoa.

“Bizitza materialaren ekoizpen moduak orokorrean bizitza sozial, politiko eta izpirituala baldintzatzen du. Ez da gizakiaren kontzientzia bere izatea determinatzen duena, alderantziz baizik, izate soziala da bere kontzientzia determinatzen duena.” (K. Marx, Ekonomia Politikoaren Kritika-ri eginiko Ekarpeneren Hitzaurrea).

Hitz hauekin laburtzen du Marxek materialismo historikorearen oinarriak planteamendu filosofikoa. Engelsen, Leninen, Trotskyren eta gaur egungo hainbat autoreren lanetan gizateriaren garapen historikorearen azterketa sakonak egin izan dira oinarri honetatik abiatuta. Lan zabalak daude ekoizpen modu primitiboen, antzin aroaren, feudalismoaren eta kapitalismoaren egitura ekonomikoen garapena aztertzeraz eta hemendik abiatuta garai hartako pentsamolde soziala azaltzeraz bideratuak.

Beste aldean ordea, hainbat filosofok gizateriaren garapenerari (edo, batzuen arabera, “gainbeherari”) azalpen idealista bat eman nahirik, batzuek historia justiziaren, elkarlanaren eta duintasunaren ideiek mugitu dutela diote eta besteek bereizkeria, botere nahia eta diru gosea gizakiaren berezko bereizgarri izan direla eta izango direla. Hauen ustez gainegitura ideologikoa izaten da azpiegitura ekonomikoa moldeatzen duena eta gizakiak berezkoak dituen ideia edo joera batzuen arabera jokatzen du. Teoria idealista hauei pisua ematearren, sasi-zientzialari batzuek joera hauek gizakion geneetan dau-

dela frogatzen saiatu izan dira, jaiotzetik biologikoki determinaturik bageunde bezala, eta bide batez, esan behar da, ez dutela arrakastarik eduki.

Marxek hau baieztatzen du: “Norbanako bat bere buruaz pentsatzen duenagatik epaitu ezin dugun bezala, ezin ditugu eraldaketa garai hauek bere kontzientziagatik epaitu, alderantziz baizik, kontzientzia hau bizitza materialeko kontraesanengatik, ekoizpen indar sozialen eta ekoizpen erlazioen arteko gatazkagatik, azaldu behar da”. (Ibid.)

LEHENENGO NEKAZAL EKONOMIAK ETA ANTZIN AROA

Komunismo primitiboa deituriko garaian giza taldeak orokorrean ibiltariak ziren eta batez ere ehizatik eta fruituak biltzetik bizi ziren. Bizi baliabideak eskuratzeko modu honek ez zuen klase sozialak sortzen uzten, naturatik behar zuten adina hartu eta hau denen artean banatzen baitzuten. Gizakia ordea, urteetan zehar naturaren inguruan ezagutza gero eta handiagoa hartuz joan zen eta hau bere bizi baliabideak lortzeko kontrolatzen hasi zen. Hainbat gertaeren ondorioz, gizaterian iraultza neolitikoa gauzatu zen. Gizarte hauek sedentario izatera pasa ziren, ibai hertzetako lur emankorretan finkatu ziren, eta lehen aldiz nekazaritza, abeltzaintza eta eskulanetako ofizioak garatzen hasi ziren.

Ekonomiaren oinarri nagusia nekazaritza bihurtu zen. Hegemonia honen ondoan gerora merkataritza eta artisautza garatu baziren ere, kapitalismoa etorri arte ez zuten lortu landako ekonomiari nagusitasuna kentzea. Lurra lantzean oinarritutako ekoizpen modu honek gizartean lehen aldiz klaseak eratzeko baldintzak sortu zituen. Alde batetik lur batzuk emankorragoak izaten dira eta beste batzuk aldiz uzta txarragoak ematen dituzte. Honek lurrगतिको borroka sortzen du, bai tribuen artean eta baita lurraren jabetza finkatzean tribuan bertako kideen artean ere. Giza hezurduren azterketek, modu fidagarri batean erakusten dute, neolitoko giza hezurdurek gizakien arteko guden eta borroken ondorioz eginiko zaurien aztarnak dituztela besoetan e. a., eta paleolitoko hezurdurek berriz ez dutela honelako zantzurik erakusten. Lur hoberenez

jabetzeak noski, botere ekonomiko handiagoa ematen du, ondasun soberakinak sortzen dira eta produktu soberakinak beste tribuetako produktu batzuekin, eskulan artisauekin... trukatatu daitezke. Honela, pixkanaka merkataritza bide ezberdinak garatu ziren eta noski, bide hauetatik gertuen zeuden nekazariak orokorrean botere handiagoa eskuratu zuten.

Aldi berean, ekoizpen teknikaren perfektzionamenduak taldearen ondasunetan soberakin bat ekoiztera eramane zuten. Produktuak soberan geratzen hastean, tribuko gizabanako batzuk soberakin hauen jabe egiten hasi ziren modu indibidual batean. Baina nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena gorantz zihoan heinean, eta oraindik ekoizpen handiagoa lortzeko aukera ematen zuten bitartean, ez zen modu berean hazten hau ekoizteko ezinbestekoa zen eskulana. Lurra lantzeko langileak soldata baten truke kontratatzea oraindik orokorrean ezinezkoa zen, alde batetik lurra lantzeko lanabesak ez ziren garestiegiak edozein familiak lortzeko, eta bestetik organo ekonomiko nagusia familia bihurtu zen. Etxe bat nahikoa zen behar zuen produktuen gehiengoa ekoizteko eta familiak oso itxiak bihurtu ziren. Honela, falta zen lan hau gerren bidez preso hartzen zituzten pertsonak esklabo bihurtuz lortzen hasi ziren. Oraindik eskulan hau falta ez zenean, oraindik ere tribuko kideak nahikoa zirenean zituzten ekoizpen baliabideak ahal zuten gehien esplotatzeko, tribuen arteko gerretan hartzen ziren presoak jan egiten zituzten, hauek ez baitzuten esklaboetarako ere balio.

Lurraren jabetzak etengabe zentralizatorako joera zuen. Geroz eta lurjabe gutxiagok geroz eta sail handiagoak eta aberastasun handiagoak biltzen zituzten eta lurjabe txikiak geroz eta pobregoak bihurtzen ziren. Prozesu hau hainbat faktorek azkartu egin zuten: komertzioaren garapena, etxalde handiek lan esklaboa erabiltzea, lurjabe handiak lan produktibotik askatzean Estatu bat eratzen eta kontrolatzen hastea... Faktore hauek aldi berean lurraren jabetzaren kontzentrazioaren ondorio eta kausa bezala jokatzen zuten, lurjabe handiak gizarteko erlazio ekonomikoen erdigune bihurtuz. Prozesu hau lurralde ezberdinetan eta garai ezberdinetan eman zen, noski tokian tokiko berezitasunekin, baina bere puntu gorena antzin aroan Erromako inperioa izan zen.

ERROMAKO INPERIOAREN GAINBEHERA

Antzin aroa aztertzean, garapen ekonomikoko prozesu ezberdinetan berezia da ohartzea, nolabait merkantzien ekonomia kapitalismora ailegatzeko mugara iristen zela baina inoiz ezin zutela muga hau pasa, hau da, merkantzien ekoizpena ez zela inoiz ekonomiaren ardatz nagusi bihurtu.

Kontuan hartu behar da antzin aroko ekonomia finkatzen zen oinarria nekazal gunetako lan esklaboak zela. Honek hainbat traba ezartzen zizkion ekonomiari zentzu kapitalista batean garatu zedin. Alde batetik, garapen teknologikoa ez zen interesatzen, esklaboek, normala den bezala, ahal zuten guztietan lan tresnak eta animaliak gaizki tratatzen baitzituzten, beraiek ere lan instrumentum bezala tratatuak zirenez. Jabe-ei tresna astun eta gogorrek interesatzen zitzaizkien. Bitxia dirudien arren, Alexandriako greziarrek lurrun makina bat asmatu zuten, baina ez zitzaien bururatu hau ekoizpenean erabiltzea, ekoizpenean sartutako berrikuntza teknologikoez ez baitzuten zentzurik. Esklaboek lana errentagarria izateko bidea esklaboak merkeak izatea zen eta hau gerren bidez bakarrik zen posible.

Erroman lurjabe handiei gerra interesatzen zitzaien heinean, esklabo gabeko lurjabe txikiei inolaz ere ez, esklaboek ez baitzuten zerbitzu militarrik egiten eta orduan nekazari txikiak, gudara joatea behartuak, hondoratu egiten ziren lurra lantzeko esku faltagatik, Estatuaren zergengatik edo errentarengatik. Nekazari hauei ez zitzaien lapurretan ibiltzea edo hirian eskale moduan jartzea beste erremediorik geratzen.

Lurjabeek eta mehatzeen jabeek ez zuten irabazien zati bat enpresa hobetzen inbertitzeko beharrik sentitzen kapitalista modernoek bezala, ez zitzaizkion aurrerapenak interesatzen ez zegoelako konpetentziaren presiopean. Aberastasunak zertan gastatu ez zekitenez, eta gerora esklaboak lehen beraiek egiten zuten lan intelektualean eta administrazioan ere txertatzen hasi zirenez, Erromako klase aberatsak ikaragarritzko degenerazio prozesu batean sartu ziren, asti librea pasatzeko jarduera higuigarri eta arraroenak egitera iritsi ziren.

Klase honek geroz eta botere gehiago lortzen zuen heinean, geroz eta gehiago itotzen zuen ekonomia, ez zion garatzen uz-

ten. Artisauak berriz, oso ahulak ziren eta miseriazko bizimodu bat ematen zuten. Nekazal ekonomiak urtaro batzuetan lan askoz gutxiago duenez, esklaboak neguan lurra lantzeari utzi eta mota guztietako merkantziak edo lan publikoak egiten jartzen zituzten. Artisaua izateko baldintza gutxik zuten abilezia bat edukitzearena zen eta askotan artisau hau ez zen lan egiten zuen tresnen jabe ere. Ekonomikoki gizartearentzat alferreko bihurtu ziren eta lunpenizazio prozesu batean sartu ziren, eskale bizitza eramaten zutelarik.

Erromako inperioa mendeetako gainbehera prozesu luze batean sartu zen. Ekonomiak esklaboak lortzeko etengabeko gerra eskatzen zuen, baina inperioa zabaltzen zen heinean armada murritzu egiten zen nekazariak pobretzearen ondorioz. Armada eusteko mertzenarioak erabiltzen hasi ziren eta honek armada barneko sabotaje barbaroa ikaragarri hazi zen. Karga militarrek Estatuak bere burua mantendu ezin izatera eramaten zuen eta zergen eta zentralizazioaren aurkako jarrera zabaldu egin zen lurjabe handien artean ere. Honela krisi honen azken txanpan feudalismoaren ezaugarriak agertu ziren, jauntxoak eta kolono-jopuak sortu ziren. Erromako inperioak sistema kapitalistari bide ematea ezinezkoa zen, azken finean ekoizpen baliabideen garapen urriak eta ekoizpen erlazioek honi ezartzen zizkioten trabek ezinezko egiten baitzuten klase merkatari eta industrial bat gizarteko klase nagusi bilakatzea. Gainbehera eta feudalismoa izan zen azkenean inperio honen irtenbide bakarra.

MATERIALISMO HISTORIKOA ETA EKONOMIA POLITIKOA II

Erromako inperioaren gainbehera mendeetan zehar luzatu zen prozesua izan zen, azkenean batez ere bere kontraesanen pisuagatik erori zen arte. Lurjabeen klase dominatzaileak etengabeko gerra behar zuen esklaboak lortzeko, baina aldi berean, inperioaren zabaltzeak bere burua galbidera zeraman, Estatuak ezin baitzien eutsi geroz eta handiagoak zitzaizkion barne kontraesanei. Azken urteetan inperioaren barrenetan sistema feudala hazten hasi zen eta jauntxo barbaroez gain, inperio barneko jauntxoak ere Estatu ustelduaren aurka matxinatu ziren eta Europa guztia feudo txikietan zatitua geratu zen.

FEUDALISMOTIK KAPTALISMORAKO BIDEA

Erdi Aroa sarritan aro ilun bat bezala deskribatu izan da, oskurantismo erlijiosoak gobernatu zuen garai beltz bat bezala. Europan, kristautasunak erlijio batek inoiz hartu zuena baino indar gehiago hartu zuen. Bizitza sozialaren ardatz bihurtu zen: zuzenbide publiko nahiz pribatu guztiaren oinarria zen; Jainkoaren nahi sakratuaren gauzatzearen bidez legitimatzen ziren aristokrataren boterea, gizartearen estamentuetako banaketa eta jopuen zapalkuntza miserablea; Elizak gizarteko pentsamendu ideologikoaren, kulturaren, artearen, filosofiaren, etab.en monopolio eztabaidaezina hartu zuen. Lehen begirada batean, badirudi Erdi Aroan gizartearen antolakuntza ekonomiko, sozial eta politiko guztia kristautasunera moldatu zela. Baina egia esan, alderantziz gertatzen zen, erlijio kristaua izaten zen gizartearen azpiegitura ekonomikora moldatzen zena.

Ziurrenik erlijioa izango da gizarte bateko bizitza materialetik urrunen dagoela ematen duen gainegiturako eremua. Batzuek azpiegitura ekonomikotik erabat independentea dela eta gainera azpiegitura hau determinatzen duela baieztatzen dute. Baina erlijioaren ideologiak ere, nahiz eta honek onartu ez, gizarteko erlazio ekonomikoetan du azken finean bere ga-

rapenaren oinarria. Kristautasunaren jatorria Erromako inperioan hasi zen eta 250 urteko borroka eman zuen Estatuko erlijio bihurtu arte. Konstantino I enperadoreak, ezin zuenez hasierako kristau iraultzaileekin errepresioaren bidez amaitu, geratu zitzaion bide bakarra hartu zuen: gotzainen buruzagitzaren erostea, erlijio hura kutsu iraultzaile orotatik garbitzea eta kristautasuna inperioko klase dominatzailearen interesetara egokitzea. Helburu hori bete zuen 325. urtean Nizeako kontzilioak.

Kristautasunak, inperioaren erorketari biziraun ez ezik, honetatik indarturik irtetea lortu zuen. Modu oso eraginkor batean egokitu zen Estatu autokratikoaren menderatze materialaren nahiz izpiritualaren beharretara. Erdi Aroan Vatikanoko sekulako boterea eskuratu zuen eta aristokraziaren eta kleroaren arteko aliantzaren gidari ideologiko eztabaida ezina izan zen. Hala ere, aro honetan nagusitu zen pentsaera kontserbadorea dela eta, feudalismoan aldaketarik ez zela gertatzen ematen bazuten ere, errealitatean ez zen horrela gertatzen. Argi utzi behar da historiaren bideak ez dakiela geldirik egotea zer den.

Naturan bezala historian ere, batzuetan aldaketa prozesuak bortizki eta erabat agerian gertatzen dira, baina beste aldi batzuetan, ezkutuan eta isilean, pixkana metatuz joaten dira, gero bat-batean bortizki azalera irteteko. Honakoa da mugimendu dialektikoaren izaera eta, azken finean, bi prozesuak txanpon beraren bi aurpegi bihurtzen dira.

Klase arteko gizarte zaharrak, ekoizpen moduetan sortzen zaizkion aldaketak direla medio, bera ehortziko duen klase berria sortzen du. Erdi Aroan, ekoizpen indarren garapen ezberdinek merkataritzaren garapena eta hirien sorrera bultzatu zuten. Landako jopuetatik lehen hiritar askeak sortu ziren, eta honekin artisauen gremioak. Aldi berean, lurraren eta hainbat interesen borroka etengabe gerrak pizten zituen aristokrata ezberdinen artean. Honek geroz eta erreinu handiagoak eta Estatu autokratiko indartsuagoak eratzea bultzatzen zuen. Bestalde, Ameriketako kolonizazioak, Afrikaren zirkunabegazioak, Indiako eta Txinako merkatuak, merkataritzarako baliabideak, garraio bideak eta trukea garatu eta biderkatu egin zituzten. Eskaria hazi eta hazi ari zen. Honela, gremioetako artisauek lehenik manufakturara pasa ziren, eta gero batzuk in-

dustria handiko jabe burgesak bihurtu ziren, lurrinak eta makinak ekoizpenean eduki zuten aplikazio iraultzaileari esker.

Ekoizpen moduetan eman ziren aldaketa iraultzaile hauek ezinbestean beren isla eduki behar zuten gizartearen gainegituran. Aldaketa hauen azken xedea burgesiak botere politikoa konkistatzea izango bazen ere, hau gertatu aurretik hasierako kapital metaketak beste eragin batzuk eduki zituen, besteak beste berpizkunde garaian filosofian, artean, zientzian eta teologian. Erlijioan esate baterako, kasurik esanguratsuenetako bat lukurreriarena da (dirua interesen truke maileguan uztea). Eliza katolikoak galarazi egin zuen lukurreria, modu bizkarroi horretan bizimodua ateratzea lapurreta eta bekatua zela aldarrikatuz. Interesak kobratzea eskumatzearen zigorpean zegoen. Baina XVIII. mendean industriaren eta bankaren garapenak ezinbesteko egin zuten dogma hau deuseztatzea. Honela, 1745ean Benedicto XIV. aita santuak “kontratuan zor dena baino kantitate handiago bat eskatzeko arrazoi erabat justuak eta legitimoak daudela” baieztatzen zuen. Gaur egun berriz, Vatikanoa mundu mailako banku handienetako baten jabe dugu.

Tradizio kristauan are haustura erradikalago bat suposatu zuen XVI. mendeko erreforma protestanteak, batez ere Luteroen eskutik Alemanian eta Calvinoren eskutik Frantzian gauratu zena. Protestantismoak lotura zuzena hartu zuen kapitalismoarekin. Prediku erlijioso protestanteak, batez ere Calvinistak, metatze kapitalista primitiboak behar zuen bizimodua bultzatzen zuen. Honen arabera, lurreko biziaren helburua langile fina, sakrifikatua, aurreztailea, diziplina zorrotzekoa eta arrakastatsua izatea zen, hau baitzen Jainkoaren onesperean lortu eta zeruan sartzeko bide bakarra. Protestanteek lanbide intelektual teknikoak eta ekonomikoak hautatzen zituzten eta kapitalaren inguruan biltzeko joera hartu zuten. Engelsek honela laburtzen du prozesu hau guztia: “Erdi Aroan, feudalismoa garatzen zen neurrian, kristautasunak erregimen honetara eta zegokion hierarkia feudalera egokituriko erlijio baten forma hartzen zuen. Eta dirudienez, burgesia, katolizismo feudalaren aurka eta heresia protestantearekin garatu zen, bere jatorriak Frantziaren hegoaldean zituela albitarrekin, eskualde hartako hirien garapenarekin bat eginez. Erdi

aroak, teologiara lotu zituen, bere apendizet bihurtu zituen, beste forma ideologiko guztiak: filosofia, politika, zuzenbidea. Honenkin, mugimendu sozial eta politiko orori forma teologiko bat hartzera behartzen ziren; masen izpirituei, erlijioz bakarrik elikatuturik egonik, ez zegoen beren interesak arropa erlijiosoekin aurkeztea beste erremediorik, ekaitz handi bat altxatu nahi bazen. (...) Heresia protestantea zapaltzeko ezintasuna gorantz zetorren burgesiaren garaitezintasunari zegokion. (F. Engels. Ludwig Feuerbach eta Alemaniako filosofia klasikoaren amaiera.)

Burgesia, bere indar ekonomiko eta soziala garatzen zihuan heinean aurrerapauso politiko ezberdinak ematen joan zen nobleziaren antolamendu feudalaren aurka. Antolakuntza feudala trabak besterik ez zituen suposatzen hazten ari ziren ekoizpen indarren eta merkataritza baliabideen garapenerako. Ezinbestekoa zuen pribilegio aristokratikoak, tokian tokiko arantzel feudalak eta gremioen pribilegioak suntsitzea, merkatu askearen agintea ezartzeko. Xede honetan, herrialde industrializatu ezberdinetan urrats eta erritmo ezberdinak eman ziren arren, iraultza burges guztiak norabide berdina hartzen zuten, burgesiak “Estatu ordezkagarri modernoan botere politikoaren hegemonia eskusiboa konkistatzea” zuen helburu, honela traba feudal guztiekin amaitzeko eta Estatua “klase burges osoaren negozio komunak kudeatzen dituen kontseilua” bihurtzeko (Manifestu Komunista).

Hala ere, ekoizpen sistema kapitalistak kontraesan ekonomiko berriak ekarri zituen berekin. Kapitalismoan burgesiak beharrezkoa du ekoizpen baliabideak etengabe iraultzea. Merkatuaren konpetentziak, irabazi maximoaren bilaketak, ekoizpena geroz eta esku gutxiagoetan kontzentratzera darama eta gizartea geroz eta gehiago proletarizatzen. Kapitalaren diktadurarekin ekoizpen txikian oinarritutako sistema ekonomikoa betirako ehortzia geratu zen industriaren nagusitasun ekonomikoaren aurrean. Manifestuak dioten bezala “Euren merkantzien prezio baxuek osatzen dute Txinako harresi guztiak suntsitzen dituen artilleria astuna (...) Hitz batean: (burgesiak) bere irudiko eta antzeko mundu bat forjatzen du”.

Sistema kapitalista kondnaturik dago garatu ahala behin eta berriz krisian erortzera. Krisia azken finean honakoa da:

produktuen gain-produkzioa eta masen miseria. Bata aldi berean bestearen kausa bihurtzen da. Kapitalismoak mundu guztira pobrezia artifizial bat zabaltzen du. Azken batean, gaur egun ere, gizartearen garapena bermatzekotan, ekonomiak geroz eta premia gehiagorekin eskatzen du ekoizpen indarrak jabetza pribatutik askatzea eta ekonomia proletalgoak internazionalki planifikatua izatea.

EKONOMIA MARXISTAREN OINARRIAK I: JATORRIZKO KAPITAL METAKETA

Ekonomia politiko burgesak behin eta berriz ukatu eta faltsutu izan ditu marxismoaren ideiak, ez bakarrik sozialismoaren aldeko borroka politikoaren printzipioetan, baita marxismoak sistema kapitalistaren funtzionamenduaz egiten duen analisisan ere. Izan ere, marxismoak sistema hau ez dela bideragarria frogatzen duen heinean, ekonomialari burgesa beti saiatu izan da kapitalismoa kontraesanik gabeko sistema bat bezala aurkezten. Sistema honek uzten digun errealitateak, ordea, behin eta berriz ematen die arrazoia Marxek Kapitalean garatu zituen ideiei, teoria burges guztiak barregarri utziz.

Hori dela eta, Euskal Herria Sozialistako orri hauetatik ekonomia marxistaren ikuspegi orokor bat azaldu nahi dugu dagoen artikuluetan, teoriaren oinarriko tesiak landuz. Helburua sistema honek bere funtzionamenduaren barnean dituen lege orokorrak eta kontraesanak argitzea da, kapitalaren jatorrizko metaketatik hasiz eta honen fase gorena den inperialismoraino iritsiz, krisi ekonomiko kapitalisten prozesua barne.

Lehenik eta behin, Marxek dirua eta merkantzia bere baitan ez direla zertan kapitala izan azaldu zuen, era berean ekoizpen baliabideak eta kontsumo produktuak egoteak ere berez kapitalik inplikatzeko ez duen bezala. Merkantzia eta dirua existitzen ziren iraganeko beste ekoizpen moduetan, esaterako esklabismoan edo feudalismoan, baina ez ziren masiboki kapitallean eraldatzen eta hau ez zen gizarte horretako jarduerak ekonomikoaren motorra bihurtzen. Azken hau da kapitalismoak iraganeko ekoizpen modu guztiekin alderatuz duen berezitasun nagusia, hau da, gizarteko ekonomia merkantziak merkatuan saltzeko ekoiztean oinarritzen dela. Egia esan, hau gertaera aurrerakoa da, kapitalaren zirkulazioak ekoizpen baliabideak behin eta berriz irauliz bakarrik funtzionatu bai-

tezake eta honek aurrez inoiz existitu ez den potentziala sortu baitu gizateriaren behar material guztiak asetzeko. Hala ere, helburu hau lortzea ezinezkoa da ekoizpen baliabideen gainera jabetza pribatuaren interesa desegin ezean.

Baina nola gertatzen da kapitalismoaren jaiotzari bide emateko ezinbestekoa zen jatorrizko kapital metaketaren prozesua? Marxek azaldu zuenez diruaren eta ekoizpen eta kontsumo baliabideen jabeak elkarren artean kontaktuan sartzen direnean eta beren jabetzari balioa ematea lortzen dutenean sortzen da aldaketa. Balioa emateko modua hain zuzen ere besteen lan indarraren erabileran oinarritu behar zuen. Honela, erlazio kapitalistek, lehenik eta behin, langileak lan baliabideekiko eta lanabesekiko erabat bereiztea inplikatzeko zuten.

Trantsizio prozesu hau hainbat mendetan zehar garatu zen eta, batez ere, kapitalismo garaikidearen sehaska izan ziren Ingalaterran eta Holandan hasi zen. Azken finean, beste modu batera ezin izan zitekeen moduan, gizarte kapitalistaren egitura sozialaren sorrera feudalismoko jabetza erlazio zaharrak deseginez eman zen. Prozesu hau hainbat faktorek markatu zuten:

1.- Ekoizle zuzenak glebari lotuta egoteari edo jopu izateari uzten dio. Langilea gremioen agintetik bereizten da, ikasle eta ofizialen inguruko ordenantzetatik eta honen lan egiteko arauetatik. Joputzatik askatu berri izan zirenak euren buruen saltzaile bihurtzeko modu bakarra lehen zituzten ekoizpen baliabide guztiak eta instituzio feudal zaharrek eskaintzen zituzten existentziarako berme guztiak kentzea zen. Marxek nabarmendu zuen bezala, “desjabetze honen historia gizateriaren urtekarrietan odol eta suzko trazuekin idatzia izan zen”.

2.- Ekoizle nekazariak lurretatik desjabetzea zen prozesu honen guztiaren oinarria. Ingalaterran glebara loturiko joputza praktikan desagertu egin zen XIV. mende amaiera aldera. Ordurako biztanleriaren gehiengo zabala nekazari askeek eta autonomoek osatzen zuten, beren jabetza gordetzeko erabiltzen zuten etiketa feudala edonolakoa izanik ere.

Joputza erlazioen desegiteak nekazari askeen masa zabala jaurti zuen lan merkatura, biolentzian oinarritu zen mugimendu batean. Jauntxo feudal handiek nekazariak kanporatu egin zituzten lantzen zituzten lurretatik eta beren lur komunak usurpatu zituzten, artalde handien mesedetan. Feno-

meno hau Flandesko artilearen manufakturak elikatzen zuen. Ez da harritzekoa hau kontuan hartzen badugu, Tomas Morok bere Utopia lanean ardiek pertsonak jaten zituzten herrialde bitxiaz hitz egitea. Jopuen zapalkuntza bortitz honek bultzada handi bat jaso zuen XVI. mendean Erreformarekin eta Elizaren ondasunen desjabetze orokorrarekin.

Oinarri hauen gainean lurjabe handiek luraren jabetza feudala abolitu zuten eta etxaldeek jabetza modernoa aldarrikatu zuten. Aldi hau arlo politikoan puntu gorenera 1688ko Iraultza Loriatsua deritzona iritsi zen. Estatu kolpe honek Ingalaterran noblezia lurjabearen eta burgesiaren arteko konpromisoan oinarritzen zen monarkia konstituzionala indartu zuen. Marxen hitzen arabera “boterea gainbalio lurjabea eta kapitalista hartzen dutenei eman zitzaien”.

Momentu horretatik aurrera lur publikoen harrapaketa aurrez inoiz ikusi gabeko maila batean garatu zen eta burgesiaren prozesu hau lagundu zuen, beste arrazoien artean, lurra merkatuko artikulu berri bat bihurtzeko eta landatik zetozen proletario merkeak soldatapeko esplotazioarentzat eskuratzeko. Harrapaketa hau herriaren lurak lapurtzera bideraturiko lege sorta batekin lagundurik etorri zen.

3.- Bestalde, kapitalista industrialek gremioetako maisu artisauez gain, jauntxo feudalak ere azpiratu behar zituzten. Erlazio politikoak erradikalki eraldatu behar zituzten jabetza eta ekoizpen forma berrien garaipena ziurtatzeko. Holandan, Ingalaterran eta geroago Frantzia eman ziren iraultza burgesek ezinbestekoa zen paper hori jokatu zuten.

Ekoizpen kapitalistaren lehen indizioak XIV. eta XV. mendeetan aurkitzen badira ere, Mediterraneo hiri batzuetan esporadikoki izan arren, ezin daiteke aro kapitalistaz hitz egin XVI. mendera arte.

Kasu ingelesarekin jarraituz, beren lurretatik kanporatua izan zen herritarren masa hau ezin izan zitekeen manufakturak xurgatua, oraindik nahikoa garatu gabea zegoelako eta beraz, herritar hauek eskale, behartsu eta lapurren jendetza izugarria osatzera heldu ziren, hauen aurka legeria bortitzak ezarri zirelarik.

Aldi berean, nekazaritzan eta jabetza erlazioetan eman ziren aldaketek suposatu zuten eraldaketa erradikalak landako

ereiteko metodoak hobetu zituen, kooperazioari erraztasuna eman zion eta ekoizpen baliabideen kontzentrazioa areagotu zuen. Honela nekazal guneko ekoizpena asko handitu zen.

“Nekazaritzako lehengai”, dio Marxek “kapital konstantearen elementu bihurtu zen”, hau da, manufakturarako lehengai bihurtu zen. Nekazaritzaren iraultza honek, XVI. mendean eman zen haziaren, haragiaren eta nekazaritzako produktu guztien prezioen igoerarekin batera, maizterren kapitala asko loditu zuen. Era berean, hauek iraganeko jabeen ordaindu behar ziren luraren errenta dirutan balio berean mantentzen zen, izan ere, errenta kontratuak batzuetan 99 urte irautera iristen baitziren. Modu honetan maizterrak aberastu egin ziren, maizter kapitalistetan bihurtuz.

MANUFATURAREN PAPERA

Ekoizle independenteen desjabetzeak manufakturararen garapenera bide eman zion eta honek barne merkatuaren garapena bultzatu zuen, hau funtsezkoa izanik ekoizpen erlazio kapitalistak indartzeko prozesuan.

Lehengaiak eta bizitzeko bitartekoak merkantzia bihurtu ziren eta maizter handiek merkantzia hauek manufakturan saltzeko xedearekin ekoizten hasi ziren, hau bere merkatu gogokoena bihurtu zelarik. Aldi berean, familia nekazariak euren kontsumorako lantzen zituen lehengai guztiak, lihoa, artilezko artikulu merkeak, etab., manufakturararen artikulu bihurtu ziren eta gero nekazal guneko eskualdeetan saltzen ziren. Honela, hiriaren eta landaren artean merkatu erlazioak gailendu ziren feudoen eta gremioen sistemen gainetik.

Hala ere, manufaktura oso modu ahulean jabetzen zen ekoizpen nazionalaz eta beti ere hiriko artisauetan eta etxeko industria subsidiarioan oinarritu behar zen. Horregatik azpimarratzen du Marxek etxe barneko industriaren desegitea izan zela barne merkatuari ekoizpen modu kapitalistak behar duen zabaltasuna eta sendotasuna emateko faktore erabakigarria. Azken finean, hau industria handiarekin bakarrik lor zitekeen eta honen garapenerako baldintza guztiak sendotu zirenean bakarrik jaio zitekeen egungo sistema kapitalista.

EKONOMIA MARXISTAREN OINARRIAK II: MANUFAKTURATIK INDUSTRIA HANDIRAKO BIDEA

Marxek Manifestu Komunistan aipatu zuen bezala, kapitalak ezinbestekoa du etengabe ekoizpen baliabideak iraultzen egotea, sistema honek ezin baitezake aurrera egin ez badago lanaren produktibitatea handitzeko guda jarrai batean. Hain zuzen ere, honako behar hau izan zen manufakturako ekoizpen modutik kontzentrazio industrial handietara igarotzea bideratu zuen motorra. Industriaren gailentze honek aldi berean berebiziko garrantzia izan zuen ekoizpen erlazio kapitalisten garaipena finkatzeko prozesuan.

Gremioetako industria artisauak ez bezala, manufakturaren garapenak aspektu garrantzitsu bat ekarri zuen berarekin: langile gehiagoren arteko elkarlana garatu zuen, toki berean eta merkantzia mota beraren lanketan. Honek ekoizpen moduan aldaketa garrantzitsu bat eragin zuen. Elkarlanak, hau da, langileak ekoizpeneko zeregin berberak gauzatzeko kontzentratzeak, era berean, ekoizpen baliabideen kontzentrazioa errazten du eta modu honetan kapital konstantearen (makinariaren, lan tresnen eta azpiegituren) balioa jaitsi egiten da, honek azken finen merkantziaren balio guztia jaitea ahalbidetzen duelarik.

Elkarlanak gainera zenbait operazio hainbat langileren artean banatzea eta operazio hauek aldi berean gauzatuak izatea baimentzen du, modu honetan produktu osoaren ekoizpe-nerako beharrezkoa den lana murriztu egiten da. Langileek, ekoizpen eta lan baliabideak modu kolektibo batean martxan jartzean, hauei etekin handiagoa ateratzen die lantegiko langileen kopurua handitzeko beharrik eduki gabe. Honela, kolektiboki erabilitako kapital konstantea ez da handitzen bate-
ra enplegatutik dauden langileen kopuruaren maila berean.

Oinarrian, manufakturak ekoizpen baliabideen ekonomia baten garapena suposatu zuen, ekoizpen prozesuan askok egin

dako lanaren kontsumo komunak eragiten zuena. Honek ondorio garrantzitsuak eragin zituen gizartean: gizabanakoaren indar produktiboa handitzen zuen eta aldi berean masen indarra bihurtzen zen indar produktibo bat sortzen zuen.

INDUSTRIA HANDIAREN GARAPENERAKO PREMISA MATERIALAK

Nola ematen da manufakturaren alditik industria handian oinarrituriko ekoizpenerako trantsizioa? Lehenik eta behin, nabarmendu behar da ekoizpen kapitalistaren motibo eta xede nagusia kapitalaren ahal den auto-balioztatze handiena lortzea dela, hau da, burgesak bere kapitaletik ahal duen gainbalio ekoizpen handiena ateratzea. Manufakturak lanaren banaketa areagotu zuen eta lanaren produktibitatea handitzeko borrokari hasiera eman zion. Borroka hau, azken finean, merkantzien ekoizpenean beharrezkoa den lanaren denbora murrizteko borroka da. Honela, manufakturak lehen mailan makinaren garapen bakanak bultzatu zituen. Masiboki burutu behar ziren eta indarren gastu handia eskatzen zuten operazio sinpleak gauzatzeko makinaren erabilera sartzeak ekoizpen indarren produktibitatea iraultzeko oinarriak ezarri zituen. Hala eta guztiz ere, eta Marxek ongi seinatzen zuen moduan, manufakturaren aldi klasikoan oraindik makinaria espezifikokoak langileen kolektiboa izaten jarraituko du.

Manufakturaren berezitasun historiko garrantzitsuenetakoa espezializatu gabeko langileen klase bat sortu izana da. Gremioetako industria artisauak ez zuen klase hau ezagutzen, lehenik produktu artisauaren ekoizpenak abilezia tekniko zahatzak eskatzen zituelako eta bigarrenik artisauaren eginkizuna zelako ekoizti behar zuen produktuaren prozedura guztiak edo gehienak gauzatzea. Manufakturarekin berriz, lanaren banaketa eman zen eta honek, aldi berean, lanaren banaketa sozial bat sortu zuen. Jatorriz ezberdinak ziren ekoizpen esferak ekoiztutako merkantzien zirkulazioak eta trukeak lanaren banaketa sozial bat eragin behar zuten, hau ezinbesteko baldintza baita merkantzien ekoizpenean oinarritzen den sistema ekonomiko baten existentziarentzat.

Azkenik, lanaren produktibitatearen hazkuntzako prozesu honek manufakturaren aldiari amaiera eman behar zion nahi-

taez. Ekoizpen prozesuan makinaria masiboki sartzearen bidez industria handiaren aroaren lehen urratsei ateak ireki zitzaizkion manufaktura iraganean utziz. Makinaren sarrerak, aldi berean, langilearen eta hark ekoizpenean burutzen zuen funtzio zehatzaren arteko bizi bitarteko lotura deuseztatu egin zuen, lotura hau sostengatzen zuen oinarri teknikoa desegin egin zuenean.

Burgesiak garai hartan, eta baita egun oraindik ere, makina garatzearen helburua gizakien eguneroko lana arintzea denaren ideia saltzen zuen. Baina hau ez da inoiz makinaren benetako xedea izan. Edozein ekoizpen indarren garapenaren antzera, makina garatzearen helburua merkantziak merkeago egitea izan da kapitalismoan. Langileak bizitzeko beharrezko dituen baliabideak ekoizteko lanegunaren zatia murrizten bada, hau da, langilea soldatan entregatzen zaion zatia denbora laburragoan amortizatzekeo gai bada, kapitalistarentzat dohainik lan egiten duen lanegunaren gainontzeko zatia luzatu egiten da. Azken finean, makinaria gainbalioa ekoizteko bitarteko bat da, bera garatzeak kapitalismoan burgesaren irabaziak loditzeko xedea bakarrik eduki dezake. Gaur egun ere kasu askotan argi ikusten den bezala, burgesak makinaren inbertsioan errentagarritasunik ez badu ikusten honek ez du mariniarian dirurik inbertituko.

Honela beraz, zera ikusten dugu: manufakturaren aldiak ekoizpen moduetan emandako iraultza lan egunetik abiatzen den bitartean, industria handiaren aroan lan baliabideen iraultzatik abiatzen dela. Hau da, manufakturan praktikan ezarritzen langileen arteko elkarlanaren sistemak tokian tokiko makinaren aplikaziorako baldintzak ezarri zituen heinean, makinaria honen garapenak eta hauen aplikazio geroz eta zabala go eta indartsuagoak ekoizpen industrial handiaren abiapuntua suposatu zuen.

MAKINAK EKOIZTEN DITUZTEN MAKINAK

Lanaren produktibitatea handitzeko makinaria sartzeak ekoizpenaren arlo guztietan izan zuen bere eragina: esate baterako irundegi mekanikoan izandako berrikuntzak berehala ehundegi mekanikora pasa ziren, aldi berean industria kimikoaren eral-

daketa bultzatu zutelarik, etab. Makinen aplikazioak aurretik gizakiaren historian inoiz existitu ez zen garrantzia ekonomikoa hartu zuen eta soilik horregatik izan zen gai burgesia, klase dominatzaile moduan ezarria, zientzia eta teknologiaren garapenari bultzada ikaragarria emateko. Aurrez azaldutako ekoizpen moduetan eman ziren iraultzek, ekoizpenean makinaria sartze-ko joera bere burua elikatzen zuen prozesu bat bihurtzen zuten.

Modu berean, oinarri produktiboan emandako aldaketa sakon hauek iraultza bat eragin zuten merkantzien trukerako komunikabideen eta garraiobideen egoera orokorrean: lurruntziak, trenbideak, telegrafoak, etab. sortu ziren garai honetan. Alde batetik, ekoizpen tokitik salmenta guneraino merkantziaren garraioa merkea eta azkarra izatea izugarri garrantzitsua da kapitalistarentzat, honen balioari zuzenean eragiten baitio. Bestetik berriz, kapitalismoan merkatu nazionalen hastapeneko garapenak ezinbestean merkatu internazionalaren beharra sortu zuten, industriak lehengaiak herrialde urrunetatik ekartzen eta ekoiztutako merkantziak mundu zabalean saltzen hasi zirelarik.

Ekoizpen eta komunikazio adar hauen garapenak kapitalaren tinkotze prozesua handitzea eta sendotzea ekarri zuen. Beste produktu askoren artean, esate baterako burdina masan galdatu, soldatu, moztu, zulatu eta moldatu beharra zegoen lantegien eta garraiobideen egiturak osatzeko. Honek makina ikaragarriak eskatzen zituen, eta hauek ezin ziren manu-fakturako makinak eraikuntzaren bidez sortu.

Makinaria astuna egitera bideraturiko industria sortzea behar bat bilakatu zen momentu jakin batetan. Marxek nabarmentzen duen bezala, industria handiak bere ekoizpen baliabide bereizgarria eskuratu behar zuten, makina bera, eta hau lortzeko modu bakarra makinak bidez makinak ekoizten hastea zen.

Honela, ekoizpen industrialak adar gehiagotara zabalduz joan zen, iraganeko lantegi txikiak atzean utzi zituen eta bere lekuan kontzentrazio industrial handiak ezarri zituen. Kapitalismoaren garaia nahitaez ekoizpen handiaren garaia izan behar du eta ekoizpen txikiak ezingo du inoiz sistema honetan lehen zuen papera eta egitura berreskuratu; garrantzia galduz joan da eta jokatzen duen papera bigarren maila batera pasa da, hots, industria handiaren menpe egotera.

EKONOMIA MARXISTAREN OINARRIAK III: MAKINARIA ETA INDUSTRIA HANDIA, GAINBALIO ERLATIBOAREN EKOIZPENA

Kapitalismoaren garapen prozesuan, behin gizarteko azpiegitura produktiboan nahikoa errotu zenean, ezinbestekoa izan zen makinariaren fabrikazioa handitzea eta zabaltzea. Pausu honek historian aldaketa kualitatiboa ekarri zuen. Ekonomian ekoizpen industrialaren nagusitasunaren aroa heldu zen, merkantzien ekoizpen masiboaren aroa, eta honekin batera, noski, kapitalisten aginte ekonomikoa eta politikoa finkatu zen.

Makinariak, kapital konstantearen beste edozein osagaik bezala, ez du inongo baliorik sortzen, baizik eta bere balioaren zati bat txertatzen dio fabrikatzera bideratzen duen produktuari. Makina batek balio jakin bat duen heinean, balio honen zati bat produktuari pasatzen dio eta, modu honetan, gehituriko balio hau produkturen balio osoaren parte bilakatzen da.

Makinaria beti osorik sartzen da lanaren prozesuan, baina partzialki bakarrik parte hartzen du produktuari balioa emateko zereginean. Txertatzen duen balioa erabilerarekin galtzen duenaren proportzioan joango da. Ez du inoiz bataz beste desgastaren eraginez galtzen duena baino balio gehiago gehitzen.

Makinariak produktuari balioa txertatzean, noski, ez du hau merkeagoa egiten, alderantziz baizik, garestitu egiten du, beti makinariaren balioaren aurkako proportzioan. Makinak dituen funtzionamendu kostuak eta desgastaren bidez galtzen duena da, egunero lantzen dituen produktuen masaren artean banatzen duena. Honela, txertatzen duen balioa azken finean makinak lan egiten duen azkartasunaren baitan egongo da.

Honenbestez, makinaria produktiboa merkantziari balio gutxiago txertatzen diona izango da. Alde batetik kostu gutxiago suposatzen duenean, erregai eta materialen aldetik eta mante-

nu aldetik. Bestetik, denbora jakin batean makinak landu dituen produktuen masa handiagoa denean, honela lanegunean txertaturiko balioa produktu gehiagotan zatitzen baita eta beraz zaitia txikiagoa izango da produktu bakoitzeko. Alegia, esate baterako makina batek ordu betean 200 pieza egiten baditu eta gas-tu berdina duen besteak 100, lehen makinak merkeago ekoizten du eta merkatuan produktua merkeago salduko ahalko du.

Hala ere, Marxek makinaren produktibitatea gizakiaren lan indarra ordezkatzeko duen mailagatik neurtzen dela azaldu zuen Kapitalean. Makinak langile batzuk ordezkatzeko, baina beti ere burgesari ordezkapen honek langileak esplotatuz eginiko lana baino etekin gehiago ematen badio.

Idea honek gaur egun bere indar guztia mantentzen jarraitzen du. Egun multinazionalak hainbestetan aurrera eramaten dituzten deslokalizazioak, produkzioa herrialde aurreratuetatik azpigaratuera eramanez, arrazoi horregatik azaltzen dira. Asiako lurraldeetan lan erdi esklaboa egotea abantailagarriagoa da kapitalistentzat, azpiegituren balio teknologikoa handia den herrialdeetan ekoiztea baino, hemen lan kosteak altuagoak baitira.

MAKINAREN PRODUKTIBITEA ETA BALIOA SORTZEA

Baina makinaria, lanaren produktibitatea handitzeko bitartekorik modernoena izateaz gain, laneguna muga natural orotatik haratago luzatzeko tresna eraginkor bat ere bihurtzen da. Kapitalisten hizkuntzan esanda, euro gutxi balio duen aitzurrarekin lan egiten ari denak hartu lezake atsedentxo bat edo eduki lezake hanka sartzeren bat, baina milaka eta milioika eurotako piezekin eta makinekin lanean ari denak ezin du atsedenekin edo “axolagabekeriekin” inbertsioa arriskuan jarri.

Makinarian lan tresnaren mugimendua eta jarduera independizatu egiten dira langilearen aurrean. Etengabe ekoitziko luke ez balu ondoan behar dituen gizakien muga naturalekin talka egingo, hau da, ahultasun fisikoarekin eta borondate propioarekin. Makinak kapitalismoan burgesiaren irabazi gosean hartzen du bere kontzientzia eta borondatea. Honela beraz, traba natural hauek ezerezera murrizteko joerarekin

jaiotzen da, langileari bere indarren ahalmena baino gehiago eskatuz.

Aurrez aipaturiko moduan, makinariaren produktibitatea produktuari txertatzen dion balioarekin alderantzizko erlazioan dago. Zenbat eta luzeagoa izan bere funtzionamendua-ren aldia, orduan eta handiagoa izango da bere balioa banatu duen produktuen kopurua eta txikiagoa merkantzia bakoitzean txertatu duen balio zatia.

Makinaren bizi aktiboko aldia, egunero lanean pasatzen duen denbora, prozesu hau errepikatzen duen egunekin bider-tuz ateratzen da. Adibidez, makina batek egunero 16 ordu-tara 7 urtez lan egiten du. Erabat berdina den beste batek egunero 8 orduz lan eginez, 14 urte iraungo lituzke. Orduan, lehenen-go kasuan, makinaren balioa bigarren kasuan baino azkartasu-n bikoitzez erreproduzituko litzateke eta kapitalistak honi eskerrak, zazpi urtetan bestearekin hamalau urtetan adinako diru sarrera edukiko luke. Honek lan orduaren intentsitatea azkartzera bultzatzen du kapitalista.

Bestalde, desgaste materialaz gain makina desgaste moral baten menpean ere badago. Berrikuntza teknologikoak, kon-petentziak eta irabazi maximoaren borrorak makinak zahar-kiturik geratzea eragiten du. Marxek zioen bezala makina mespretxaturik geratzen da. Ekoizpen adar batean makinaria sartzean, kapitalista berehala saiatzten da makinaria horren erreprodukzio denbora azkartzen edo hobeago bategatik or-dezkatzen. Azken hamar urteetan ordenagailuen kasuan eman den prozesua izango da ziurrenik teoria honen egunero-kotasunaren adibide argiena.

Makinariak gainbalio erlatiboa ekoizten du, alde batetik, zuzenean lan indarrari balioa jaitsez eta zeharka, erreproduk-zioan parte hartzen duten merkantziak merkatzean, lan inda-rra merkeagoa eginez. Bestetik, berriz, makinariaren hasiera-ko aplikazioetan, hau burges gutxi batzuen monopolio antze-koa denean, produktu mekanikoaren balio soziala bere balio indibidualaren gainetik igotzen da eta kapitalistari eguneroko lan indarraren balioa bere eguneroko produktuaren balioaren zati txikiago batekin ordezkatzeta baimentzen dio. Makina no-bedadea den garai honetan irabaziak ikaragarriak dira burge-sarentzat, eta noski ahal duen guztia luzatzen du lan eguna,

pagotxa luzatzearren. Marxek dioen bezala, zenbat eta gehiago irabazi, orduan eta gehiago hazten da gosea.

Baina eztei egun hauek segituan amaitzen dira. Makinaria ekoizpen adar batean orokortzen denean, makinaren bidez eraturiko produktuaren balio soziala bere balio indibidualera jaisten da. Orduan ezartzen da aurrez aipatu izan dugun legea: gainbalioa ez da kapitalistak makinaren bidez ordezkatzeko dituen lan indarretatik jaiotzen, makinarekin lan egiten duten langile horietatik baizik.

Gainbalioa kapitalaren zati aldakorretik bakarrik sortzen da eta bi faktorek baldintzatua dago: gainbalioaren kuota eta aldi berean enplegaturiko langile kopurua. Gainbalioaren kuota lanegunaren iraupena kontuan harturik, hau beharrezko lanean eta lan soberakinean banatzen den proportzioaren baitan dago. Denbora berean enplegaturiko langile kopurua berriz, kapital aldakorraren eta konstantearen arteko proportzioaren baitan dago.

Argi dago industria mekanikoak gainbalioa sortzea zabaldu egiten duela, kapital jakin batek okupatzen dituen langileen kopurua murrizten duenean hauen soldata ordaintzeko beharrezko lana murrizten baitu. Baina modu honetan, lehen aldakorra zen kapitalaren zati bat, lan indar bizian inbertitzen zena, makinarian eraldatzen du, hau da, kapital konstantean, eta honek ez du inongo gainbaliorik sortzen. Puntu hau funtsezkoa da ekonomia politiko marxistan: ezinezkoa da gainbalio bera ateratzea bi langiletatik eta hogeita lauetatik.

Honela, gainbalioaren ekoizpenerako makinariaren erabilpenean kontraesan organiko bat dago. Gainbalio kuota aldi berean enplegaturiko langile kopurua txikituz bakarrik hazten da. Kontraesan hau da kapitala, horretaz kontziente izan gabe, lanegunaren luzapenera bultzatzen duena. Helburua langile esplotatuen kopuruaren jaitsiera proportzionala konpentsatzea da, bai lan soberakin erlatiboa handituz (lan denbora berean ekoizpen gehiago), baita absolutua handituz ere (laneguna luzatzean ekoizpena handituz).

Ondorioz kapitalismoan makinariaren erabilpenak, alde baretik lan metodoak eta lanaren antolakuntza soziala etengabe iraultzen egotea eragin du, aurkako oztopo guztiak ezabatuz. Baina honekin batera, langileen laneguna ikaragarri luzatzea

bultzatzen du, kapitalaren mendean ezartzen ditu lehen egon ezin zitezkeen sektoreak eta, beste aldean, kale gorrian uzten ditu makinak bazterturiko langile masak, gizartean langabezia zabalduz. Honela azaltzen da, berez gizateriarentzat esfortzua eta laneguna arindu beharko lukeen errekurtsorik hoberenak, kapitalismoan langile batzuen neurrigabeko esplotazioa eta besteen langabezia ekartzea.

Askotan esan izan da makinariaren helburua gizakiari bizitza erosoagoa egitea dela, baina hau sozialismoan bakarrik izango da posible, ez denean irabazi pribatuentzat ekoitziko, giza beharrentzat baizik. Kapitalismoan makinaria garatzeak merkantziak merkatzea eta ahalik eta langile gutxienetik ahalik eta gainbalio handiena ateratzea izango du beti helburu.

EKONOMIA MARXISTAREN

ONARRIAK IV: BALIOAREN TEORIA

Balioaren teoria marxista funtsezkoa da ekonomia kapitalistaren oinarriak ulertzeko. Kapitalisten irabaziak langileetatik ateratzen den gainbaliotik datozela frogatzen du, azken finean, sistema hau mugiarazten duena klase pribilegiatu eta bizkarroi batek soldatapeko lana ahal bezain beste esplotatzea dela azaltzen du. Hori da besteak beste ekonomia burgesak onartu nahi ez duena.

Aristotelesen garaietatik, mendeetan zehar filosofoak eta ekonomialariak merkantzien eta hauen balioaren enigmari azalpen bat ematen saiatu izan dira. XVIII. mendean, Ingalaterrako ekonomia burgesa, David Ricardoren bitartez, arazoaren ebazpenera hurbildu zen, baina porrot egin zuen azalpen zientifiko bat emateko garaian.

Engelsek, Soldatapeko lana eta kapitala idazlanari egin zion 1891ako hitzaurrean, honakoa zioen: “Ekonomia klasikoak aurkitu zuen merkantzia baten balioa determinatzen zuena hura ekoiztua izateko beharrezko lana zela, lan hori merkantziak bere baitan gordetzen zuela. Eta erantzun honekin asebate zen” (...) “Baina ekonomialariek balioa lanagatik zehazten zuen irizpide hau “lana” merkantziari aplikatzen zien bezain laster, kontraesan batean nahiz bestean erortzen ziren. Nola zehazten da “lanaren balioa”? Barnean gordetzen duen beharrezko lanaren balioaren bidez. Baina, zenbat lan gordetzen da langile batek eginiko lanean egun batean zehar, aste batean zehar, hilabete batean zehar, urte batean zehar?” (...) “Lanordua baten balioa lanordua baten balioa dela jakitearekin, ezertxo ere ez bagenek bezala da. Horrekin ez dugu gure helmugarantz izpirik ere aurreratzen; ez dugu zirkulu zoro batean birak eman besterik egiten”.

Marxek Kapitalean azaltzen duen moduan, merkantzia, lehenik eta behin, bere propietateen bidez edozein motako giza beharrak asetzeko objektua da. Gauza batek erabilgarritasun

bat edukitzeak erabilera balio bihurtarazten du, eta erabilera balio hau erabileran edo kontsumoan bakarrik gauzatzen da.

Baina merkantziak truke balioa ere badu. Balio hau mota bateko erabilera balioak beste batzuentatik trukutzen diren proportzioak zehazten du. Egunero ematen diren horrelako milioika truke ekintzen bidez, genero guztietako erabilera balioak parekatzen dira etengabe, nahiz eta merkantzia ezberdinak izan eta elkarren artean oso parekagarriak ez izan.

Zer dute komunean balio ezberdin hauek guztiek erlazio sozialen sistema jakin batean baliokideak gerta daitezen? Ezaugarri honek ezingo luke inongo ezaugarri fisikorik, kimikorik edo merkantzien beste edozein ezaugarri naturalik izan, hainbesteko aniztasuna existitzen denez beraien artean.

Honela beraz, oinarritzko gakoa merkantzia guztiak giza lanaren produktuak direla da. Hortik abiatuz, ondorioztatzen da merkantzia baten balioaren neurria “balio sortzailea den sustantziaren” kopuruaren bidez neur daitekeela, hau da, bertan gordetako lanaren bidez. Lanaren kopurua bere iraupenagatik neurtzen da eta, lanaren denboraren neurriek aldi berean denbora zati jakin batzuk dituzte, orduak, egunak, etab. Marxentzat, merkantzia baten balioa, bere ekoizpenean sartzen den sozialki beharrezkoa den lan denborak zehazten du.

Behin puntu honetara iritsita gogoratu beharra dago zientzia ekonomiko burgesak behin eta berriz defendatzen duela merkantzia baten balioa bere ekoizpen kostuaren baitan dagoela. Baina horren aurrean dugun galdera honakoa da: zein da bada lanaren ekoizpen kostua? Egian esan, lanaren ekoizpen kostua kalkulatzeko ezinezkoa da. Posible dena langilearen ekoizpen kostua jakitea da, nahiz eta garaian arabera aldatu egiten den magnitude jakin bat osatzen duen, muga batzuen barnean. Ekoizpen modu kapitalistaren markoaren barnean, langile baten ekoizpen kostua, batz bestea, bizitzeko behar dituen bitartekoek osatzen dute, azken batean, lan egin dezan, lan egiten jarrai dezan eta langile klasearen ugalketa ziurta dezan beharrezko duenak. Langileak kapitalistari bere lan indarra saltzen dio, kapitalistak hau prezio jakin batean erosten du eta denbora jakin batean zehar erabiltzen du. Gizarte kapitalistan lan indarra beste merkantzia bat da, baina bera da kontsumitua denean balioa sortzeko gai den merkantzia bakarra.

Lan indarrak egunean zehar bera kostatzen dena baino balio gehiago sortzen du, eta gainera, aurrerakuntza teknologiko bakoitzarekin eguneroko soberakinen ekoizpena hazi egiten da bere kostuaren gainetik, hau da, gutxitu egiten da langile batek bere soldata ekoizten duen lanaldiaren zatia eta handitu kapitalistari oparitzen dion zatia, hain zuzen ere, gainbalioa.

Funtsezkoena zera da, kapitalismoan balioa ekoizten dutenak soldatapekoak direla, langile klasea alegia. Baina bestalde, gainbalioa ekoizten dutenak ez dira balio horren jabe. Kapitalistak, kapitalaren jabe den heinean, lan baliabideak eta lehengaiak edukiz eta lan indarra erosiz balio soberakin horren jabe egiten da. Honako hau da gizartearen funtsezko kontrastesana. Irabazi kapitalistaren oinarria langileak ekoizten duen eta kapitalista jabetzen den balioa da.

GAINBALIOA ETA MERKANTZIEN ZIRKULAZIOA

Historikoki hiru merkantzien zirkulazio mota existitzen dira:

A.- Ekonomia elemental batean, merkantzia bat sozialki beharrezkoa den lan kopuru bera gordetzen duen beste bategatik trukatzan da. Merkantzien trukea M-M formulaz adierazten da.

B.- Gizarte batetan ekoizpen baliabideen garapen jakin bat lortzen denean eta zirkulazio monetario bat ematen denean, bi zirkulazio mota egoten dira: merkantzien salmenta, M-D formulaz adierazten dena, eta merkantzien erosketa, D-M.

Operazioa ondorengo moduz adierazten da M-D-M, hau da, saltzeko erosten da. Kasu honetan dirua merkantzien salerosketak errazten dituen tresna bat izaten da, gizarte aurrekapitalistetan ohikoa zena.

C.- Zirkulazioa ekonomia kapitalista batean. Diruak ez du txanpon bezala zirkulatzen kapital bezala baizik. Kapitalistak ekoizpen baliabideak eta tresnak, lehengaiak eta lan indarra erosteko adina kapital dauka. Zentzu honetan kapitala aurrebaldintza bat da, ekoizpen prozesua martxan jartzeko. Formula D-M-D bezala adierazten da, kapitalarekin merkantziak ekoizten dira eta horiekin kapital handiagoa eskuratzen da, hau da, kapitala irabaziekin.

GAINBALIOA

Ekonomia burgesaren eta marxismoaren arteko eztabaida urteetan zehar soberakina non sortzen den azaltzean oinarritu izan da, edo hobe esanda, nola sortzen den irabazia. Ohikoa da enpresarien eta kapitalaren abokatuen artean aho txikiz onartzea lanak gainbalioa sortzen duela, baina hau, azken finean, enpresariak bere kapitala arriskatzeari jasotzen duen ordain sari bat dela esaten dute. Modu honetan kontsolatzen da burgesia, langileak bere lanaz sortzen duen balio soberakinaz lotsagabeki jabetzen dela ezkutatu.

Gainbalioak ezin du etorri merkantzien zirkulaziotik, honek balioak direnen elkartrukea bakarrik ezagutzen baitu. Kapitalaren jabeak beraz beharrezkoa du merkaturan balio sortzailea den merkantzia bat bilatzea, hau da, kontsumitzean balioa sortuko duen merkantzia bat bilatzea: merkantzia hori gizakiaren lan indarra da.

Kapitalistak langilearen lan indarra erosten du bere kapitalaren bitartez; bere truke balioa erosten du diru kopuru jakin bategatik, hau da, langilearen eta bere familiaren mantenuaren kostua eta lan hezkuntzarena eta, trukean, honen erabilera balioaz jabetzen da. Langileak bere lanaldi osoaren zati batean sortzen du kapitalistak bizitza bermatzeko ordaintzen dion balioa. Baina gainontzeko denboran kapitalistak ordaintzen ez dion gainbalioa ekoizten du. Azken batean, gainbalioa lan indarrak sorturiko balioaren eta lan indarra kostatzen denaren arteko aldea da. Soldata berriz, lan indarrak merkaturan duen prezioa da, bere balioaren adierazpena dirutan.

Kapitalistak ekoizpen prozesuan erabiltzen duen kapitala bitan zati daiteke:

A.- Kapital konstantea, ekoizpen baliabideez, lehengaez, makinariak, etab. osatzen dena; konstante deitzen zaio ekoizpen prozesuan ez duelako bere balioa aldatzen, baizik eta bere balioa ekoiztera bideratzen duen merkantziari gehitzen dio. Hildako lana da, pixkanaka txertatzen dena.

B.- Kapital aldakorra, lan indarra erosten gastatzen den kapitalaren zatia da eta kontsumitzean balioa sortzen du. Langilearen biziraupena bermatzeko beharrezkoa gehi enpresariak hartzen duen soberakina sortzen du.

Enpresari batek kapital konstantea bakarrik edukiko balu ezingo lituzke merkantziak ekoiztu; ekoizpen prozesuan beharrezkoa da lan indarraren parte hartze kontzientea, ekoizpen tresnekin eta lehengaiekin elkartuz, merkantziak ekoitzi eta merkatuan salduz, irabaziak sor ditzan.

EKONOMIA MARXISTAREN OINARRIAK V: IRABAZI TASA

Sistema ekonomiko kapitalistaren oinarritzko kontraesana honako hau da: ekoizpenak izaera sozial bat hartu duen bitartean, ekoizpen honen produktuaren jabetzea modu indibidual batetan gauzatzen da.

Burgesiak ekoizpen baliabideen jabetza pribatua mantentzen duen heinean, gizartearen garapenean oztopo objektibo izugarri bat bihurtu da aspaldidanik. Klase bizkarroi bat dugu bera, langileen esplotaziorik gabe biziraun ezin duena. Gizon eta emakume langileen lan soberakina burgesiaren existentziarako nahitaezko baldintza bihurtzen da, horra hor kapitalismoko esplotazioaren oinarria.

Marxismoaren ikuspuntutik klase arteko borroka da garapen historiko guztiaren motorra. Klase sozialek, zapaltzaile nahiz zapalduak, euren sorburua beti gizartearen azpiegitura ekonomikoan izango dute, nahiz eta hau gero gainegituraren esparru guztietan islatzen den. Kapitalismoan klase arteko borroka, azken finean, gainbalioa eskuratzeko borrokara murrizten da. Ekoizpen baliabideen eta tresnen jabeak, kapitalistak, langileek sorturiko gain-produktuaren jabe egiten dira, etengabe langileen erresistentziaren aurka borrokatzen dute, zeren aldi berean, langileak burgesei gain-produktuaren ahalik eta zati txikiena uzteko borrokatzen baitute. Noski, errealitatean klase arteko borroka ez da denbora guztian indar berarekin ematen, gorabeherak ditu, borroka puntaletatik prozesu iraultzailetaraino, baita kontrairaultza eta erreazioaldiak ere.

Kapitalistek modu ezberdinak dituzte gainbalioa handi deitzen. Hauetariko bat gainbalio absolutua handiagotzea da, hau da, zuzenean laneguna luzatzea. Marxek *Kapitala*-ren lehenengo liburuan azaltzen zuen bezala, kapitalismoaren has-tapenetan, Ingalaterran modu oso bortitzean garatu zen meta-keta prozesua. Nekazalgoaren masak desjabetuak izan ziren, hauek eskulan proletario bihurtu behar izan zutelarik. Horrela, fabriketako ekoizpen prozesuan sartu zituzten eta lantegi

hauetako esplotazio ankerreko baldintzak jasan behar izan zituzten. 16 orduko lanegunak oso ohikoak ziren garai hartako Ingalaterran, ez soilik gizonentzat, baita emakumeentzat eta haurrentzat ere. Baina burgesiaren ikuspuntutik, ez zen inongo arazoa muturreko lan baldintza horietan milaka langile berrik gordinki bizitza galtzea: burgesen arabera, nahikoa haragi zegoen esplotaziorako erreserban, eta galdutakoa ordezkatzearraza zen.

Egungo egoerari begirada bat botatzen badiogu, azken hogeitertan burgesiak lan eguna luzatzeko ofentsiba bat eman duela ohartzen gara, azken bi urteetan nabarmen areagotu duelarik bere oldarkortasuna. Azken hamarkadetan enpleguaren prekarizazioak eta teknologia berrien garapenak langileen ordutegia enpresariaren gurarietara edukitzea eragin zuen, lanegunen iraupenak luzatuz. Krisiaren testuinguruan berriz, kapitalisten ofentsiba hau esparru guztietan ikaragarri handitu den heinean, lanaldi luzeagoen presioa ikaragarri areagotu da enpresetan, beti bezala, enpresarien mehatxu zuzenak tarteko.

Lanegunaren luzapenarekin batera, ordea, badaude beste modu batzuk kapitalistak eskuratzen duen gainbalioaren tasa, gainbalio erlatibo bezala ezagutzen dena, handitzeko: merkantzia jakin baten ekoizpenerako beharrekoa den denbora murriztuz, teknologia sartzearen bidez eta lan erritmoak areagotzearen bidez.

Gainbalioa handitzeko modu hori ongi ezaguna dute mundu guztiko milioika langilek, bereziki teknologia berriei edo ekoizpen industrialari loturik daudenek. Neurri gogor hauek sortzen dituzten estresa, lan gaixotasunak, antsietatea eta neke izugarria ohiko panorama izaten da enpresa askotan.

IRABAZI TASA

Gainbalioa irabazian, interesean eta lurraren errentan deskonposatzen da. Begi bistan denez, gainbalioa ez da irabaziarren berdina, zeren kapitalistak merkantziaren ekoizpen prozesuan eta komertzializazioan ordaindu behar dituen hainbat gastu baitauzka.

Kapitalista batentzat garrantzitsua da ekoizpenean esku-ratzen duen gainbalio tasa ongi ezagutzea, horrek lan indarretik jasotzen duen errentagarritasun maila ezagutzea baimen-duko baitio. Gainbalio tasa ekoizpen prozesuaren amaieran agertzen den kapital handitzearen (gainbalioaren) eta hura ekoizten duen kapital aldakorraren arteko erlazio bezala har daiteke.

$$G' = G / A$$

G' gainbalio tasa da, G gainbalioa eta A kapital aldakorra da.

Gainbalio tasak kapitalak lana esplotatzen duen maila adierazten du. Beharrezkoa da gainbalio tasa eta irabazi tasatik bereiztea. Kapitalistari ez zaio hainbeste interesatzen bere kapital guztiaren bereziki zein zatiri zor zaion gainbalioaren handitzea ezagutzea, ezinbestekoak baititu nola kapital aldakorra hala kapital konstantea ere. Burgesarentzat funtsezko-ena beti bere irabaziak ez gutxitzea da.

Irabazi tasa ondorengo moduan kalkulatzeko da:

$$r = G / k + a$$

G Gainbalioa da eta $k + a$ kapital aldakorra gehi kapital konstantea. Irabazi tasa gainbalio tasaren zuzenki proportzio-nala da baina kapitalaren konposaketa organikoaren alde-rantziz proportzionala.

Kapitalaren konposaketa organikoa ondorengo moduan adierazten da:

$$q = K / k + a$$

q konposaketa organikoa izango litzateke, K kapital guztia eta $k + a$ kapital konstantea gehi aldakorra.

Ekoizpen kapitalistaren garapen praktikoan, lehiak era-ginda, kapitalista bakoitza ekoizpen prozesuaren barnean ma-kinarian eta teknologian azken aurrerapenak sartu behar izate-a beharturik ikusten du bere burua. Modu horretan, kapital finkoko inbertsioak, hau da, ekoizpen tresna eta baliabideetan egindako inbertsioak, igo egiten dira. Epe motzean horrek mer-kantzia gehiago ekoiztea baimentzen du, baina bestalde, kapi-talaren konposaketa organikoa handitzen den neurrian irabazi tasa gutxiarazten du.

Modu konkretuago batean ikusteko har dezagun adibide bat: Bi kapitalista ditugu, kapital aldakorrean inbertsio bera-rekin, gainbalio berarekin eta gainbalio tasa berarekin baina

kapital konstante ezberdina dutenak. Aurrerago ikusi ditugun formulak aplikatzen baditugu ohartzen gara kapital konstantean gastu handiena egin duenarentzat irabazi tasa gutxiagotu egiten dela.

A Kapitalista

k	a	G	G'	I'
250.000	50.000	50.000	%100	%16,6

B Kapitalista

k	a	G	G'	I'
150.000	50.000	50.000	%100	%25,0

Aurrez azaldu dugun guztitik sistema kapitalistaren hainbat oinarrizko ezaugarri ondoriozta daitezke. Alde batetik, lehiak kapital orotan bataz besteko irabazi tasa bat eskuratze-ko joera sortuko duela. Kapitalistek ezin dute lehian atzera geratu, beti egin behar dute aurrera, handiak txikia jaten baitu. Bestetik, lehia horrek kapitalaren osaera organikoa azkartzen du nahitaez, kapital konstantean gehiago inbertitze-ko joera. Ikusi dugun moduan, joera horrek irabazi tasan erorketa orokor bat eragiten, noizbehinka agertzen dena. Prozesu hau izaten da, beste hainbat faktoreekin elkartuz, sistema ekonomikoko kapitalista gainproduktio krisietara eramaten duena, kapitalaren osaera organiko handiagoak eskulan gutxiago eta esplotatuagoa eskatzen baitu eta horrek masa langileak geroz eta pobregoa bihurtzen baititu.

Egia esan, kapitalistek errekurtsioak eta bitartekoak dituzte lehiak sortzen duen joera honen aurka egiteko, baina triki-mailu guzti hauek, hurrengo artikuluetan azalduko ditugunak, ezin saihestu dezakete gainproduktio krisira joateko joera orokor hori.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurea
 - 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurea
 - 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurea
 - 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
 - 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurea
 - 6 • Zer da sozialismoa?
 - 7 • Marxismoa eta artea
- MANIFESTU KOMUNISTA (K. Marx / F. Engels)
 - ERREFORMA EDO IRAULTZA (R. Luxemburgo)
 - ESTATUA ETA IRAULTZA (V. I. Lenin)
 - TRANTSIZIO PROGRAMA (L. Trotsky)
 - ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA (E. Preobrazhenski)
 - SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA (F. Engels)
 - MARXISMOA ETA LANGILE KLASEA
 - MARXISMOA ETA ASKAPEN NAZIONALA

Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitzaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaude:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

C. Marx / F. Engels

- Contribución al problema de la vivienda
- Crítica del programa de Gotha / Crítica del programa de Erfurt
- Del socialismo utópico al socialismo científico
- El 18 Brumario de Luis Bonaparte
- El Manifiesto Comunista (*castellano, català, galego*)
- El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado
- Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros)
- La guerra civil en Francia
- Ludwig Feuerbach y el fin de la filosofía clásica alemana
- Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado y capital

V. I. Lenin

- El Estado y la revolución
- El imperialismo, fase superior del capitalismo
- La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en el comunismo
- La revolución proletaria y el renegado Kautsky
- Las tesis de abril

L. Trotsky

- 1905 / Resultados y perspectivas
- ¿Adónde va Francia?
- Acerca de los sindicatos
- La lucha contra el fascismo
- El programa de transición
- Historia de la Revolución Rusa (2 vols.)
- Escritos sobre la revolución española (1930-39)
- La revolución permanente
- La revolución traicionada
- Mi vida

R. Luxemburgo

- Problemas de la vida cotidiana
- Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra
- Terrorismo y comunismo
- Una escuela de estrategia revolucionaria
- Huelga de masas, partido y sindicato
- La crisis de la socialdemocracia
- La revolución alemana de 1918-19
- Reforma o revolución

E. Preobrazhenski

J. Plejanov

- Anarquismo y comunismo
- Contra el anarquismo
- La concepción materialista de la historia
- El papel del individuo en la historia / 'Cant' contra Kant
- Carlos Marx y la Internacional
- Sobre el materialismo histórico

KRITIKA MARXISTA bilduma

- Razón y revolución. Filosofía marxista y ciencia moderna
- Rusia, de la revolución a la contrarrevolución
- Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente
- Bolchevismo, el camino a la revolución
- La revolución bolivariana. Un análisis marxista
- Euskal Herria y el socialismo. Marxismo y cuestión nacional
- Apuntes revolucionarios.

A. Woods / T. Grant
Ted Grant
T. Grant / A. Woods
Alan Woods
Alan Woods
Eloy Val / Alan Woods

- Cuba, Venezuela y el socialismo internacional
- En defensa de la Revolución de Octubre
- Reformismo o revolución. Marxismo y socialismo del siglo XXI
- La batalla de Inveval
- Pirómanos apagando un fuego
- Revolución socialista y guerra civil

Celia Hart
A. Woods
Pablo Cormenzana
Juan Ignacio Ramos
Juan Ignacio Ramos

LANGILE MEMORIA bilduma

- Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos
- 3 de marzo. Una lucha inacabada
- Carrier. Lecciones de una lucha
- Historia del movimiento obrero en Guadalajara

José Martín
Arturo Val del Olmo
Felipe Palacios
Enrique Alejandro